TOPONIMIA ADMINISTRAZIOAREN
EGUNEROKO JARDUNEAN IKASTAROA

Durango, 2008-XI-08

TOPONIMIA IKERKETEN OINARRI TEORIKOAK

Patxi Galé,
Onomastika Batzordea
Euskaltzaindia

TOPONIMIA ZERGATIK IKERTU BEHAR DEN

Udal batek bere eskumena den eremuko toponimia ezagutu behar du, batez ere bere eguneroko jardunean lekuak izendatu behar dituelako. Toponimia beharrezkoa da bai udaletxeko funtzionamenduan eta bai herriko jendearen bizitza arruntean ere: kale-izendegia, herri-lan berriak, industrialdeak, lur-eremuen ustiaketa... Baina hau gutxi balitz, leku izenek kultur ondarearen atal bat osatzen dute eta, hartakotzat harturik, erakundeen eta hiritarren babesa merezi eta behar izaten dute. Nolabait esateko, udalen eginbehar eta arduren artean, herriko toponimiaren ezagutza eta babesa ere badago.

Gure ondare toponimikoaren zati handi bat euskal izenez osatua dago. Dakigunez, euskara luzaro bizi izan da gure artean inolako ofizialtasunik edo administrazio erabilerarik izan gabe. Baina jadanik administrazioan erabil daiteke –ez dago guztiz debekaturik, alegia– eta leku izen horiek ez dira beste hizkuntza ofizialaren itxura grafikoaren pean ezkutatu behar, beren hizkuntza propioaren arau ortografikoak bete behar dituzte grafia horiek nahiz, paradoxikoki, leku horietako askotatik euskara gaur egun desagertua den. Gainera, euskararen estandarizazio eta normatibizazioaren prozesua aurrera doa, mantso bada ere, eta grafia horiek irizpide homogeneo batzuen araberakoak izatea komeni da. Hortaz, gure toponimia normalizatu beharra dago euskararen beraren normatibizazioaren eta normalizazioaren prozesuaren barruko atal bat bezala, agian atzeratuenik daramaguna.

TOPONIMIA IKERKETEN AURREKARIAK

Toponimia ikerketen historia Euskal Herrian ez da oso luzea. XIX. mendetik zetorren bolada etnografiazale erromantikoarekin lotu behar ditugu lehenbiziko saioak eta, gurean, XX. mendearen aurreneko urteetan hasi ziren gauzatzen. Leku izenak maiz agertzen dira aipatuak lehenagoko idazlanetan, hala euskarazko

testuetan nola hizkuntza jasoagoetan idatziriko dokumentazioan. Baina leku-izenak ikergai gisa ulertuta, ez zaizkigu agertuko XIX. mendera arte.

Euskal Herriko lekuen izenen bilketa edo azterketa sistematikoaren lehenbiziko saioak Iparraldean aurkitzen ditugu. 1826an argitaratutako Lécluseren euskal gramatikan, mugaz bestaldeko herri batzuen euskal izenak jaso ziren sistematikoki[1]. 1863an Raymondek ere bere hiztegi topografikoan[2] Bearno eta Euskal Herri kontinentaleko herrien izenak jasotzen zituen, bertako hizkuntzen aldaerak ere agerturik. Aita Hatanek[3] 1895ean ipar Euskal Herriko herri izenen zerrenda ez ezik, haien etimoa ere azaltzeko egin zuen lehenbiziko saioa.

Hegoaldean piztu zen, ordea, euskal toponimia bildu eta jasotzeko lehenengo egitasmo handi eta sistematikoa, ageriko helburu etnografiko eta euskaltzaleekin. Horretarako, Luis Eleizalde euskaltzainak abian jarri zuen Euskal Herrian zehar laguntzaileen sare handi bat eta, 1922an hasita, euskal toponimoen zerrenda alfabetikoak argitaratzeari ekin zion. Asmo eta prozeduraren ideia bat egiteko, egitasmoaren aurkezpena eta deialdia plazaratzen zuen artikuluak «A los vascos de buena voluntad» zeukan izenburua[4]. Zerrenda hauen argitalpena Espainiako gerrak eten zuen, baina 1964an ikusi zuten argia azkeneko lerrokadek eta, guztira, 21340 leku-izen daude han jasorik[5]. Aintzat hartzeko corpusa da, beraz, izen bakoitzaren izaera eta kokapena ere ematen dituena aditzera.

Zerrenda hauen balioa gutxietsi nahi izan gabe, urte batzuk pasatu behar izan ziren helburu zientifiko argiagoekin lehenbiziko egitasmoak plantea zitezen. Euskal onomastikaren ikerkuntzan jauzi hau eman zuena Julio Caro Baroja izan zen. Bere *Materiales* izeneko lana[6] inoiz izan da aipatua erromantikotasunetik zientifikotasunerako urrats bezala. Ildo beretik eta berme horrekin berarekin,

---

[1] LÉCLUSE, Fleury de: *Grammaire Basque*, J.M. Douladoure, Toulouse-Baiona, 1826. Ikus, halaber, LAKARRA, Joseba Andoni & URGELL, Blanca: «Lécluse-ren Hiztegia. Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)», *ASJU*, XXII-1 (1988), 99-211.

[2] RAYMOND, Paul: *Dictionnaire topographique, Béarn eta Pays Basque*, Imprimerie Impériale, Paris, 1863. Gure egunetan ere argitara emana: Ekaina-Amalur, Donibane Lohizune, 1983.

[3] HATAN, Abbé Jean: *Explication des principaux noms propres de villages du Pays Basque français et des provinces basques*, Vignancourt, Paue, 1895.

[4] CAMPIÓN JAIME-BON, Arturo & BARAIBAR ZUMARRAGA, Federico & VELASCO LÓPEZ-CANO, Eduardo & ARRIANDIAGA GOROCICA, Manuel de & ELEIZALDE BRENOSA, Luis de: «Patronimia y toponimia vasca. A los vascos de buena voluntad», *Euskalerriaren alde*, V (1915), 242-246.

[5] ELEIZALDE BRENOSA, Luis de: «Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas», *RIEV*, XIII (1922), 113-128, 420-438, 493-509; XIV (1923), 128-144, 315-328, 442-456, 558-571; XVIII (1927), 625-633; XIX (1928), 77-87, 381-392, 614-626; XX (1929), 24-35, 218-227; XXI (1930), 178-201, 518-546; XXII (1931), 288-303; XXIII (1932), 408-437; XXIV (1933), 283-303, 387-404; XXV (1934), 418-429; XXVI (1936), 168-176 eta *BRSBAP*, XIX-3 (1963), 241-273; XX 1-2 (1964), 103-159.

[6] CARO BAROJA, Julio: *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamancako Unibertsitatea, Salamanca, 1945. Berrikiago argitaratua: Txertoa, Donostia, 1990.

Caro Barojak hein handiagoko egitasmo baterako lehen lerroak zehaztu zituen aspaldisko artikulu batean[7]: «Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval». Izenburua irakurtze soiletik uler daitekeenez, helburu filologiko eta historiko hutsekin abiatutako egitasmoa izan zen, euskararen normalizazioa eta leku-izen horien gizarteratzea aintzat hartzen ez zituena. Gauzatu ez zenez gero, Ricardo Zierbide ere saiatu zen, zenbait urte beranduago, era horretako egitasmo bat diseinatzen eta abiatzen. Ideia horren hazia «Onomasticon Vasconiae» izeneko artikuluan irakur daiteke[8].

Euskararen eta euskal toponimiaren araupetzea eta gizarteratzea kontuan izaten zituen lehenbiziko egitasmo mardula, José María Jimeno Juríok abiatu eta zuzendu zuen Nafarroan. Haren helburuak, ibilbidea eta, bereziki, metodologia aztertu nahi dituenarentzat, Euskaltzaindiak antolaturiko I. Onomastika jardunaldietako aktetan dago jasoa haren ponentzia[9].

EUSKAL TOPONIMIAREN IKERKETA ETA NORMALIZAZIOAREN HISTORIA

Gure garai hauetan euskararen egoerak aldaketa esanguratsu batzuk izan ditu, leku-izenen tratamenduan ondorioak izan dituztenak. Alde batetik, euskarak berak arautze prozesu luze eta sakon batean dago sartuta. Euskara estandarraren diseinuak, abiatzeak eta –egia esan dezagun– izan duen arrakastak, orain arte bere historia luzean inoiz ere ezagutu ez duen loraldi literarioa ekarri diote euskarari. Euskara batuari esker, orain arte ia eragotzirik zeukan maila idatzia konkistatu du gure hizkuntzak. Beste alde batetik, Hegoaldeko erkidegoetan marko autonomikoen abiatzea edo erreforma ere eragingarriak izan dira euskararen egoerarako. Euskal Autonomia Erkidego osoan eta Nafarroako alde euskaldunean nahiz, beste neurri batean, mistoan, euskarak estatus ofiziala omen du eta administrazio hizkuntza bezala erabilia izateko ateak irekitzen dizkio horrek neurri zabalago edo murritzago batean. Besteak beste, euskal toponimoak euskal grafia arauzkoan agertzea dagoeneko ez dago debekaturik eta gure herrien izen ofizialak, errepide eta kaleetako seinaleztapenak, bulego ofizialetako errotulazioa... euskaraz ere jartzea ohikoa da gaur egun. Batez ere beharrizan hauei erantzuna emateko, administrazioek abiatu dituzte, beste zenbait iniziatibaren artean, toponimia ikertzeko egitasmo batzuk.

---

[7] CARO BAROJA, Julio: «Proyecto para la elaboración del fichero de toponimia y antroponimia vasca medieval», *BRSBAP*, V-3 (1949), 381-385.

[8] ZIERBIDE MARTINENA, Ricardo: «Onomasticon Vasconiae, consideraciones metodológicas», *FLV*, 45 (1985), 175-182.

[9] JIMENO JURÍO, José María: «Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra», *I. Onomastika jardunaldien agiriak, toponimia,* Gasteiz, 1986ko apirila, Onomasticon Vasconiae 4, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 99-110.

Neurri handiko lehenbiziko egitasmoa Nafarroan abiatu zen 1980ko hamarkadaren amaieran eta lehen aipatu dugun Jimeno Juríoren diseinu harekin lotu behar da. Nafarroako Gobernuak behar hori ikusirik, ikertzaile hari eman zion lanaren zuzendaritza eta 1992tik 1999ra bitartean *Nafarroako toponimia eta mapagintza* izeneko bilduma joan zen plazaratzen[10]. Lan horretan, Nafarroako Foru Erkidegoko lur eremu guztia joan zen arakatzen, eskualdez eskualdeko ikerketen bidez eta lan-talde nahiz laguntzaile sare handi baten parte hartzearekin. Eskualde bakoitzeko liburuki bat argitaratu zen, leku-fitxa bilduma moduan eta eskala zehatzeko mapez lagundurik, bertako toponimia nagusi eta txiki guztia jasoz. Bilduma 59 liburukiz osatua dago eta guztira 99000 leku-fitxa baino gehiago kontsulta daitezke bertan, bakoitzean dokumentaturiko erak, ahoz bildutako lekukotzak eta milaka ohar etnografiko, historiko nahiz linguistiko agertzen direlarik. Izen horiek izaera ofiziala ere jaso zuten Nafarroan.

Jimeno Jurío aipaturiko egitasmoa ideatzen ari zen garai berean, jadanik 1986. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak enkargaturik, Deustuko Unibertsitateko Ikerkuntza institutuak (Deiker) Bizkaiko toponimiaren lehen inbentarioa egin zuen, Nerea Mujika irakasleak zuzendu eta hizkuntza alorra Alfontso Irigoien euskaltzainak gainbegiraturik. Iniziatiba honek segida izan zuen Araban eta Gipuzkoan 1991 eta 1993 bitartean. Hasierako corpus hau oinarri, berriz ere Eusko Jaurlaritzak eman zion Deiker institutuari toponimia hori guztia arautu eta 1:5000 eskalako mapetan jartzeko mandatua. Bizkaia egin zen lehenik (2001-2003), gero Araba (2005-2006) eta azkenik Gipuzkoa (2007-2008). Ideia bat egiteko, lan horretan Euskal Autonomia Erkidegoan 78200 toponimo baino gehiagoren arauzko grafiak eman ziren. Datu dokumentalak eta ahozkoak ugariagoak ziren arren, eskala hartako kartografian errotulatu beharreko lekuen hautespen bat egin zen. Lan hauen emaitzak Jaurlaritzako Web orrian kontsulta daitezke[11] eta Aldundien esku ere jarri dira beren kartografia lanetan erabiliak izateko, eskaintza horri oso erantzun desberdinak eman bazaizkio ere[12].

Iparraldeko legezko egoera zeharo desberdina izanik ere, gauzak ez daude pintatu ohi dizkiguten bezain ilun. Frantziako Errepublikan Institute Géographique National izaten da mapak egitearen ardura duena. Mapa hauek oso ongi banatzen dira –edozein liburu-denda nahiz kioskotan aurki daitezke– eta benetako tresna normalizatzaileak izaten dira. Baina beste alde batetik, gauza jakina denez, Frantziako hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. Gainerako hizkuntzei duela gutxi ukatu egin zaie bestelako estatuserako bidea. Hala ere,

[10] JIMENO JURÍO, José María (zuz.): *Nafarroako toponimia eta mapagintza / Toponimia y cartografía de Navarra*, LIX liburuki, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992-1999.

[11] *EAEko toponimia*, http://www.euskadi.net/euskara_toponimia

[12] Neurri handi batean lan honen emaitzak jasotzen dituen lehen argitalpena hau dugu: *Bizkaiko gidaliburua / Guía de Bizkaia, 2004, e. 1:20000*, Bizkaiko Foru Aldundia, Hirigintza eta Udal Harremanen Saila, Bilbo, 2004

urrats xume batzuk eman dira errepublika horretan ere, euskara eta gainerako hizkuntza gutxituak «babestu beharreko ondare»tzat hartuak izan baitira. Iparraldean Euskararen Erakunde Publikoa izenekoa jarri da abian eta, besteak beste, euskal toponimoak euskaraz ere errotula daitezen zaintzeko egitekoa du. IGNk berak ere, Euskaltzaindiari eman zion bere mapetako toponimia euskarazko grafia propiora pasatzeko mandatua eta egitasmoa aurki amaituko da, Iparraldeko euskaltzainek eta Onomastika batzordearen parte hartzearekin. Guztira 12000 leku-fitxa baino gehiago biltzen ditu datu base honek, corpus dokumental xume baten eta egindako ahozko bilketaren bermearekin.

TOPONIMIA ARAUTZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Euskara batua edo estandarrerako oinarriak jarri zirenean, ondare amankomuna lehenetsi edo, baliabideen ugaritasunaren aurrean, euskalki-aldaeren arteko hautua egiteko eredua onartu zen nolabait. Hala ere, badirudi bide estandarizatzaile hauek hizkuntza arrunterako direla baliagarriak eta ez onomastikaren alorrerako. Hala, *Aretxabaleta, Sorholüze, Uribarri* eta *Aizkorri* idazten dugu gaur egun, eta ez *Haritzabaleta, Soroluze, Hiriberri* edo *Haitzgorri*. Adibideetan ikus daitekeenez, leku-izenetan –eta orobat deituretan–, aldaera dialektalak onartzen dira erabilera jasorako ere.

Euskara batuaren hasierako garaietan, ez ziren gutxi izan euskaltzaleen artean gertaturiko eztabaidak, borrokak eta ezinikusiak: *H* letra dela eta, euskalkien gainbehera zela eta, hizkuntza artifiziala ote zen estandar hura... bakoitzak bere txokoan (euskalkian, herrian, auzoan, etxean...) erabiltzen zena defenditu nahian ari zen. Hizkuntza arruntean nola edo hala debate hura gaindituta dagoela ematen duen arren, badirudi eredu populista *–jatorrista–* haren defendatzaileak gaur egun plaza berria aurkitu dutela dema zaharkitu honetarako: toponimia. Euskara estandarraren eredu jasoaren arrakasta inor gutxik eztabaidatzen duen garaiotan, joera zahar haiek alibiatzeko irteera toponimian aurkitu dute. Hitz arruntak ez, baina leku-izenak, bakoitzak esaten dituen erara idatzi behar omen dira. Eta hori gainera, aipatu sistema estandarrean integratzeko. Horregatik, oraindik badago *Ibarla, Izal, Olazti* edo *Seani* bezalako herri-aldaeren erabilera defenditzen duenik (*Ibarrola, Idiazabal, Olatzagutia* eta *Zeanuri*).

Kontrako muturrean, paperetan idatzirik ageri dena erabili behar dela dioenik ere ez zaigu falta. Euskaraz *Bilbao, Huarte, Sopelana* edo *Rentería* aldaeren aldekoek argudiatzen dutenez, izen horiek dokumentazioan beti ageri omen dira horrela idatzirik. Lehen esan dugun bezala, paperetan era horiek aurkitzea eta ez besterik, ez da harritzekoa, euskara ez baita inoiz ere izan administrazio hizkuntza eta, eremu tematiko mugatu batzuk kenduta, ia itxita izan duelako idatzizko erregistrorako bidea. Halako argudioen atzean, historizismo elitistaren moduko jarrera sakonagoak ezkutatu ohi dira. Hauentzat *Bilbo, Uharte, Sopela* edo *Errenteria* dioena *aldeano* bat da eta *aldeanadak*

ez dira idatzi behar. Euskara iletratuen hizkuntza zela irakur daiteke iturri historiko zaharretan («lengua vulgar vascongada»), baina gaur egun jarrera horietan tematzeak ez dirudi zentzu handirik duenik: euskarak ere badu –edo izan behar du– bere erregistro kultoa.

Eta nola ezartzen dira toponimoen arauzko era jasoak idazteko irizpideak? Irizpide nagusia emanda dago dagoeneko. Euskalkiak errespetatu egin behar dira onomastikaren alorrean. Euskalki gehienak erabili izan dira –zein gehiago zein gutxiago– literatur lanetan eta, beraz, badute beren eredu idatzia, formalki gehienetan urrun samar geratzen bazaigu ere. Grafia kontu batzuk gora behera (*tx-ch-tch, x-sh-ch, ñ-in, ll-il, y-j, h-Ø...*), era dialektal arauzkoak nola edo hala ezarrita daude *de facto*, hots, badakigu idazkera zaharra gaurko usadioetara moldatzen. Euskalki batzuek, gainera, badute barneko batasun hori babesten duen kultur-talde edo erakunderik. Baina kontuz. Euskalkitzat ez da hartu behar edozein herritan edo auzotan «esaten den» guztia. Bistan da, aldagarritasunaren alderdi askoren atzean ez dagoela euskalkien babeserako borondate legitimoa, bereizi nahi antzu eta kaltegarria baizik. Argi dago toponimia lurrari bereziki lotutako iker-eremua dela. Beharbada horregatik, lekuan lekuko biztanleek bereziki propioa den ondaretzat dauzkate beren inguruko leku-izenak. Maizenik, beren gurasoengandik berengana emandako jauzi itzelaz ere ez dira ohartzen eta jatortasunaren mukurua «bertakoen» gaurko esanetan dagoela sinesten dute irmoki. Hori ez da tradizioa jagotea.

Tradiziozko euskalki literarioek erakutsitako ondarearen babesa ez ezik, Onomastika batzordearen irizpideetan euskara estandarrean jarraitu ohi direnekin bat etor daitezkeen irizpide «orokorrak» defenditzen dira. Adibidez, ez da *Madarixa* idazten euskara batuaz *mendixa* edo *haundixa* idazten ez diren arrazoi berberagatik. Haren ordez, idatzizko *Madariaga* hobesten da eta bakoitzak ahoska dezala bere eskualdean egiten den moduan. Kontrara, *Urioste* eta *Irigibel* toponimoak euskalki desberdinetako aldaera jator eta babestekotzat hartuko ditugu, esanahi berbera badute ere. Euskara ultraestandarrean *Hiriatze* eman beharko ote genuke?

Toponimia biltzean dialektologia arruntean hain erraz aurkitzen ez diren hainbat eta hainbat fenomeno autonomo eta bereiz aurkitzen dira, eskualdez eskualdeko ezaugarri interesgarri askorekin batera. Guk ez dugu defendituko halakoak ez direnik arakatu eta ikertu behar. Baina hizkuntza estandarrerako toponimia arauzko bat behar dugu. Eta behar dugu ez daukagulako. Eta ez daukagulako gertatzen zaigu jendeak ez dakiela zer-nolako seinaleztapenak jarri, ez dakiela nola deklinatu behar diren urruneko nahiz etxe ondoko leku-izenak, ez duela asmatzen toponimoa eta generikoa josteko tenorean...

Horiek guztiak araupetzeko eta euskara estandarraren idatzizko erregistroan integratzeko ari da lanean Onomastika batzordea. Askok uste dutenaren kontra, toponimia arautzeko prozeduran ez dira lehenik irizpideak jartzen eta gero toponimoen grafiak erabakitzen. Metodologia egokiaz egindako toponi-

mia ikerketetan aurkitzen eta identifikatzen diren fenomeno guztiak, hala dokumentazio idatzian aurkitutakoak nola ahozko bilketan jasotakoak, tipifikatu behar dira eta bakoitzari komeni zaion soluzio grafiko egokia bilatu behar zaio. Eta segurtasunez egiteko, fenomeno bakoitzaren neurria, tradizioa eta hedadura geografikoa ezagutu behar dugu lehenik.

IRIZPIDEAK NONDIK HELDU DIREN

Toponimian aurkitzen ditugun hizkuntza-gertakari asko Euskal Herri osoan zehar kausi daitezke, orainean nahiz iraganean eta gehienetan soluzio grafikoa bat bakarra izatea da egokiena. Adibidez, bokalarteko *-n-* hotsaren erorketa, beste zenbait hizkuntzatan ez ezik, euskararen barietate guztietan ere gertatzen den fenomenoa da, eta tradizio luzeko fenomenoa. Hortaz, aski dugu *-n*-rik gabeko aldaeraren berri xume bat aurkitzea, euskal era arauzkotzat *Berrikao, Gauza, Gindao* edo *Sopela* aldaerak hobesteko (gaztelaniaz *Berricano, Ganuza, Guindano* eta *Sopelana*).

Beste zenbaitetan, ordea, euskalki zehatz bati dagozkio ezaugarriak eta orduan, aintzat hartzekotan, bakarrik eremu geografiko horretan onartzen dira, irizpide bezala, grafia horiek. Adibidez, *Olabarri* izena da arauzkoa Bizkaiko Fruizen, baina *Olaberria* Gipuzkoako Goierrin nahiz Nafarroako Eugin.

Maiz gertatzen da fenomeno bakar batek tradizio desberdina duela eremu geografiko bitan. Kasu hauek askotan eztabaidatuak izaten dira, baina badirudi zuhurrena tradizioa errespetatu eta azken orduko analogiei merezi ez duten mailarik ez ematea dela. Halaxe, mendebaldeko eredu idatzietan oso ondo dokumentatua eta gure egunetara arte heldu den *-ena* etxe-izenen atzizkia (jatorriz edutezko genitibo hutsa baino ez dena) gordetzearen aldeko jarrera erakutsi du Onomastika batzordeak, nahiz eta gaur egun (XIX. mendetik datorren bolada) Bizkaiko eta Debarroko leku askotan *-ene* esaten den. Hauen defendatzaileek Gipuzkoako ekialdetik harantz aurkitzen den eta tradizio luzeagoa duen *-enea* ezaguna erabiliko dute ahotan argudio bezala. Baina Bizkaian ez bezala, Nafarroan-eta XVII. mendean jada dokumenta daitezkeela isilpean gordeko dute. Gure iritzian, *Arotzena* arautu behar da izen horretako etxea mendebaldean eta *Arotzenea* ekialdean.

Fenomeno bakoitzaren aurrean nolako soluzioak eman daitezkeen proposatu, eztabaidatu eta ondoko irizpideen formulazioa ez dira egin hutsaren gainean. Horretarako bidea gorago aipatu diren corpus toponimikoak eta, bereziki, haien datutegi dokumental eta ahozkoak izan dira oinarria. Hau da, arauzko soluzio grafikoak beti proposatu dira datu multzo aberatsen bermearekin eta Euskal Herri osoaren perspektiba zabala begi aurrean edukita. Lehen aipatu diren lanek beren ekarpena izan zuten irizpideen eremuan eta goian aipaturiko ordenean joan ziren ekoizten eta argitaratzen. Nafarroako toponimia bilduma plazaratu ondoren, Onomastika batzordeak ordura arteko irizpideen

bilduma atera zuen[13], lan hartan zehar aurkitutako problematikak eta bilatutako soluzioak aditzera emanik.

Deustuko Unibertsitatean Bizkaiko toponimiaren ikerketari ekin zitzaionean, irizpide haiek berak izan ziren abiapuntua baina, euskalkiaren berezitasunagatik problematika berri eta desberdin asko aurkitu ziren eta irizpide zehatz ugari proposatu, eztabaidatu eta ezarri behar izan ziren. Irizpide hauek ere Onomastika batzordearen oniritzia jaso zuten eta Eusko Jaurlaritzaren Web orrian eskura daitezke[14]. Arabako arautze lanak ere bere ezaugarri bereziak izan zituen, bereziki euskara desagertu den lurraldeetako euskal toponimia arautu behar izan zelako, sarritan guregana desitxuratu samarra heldu dena. Gipuzkoaren kasua ez zen hain aberasgarria izan irizpidegintzaren aldetik, jakina denez, gipuzkera eredu estandarretatik hurbilago dagoelako.

Gaur egun Iparraldeko toponimia lanaren lehen fasea amaitzen ari delarik, garrantzi berezia ematen ari zaio lurralde haietako leku-izenetan erabili behar diren arautze irizpideei. Maiz Iparralde errealitate bakun eta sinple baten moduan irudikatzen badugu ere, euskalkien aldetik konplexu samarra da eta tradizio nahiz usadio dialektal horiek babesteko soluzio plural eta egokiak bilatu dira eta halaxe aplikatu. Iparraldeko lan hori burututakoan, komeniko litzateke irizpide horien guztien bilduma sistematizatu eta ondo ordenatu ondoren, modu didaktiko eta erabilgarrian nola edo hala plazaratzea, baina hori etorkizunerako beste kontu bat da...

Aipatu diren lan hauek eta beraien aurrekariak, nolabait esatearren, ikuspegi «makro» batetik egin dira eta, horrenbestez, hedadura handiko helburu horrekin bat datozen metodologia «makro» batzuk erabili dira. Lan hauek ez dira, hala ere, azken muga edo helburua. Haien ondoren sakontasun handiagoko lan «mikro»en txanda dugu. Lan metodologia zehatzagoak eta arakatze lan exhaustiboagoak ekar ditzakete lan hauek. Bigarren urrats honetan koka ditzakegu nolabaiteko boladan dauden herri monografiak. Sakontasun, zehaztasun eta exhaustibitate handiagokoak izanik ere, badute arrisku berezi bat ikertzaileek begi-bistan eduki behar luketena: toponimiaren kontua gai identitarioekin lardaskaturik egon ohi da gure irudimenean eta, sarri askotan, hizkuntza aldaeren aberastasunak non amaitu eta txokokerien nahaskeria antzua non hasten den ez dago nahi eta behar genukeen bezain garbi. Bakoitzak bere herriko produktuak promozionatu nahi izaten ditu eta ikertzaile askok aurkitu uste izaten dituzte izugarrizko altxorrak etxe ondoko toponimian eta auzokide diren informatzaile jatorrengan. Orain arte beste inork erreparatu ez dituen fenomeno fonologikoak identifikatzen dituzte, inoiz euskararen jatorrian eta protoeuskeraren sekretuetan argia egingo dutenak...

---

[13] GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera*, XLV (2000-1), 273-314. Separatan ere argitaratua.

[14] Toponimia arautzeko lan-taldea: *Euskaltzaindiaren irizpideak. Erabilera eta oharrak*, http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/6511/eu_2418/adjuntos/IrizpideakHPSDeikerZuzendua20051.pdf

TOPONIMIA IKERKETA BATEN URRATS NAGUSIAK

Gure eremu geografikoan lanean ari diren ikertzaileen lan ildoetan bi joera nagusi antzematen ditugu. Alde batetik, *Euskal Etnografia Eskola* zaharraren ondorengo jo genezakeena eta, bestetik, eskola historiografiko tradiziozalea deit genezakeena. Lan ildo huts eta garbi hauek idealak dira, noski, errealitatean beren ezaugarriak nahasten eta konbinatzen dituztenak. Hala ere, edozein toponimia lan harturik, erraza da egileak zein muturretatik hurbil dauden antzematea.

Joera etnografiazaleak beti lehenetsiko ditu ahozko informatzaileengandik landa-lanean lorturiko datuak eta mesfidantzaz –bigarren mailako osagarri bezala– aztertuko du dokumentazio idatzia. Halako ikertzailea populismorantz makurtuko da segur aski arauzko eren grafia erabakitzerakoan. Ondorioz, ezaugarri dialektalak ez ezik, txoko bakoitzeko aldaerak eta fonetismo «jator» guztiak ere babestu nahi izango ditu idazkera estandarra medio. Eskola folklorista honek, XIX. mendeko erromantizismoan du azken sustraia eta, beste toki batzuetan modaz pasatu bada ere, gurean oraindik *ospe ona* izaten segitzen du. Egia da 1920. urteen hamarkadan Arantzadik eta Barandiaranek bultzatutako metodologia etnografikoak zaharkiturik daudela gauza askotan, bereziki beren oinarri teoriko eta ideologikoetan. Hala ere, onartu behar dugu oraindik gaur egun balio handia duten zenbait prozedura diseinatu zituztela duela ia ehun urte. Metodo horiek ezagutu, baloratu, iragazi eta erabil daitezke gure alorreko landa-lana egiterakoan. Euskararen eremuan horren aitzindariak izan ziren sasoi bertsuan Resurrección María Azkue, Arturo Campión eta, toponimiari gagozkiola, gorago aipatu dugun Luis Eleizalde ere.

Kontrako muturrean historizismo elitista izango genuke. Lan ildo hauen zaleek «toponimia historikoa» dute gustuko. Aztertzen duten lur eremuko biztanleengandik informazioa biltzea ez dute beharrezkoa ikusten, «egiazko» datuak dokumentazio historikoan agertzen direnak direla uste dutelako. Dokumentalista jakintsuaren informazioak du lehentasuna, eta herritar xumeek darabiltena haren desitxuraketa baino ez da. Honen atzean, eskola historiografiko enpiristen metodoak eta jakintzaren banaketa elitistaren ideologia gorde ohi dira. Gaur egun –bereziki «adituen» elitismo hori– oraindik indartsu daude joera hauek gure arteko zenbait kultur erakundetan, nahiz beste herrialde batzuetan aspaldi zaharkiturik gelditu diren. Eskola honetakoek ez dute euskararik aurkituko arakatutako dokumentazioan eta, ondorioz, euskara apenas existitu ere ez dela egin aterako dute konklusio zientifiko bezala, are gutxiago euskal toponimoen euskal grafiarik... Hala ere, onartu beharra dago haien metodo enpirikoen hainbat prozedura, oso baliagarriak direla gure ikerketen datu dokumentalen bilketan.

Bi muturreko joera hauek aipatuta, gogora ekar dezagun zein ote den toponimia ikerketen helburua. Ikerketan zehar interes nahiz balio handiko pila bat informazio batu, aztertu eta aurkeztu ahal den arren, euskarak *faltan* due-

na eskaintzea da, gure ustez, bilatu behar dena. Ahozko erek, definizioz, bizirik dagoen toponimiaren berri ematen digute. Baina ahozko erregistroa zein ote den ez da gure gabezia nagusia. Batez ere idatzizkoa falta zaigu. Gure problema da idatzizko toponimiarik ez dugula edo, bestela esanda, euskal toponimia beste hizkuntza batzuen arau grafikoekin idatzi dela orain arte eta, beraz, ez dakigula leku-izenak euskaraz nola demontre idatzi behar ditugun. Toponimia maila guztietan erabilgarri bihurtuko badugu, arauzko era grafikoa zein den erabakitzea da toponimia ikerketa baten helburu nagusietakoa. Helburu horren premia argi ikusten badugu, onartu beharko dugu idatzizko datuek garrantzi edo pisu handiagoa izango dutela erabaki beharrekoak erabakitzeko. Ordea, idatzizko leku-izen horiek gehienak euskara ez diren beste hizkuntza batzuetan jasota eta egokituta agertuko zaizkigunez, ahozko datuek informazio hutsune hori betetzen lagunduko digute.

Baina helburuak helburu, ohiko ikerketa batek honako urrats nagusi hauek izaten ditu[15], neurri batean edo bestean ikerketa prozesuaren oinarriak izango direnak: 1 Datu dokumentalen jasoera, 2 ahozko informazioaren bilketa, 3 toponimoen arautze grafikoa eta 4 izenen normalizazioa.

1. Fondo dokumental, kartografiko eta bibliografikoen inbentarioa eta ondoko erauzketa.

   Denboraren arabera ordenaturik, dokumentazioan, mapetan eta abarretan idatzirik aurkitzen ditugun leku-izenek, beren historia idatziaren berri ematen digute. Ez dira inpresioak edo memoria ariketa espekulatiboak, datuak baizik eta, horrenbestez, bilketa honetatik aparte utzi behar dira iritzi, uste, interpretazio, herri etimologia eta era honetako gauzak. Horrek ez du esan nahi halakorik ez dela jaso behar, daukaten balioa eman eta dagokien sailean gorde behar direla baizik. Datu hotzak izanik ere, kontuan izan behar dugu iturri dokumental guztiek ez dutela fidagarritasun maila bera eta jasotako lekukotzak garai bakoitzeko baldintzetara egokituta aurkituko ditugula ezinbestez (eskribauen irizpideak, administrazio hizkuntzaren ortografia, unean uneko moda eta prestigioa…).

2. Ahozko informatzaileen bilaketa, identifikazioa eta informazioaren bilketa.

   Laburbildurik, helburua gaurko erabilera mintzatuaren berri jasotzea dela esan daiteke. Herriko leku-izen horien erabiltzaileei galdetzean, izaera desberdineko arrazoi askorengatik, gertatuko zaigu aurreko fasean lortu ditugun era dokumentalak eta ahoz jasotzen ditugunak, ez direla izango nahi genituzkeen bezain *antzekoak*. Hala ere, ahozko

[15] Ikerketaren faseen deskribapen hau, ohar metodologiko gehiagoz horniturik, honako honetan kontsulta dezake interesa duenak: GALÉ GARCÍA, Patxi: «Toponimia ikerketak», *FLV*, XXXIX (2007), 104. zkia., 161-172.

informazio hau izango da antzina erabilitako izen dokumentatuak eta gaurko eremu geografiko izendatuak erlazioan jartzeko biderik seguruena eta, gehienetan, bakarra. Informazio horien eramale fin eta egokiak bilatu behar ditugu, beraz. Informatzaileak bilatzeko irizpideak kualitatiboak izaten dira, errepresentatiboak baino gehiago, hau da, informatzaile egokia ez da herriko batez besteko *tipo* kulturala, kultura zaharrean edo jatorrean jantzia dagoena baizik. Arrazoi beragatik, esan behar dugu jasotako datuek ez dutela balio errepresentatiborik zentzu soziologikoan, hau da, ez dira derrigor izen *erabilienak*. Nola edo hala, aurreirizten dugu *jatorrena* bilatu behar dugula, ez erabiliena. Iritzi hori zalantzan jartzen ez dugunean, ia inkontzienteki ari gara hautu metodologiko zehatza egiten –ideologiaz zamaturik dagoena, segur aski–. Hainbat galderari erantzuna ematea komeniko da, onestasunez lan egingo badugu: Nortzuk bizi dira herri horretan?, nortzuek erabiltzen dituzte izen horiek?, nola egokitzen dituzte esaldi arruntetan?, zein hizkuntzatan txertatzen eta ahoskatzen dituzte?, nortzuek daukate *gure lekuak* izendatzeko edo bataiatzeko eskubidea?...

3. Toponimoen arautze fasea eta normalizaziorako proposamenak.

Lanaren sustatzaileek ikerketa lanaren prozedura zuzena eta emaitzaren kalitatea zainduko duen kultur erakunde bat aukeratu ohi dute. Kontrol akademiko honexek emango dio lanari nolabaiteko bermea. Erakunde akademikoek, ustez –behintzat hala egin ohi du Euskaltzaindiak–, irizpide batzuk dituzte toponimoen idazkera arauzkoa zein den erabakitzeko. Irizpide horiek, bereziak izanik ere, euskararen normalizazio korapilatsuan emandako urratsekin bat etorri ohi dira, euskal toponimiaren normalizazioa euskararen beraren normalizazioaren atal bat baita eta halaxe ulertzen ikasi behar baitugu. Gaztelania edo frantsesa bezalako hizkuntza normalizatu batean, oro har, hiztunek sistema ortografiko egokia ezagutu eta erabiltzen dute apenas desbideratzerik gabe. Hizkuntza horien akademiek emandako irizpideak ez dira zalantzan jartzen eta estatu boteretsu horien administrazioek ere, irizpide horiek onartu ez ezik, haien normalizazioa bultzatzen dute ere oso modu eraginkorrean. Euskararen egoera, tamalez, guztiz da bestelakoa. Horregatik oso ohikoa da erakunde, ikertzaile, erabiltzaile edo zale bakoitzak bere gustuko idazkerak proposatzea, hobestea edo jo-ta-su defenditzea. Sakabanatze hori gure hizkuntzaren egoera ez-normalaren ondorio da alde batetik, baina egoera horretan jarraitzeko lagungarri aktibo ere bihurtzen da, azken hau beti bilatutako helburu kontziente eta agerikoa ez bada ere.

4. Arauzko toponimia horren gizarteratzea eta normalizazioa.

Laugarren fase hau ikertzaileen eskuetatik kanpo gelditu ohi da. Jasotako informazio guztia ordenatu, mapetan kokatu, oharrak erredaktatu,

arauzko proposamenak egin –guk *proposamen* deitu ohi ditugu, azken erabakia erabiltzaileen esku baitago– eta material hori guztia entregatutakoan, lana *amaitutzat* eman ohi du ikertzaileak. Ondoko fasea da, ordea, garrantzitsuena, prozesu osoaren pizgarri eta azken helburua delako. Ikerketaren emaitzak eta egindako proposamen horiek gizarteratu behar dira eta gizarteak bere egin arte, ez da gure helburua erdietsiko. Badago afera honen inguruan, intereseko ideia bat ikertzaile eta aditu guztiek etengabe buruan atxiki behar luketena. Proposatzen diren toponimo arautu hauek herritarrengandik jasotako informazioaren emaitza elaboratua dira eta, horregatik, *deboluzio* bat bezala ulertzen hasi behar dira. Informatzaile/erabiltzaile hauek izango dute azken hitza, zeren arauzko proposamenak *normalizatu* egin direla esateko, erabiltzaileen eguneroko praxian sustraiak luzatu behar baitituzte. Eta horrek denbora eskatzen du.

EUSKALTZAINDIA ETA ONOMASTIKA

Andres Iñigo

1. ATARIKOA

Euskara hizkuntza bat eta bakarra da, eta hizkuntza horren Akademia Euskaltzaindia, nortasun juridiko osoa duen erakundea. Hortaz, berari dagokio gizartearen harreman guztietarako hizkuntza egokitzearen ardura eta gidaritza.

Baina euskara egokitzea ez da bakarrik gramatika egiturak, hiztegia edo ortografia landu, batu eta arautzea. Badago hizkuntza guztietan, eta euskararen kasuan zer erranik ez, bertze alor aberats bat, izenen alorra, alegia. Gainera, kontuan izan behar da Euskal Herriko eremu zabal batean euskara galduaren aztarna bakarra Onomastika dela eta, hortaz, alderdi horiek euskaldunak izan direla adierazten digun lekuko bakarra onomastika dela, toponimoak eta deiturak, batik bat.

Euskal literaturaren lehen liburuak XVI. mendea arte agertzen ez badira ere, izenak anitzez zaharragoak ditugu; izenak baitira gure hizkuntzaren lekukorik zaharrenak, pertsona izenak (antroponimoak), jainko izenak (teonimoak) eta leku izenak (toponimoak)[1], I. eta II. mendeez geroztik Akitanian batez ere agertzen direnak[2]. Geroago, IX-X. mendeetatik aitzina, agirietan agertzen zaizkigu, Nafarroakoetan bereziki. Izenak herriaren izanaz mintzo zaizkigu; hortik, bada, euskal onomastikaren garrantzia.

Garrantzi horretaz, gure herriko idazle eta ikertzaileez gainera, kanpokoak ere jabetu izan dira eta hor ditugu XVII. mendean hasi eta Baltasar Etxabe eta Arnaud Oihenart(e) eta geroago Wilhelm von Humbolt, Pablo Pedro Astarloa, Arturo Campión, Achille Luchaire, Julien Vinson, Sabino Arana, Luis Eleizalde, Henri Gavel, Ramón Menéndez Pidal, René Lafon, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Joan Coromines, Alfonso Irigoien... –izen batzuk bertzerik ez aipatzeagatik–, beren idatzi eta ikerketa lanetan onomastikaz arduratu direnak.

---

[1] Mitxelena K. (1964: 15).
[2] Gorrochategui Churruca, J. (1984).

Aipamen berezia merezi du euskararen alorrean izan dugun maisurik handienak, Koldo Mitxelenak. Haren lanetan argi ikusten ahal da onomastikarekin zuen interesa, *Apellidos Vascos* liburuan erraterako eta, kontuan hartzekoa da, *Fonética Histórica Vasca*-n toki eta pertsona izenei ematen dien lekua eta garrantzia. Seriotasun eta bide zientifikoa markatu zion Koldo Mitxelenak onomastikari, bai eta Alfontso Irigoienek eta orain dela sei hilabete utzi gintuen Henrike Knörrek ere. Berme zientifiko hori du, hain zuzen ere, goiburutzat Onomastika batzordeak bere lanetan.

2. EUSKAL ONOMASTIKA ARAUTU BEHAR DA?

Hizkuntza landu guztiek lehentxeago edo geroxeago egin izan duten bezalaxe, Euskaltzaindiak ere, 1968an Arantzazuko Biltzarrean, hizkuntza batuaren aldeko apustua egin zuen; argi ikusten zelako hizkuntza estandarizatuaren beharra, batez ere irakaskuntzarako eta idatziz komunikatzeko[3].

Kontua da hizkuntza baten onomastika ez dela bi alor horietara soilik mugatzen. Onomastikaren esparrua ezin da inola ere alor bakar batzuetara murriztu. Arrazoiak begi bistakoak badira ere, labur azaltzearren bi hauek aipatuko ditut:

a) Alde batetik, pertsona guztiak izenei lotuak gaude. Denok ditugu gure nortasuna adierazten duten izen-deiturak, denok bizi gara izena duen herri edo hiri batean, izena duen etxe edo baserri batean edo, gutxienez, izena duen karrika bateko pisu batean. Gure eguneroko bizitzan, segur aski, gehien erabiltzen dugun erreferentzia izenena da. Zenbat pertsona eta leku izen ez ote dugu aipatzen egunaren buruan? Ez dakit beharrezkoa ote den arrazoi gehiago bilatzen aritzea gure izenak bildu, sailkatu eta ikertu ondoren forma arautua eman behar zaiela ikusarazteko.

b) Bertze aldetik, euskal izenen erabilera ez da bakarrik euskara dakitenetara edo hizkuntza honetan mintzatzen direnetara mugatzen. Erran beharrik ez dago:
   - Euskara ez dakitenek ere egunero entzuten, irakurtzen, idazten edota ahoskatzen dituzte izen horiek.
   - Euskal Herriko mugetatik kanpo, gero eta hedadura zabalagoa hartzen ari dira gure ponte izenak eta, egungo hedabideak eta informatika direla medio, gure deiturak eta toponimoak munduko xoko guztietan ageri dira.

Hortaz, gure onomastikaren errepertorioa, *izana duen herriaren izendegia den heinean*, neurri batean behintzat, gure herriaren berezitasun eta nortasuna-

[3] Villasante, L. (1978: 443-444).

ren adierazgarri da[4], mundu zabalean gure hizkuntzaren prestigioaren erakusleihoa. Beraz, ukaezina da duen balio historikoa eta estetikoa[5].

Gauzak horrela, argi dago euskal onomastikaren *Corpus*eko izenen aldaera arautua ezartzearen garrantzia eta beharra; izen horien erabilera zuzena izan dadin, gure hizkuntzaren prestigiorako eta gure herriaren nortasuna behar bezala agerrarazteko[6].

Onomastikaren erabilera okerra edo finkatu gabea ez da gure herriaren nortasunaren alde mintzo, ez eta gure hizkuntzaren prestigioaren alde ere. Gramatika, hiztegi eta ortografiaren alorretan bezalaxe, onomastikarenean ere, erabilera zuzena hizkuntzaren prestigioaren seinale da. Gainera, kontuan izan behar da onomastika dokumentu eta xafla ofizialetan agertzen denez, gure euskal izenak denek irakurtzen dituztela, bertako euskaldunek eta ez euskaldunek eta kanpotik etortzen direnek.

Horregatik diot onomastikaren erabilera, neurri handi batean behintzat, gure hizkuntzaren osasunaren eta prestigioaren adierazle dela, eta begi bistakoa da alde handia dagoela osasuntsu agertzetik gaixorik eta ahul agertzera.

Azpimarratu nahi dut, bada, hizkuntzaren zuzentasunak, eta zuzentasun horren barruan onomastikarenak, garrantzi handia duela, zenbaitek ematen diotena baino handiagoa, eta gertatzen ahal dena da –eta gure Herrian oraindik ere maiz aski gertatzen da– ezjakintasun, axolagabekeria edo utzikeriagatik zenbait jende garrantzi horretaz ez jabetzea.

3. EUSKALTZAINDIAREN ARDURA ETA LANA ONOMASTIKA ALORREAN

Euskaltzaindia 1918-19an sortu zen eta berehala jabetu zen bere eginbeharretako bat onomastika ikertzea eta lantzea zela; alde batetik, altxor kultural aberatsa delako eta, bertzetik, izenak zuzen erabiltzearen garrantzia –arautzearen premia– ikusi zuelako. Euskaltzaindiak bere sorreratik agertu zuen berariazko batzordea eratzeko beharra. Kontuan izatekoa da Oñatin 1918an egindako lehendabiziko Biltzarrean Julio Urkixok zioen

[4]Leku izenei dagokienez, honela dio GENUNG (Groupe d'esperts des Nations Unies pour les noms géographiques) erakundeak: «les noms géographiques proclament notre identité nationale, notre patrimoine culturel». *Bulletin d'information toponymique*, 1. zenbakia.

[5]Moran i Ocerinjauregui, J. (1996: 7-8). Onomastikaren bi atalei buruz (antroponimia eta toponimiari, alegia) hau dio: «No solament aporten una informació científica, lingüística i humana considerable, i per aquest motiu s'han dedicat i es dediquen molts lingüistes a l'estudi etimològic i diacrònic d'aquests noms, sino que també posseeixen un valor estètic considerable».

[6]GENUNG-ek hau dio: «un nom écrit de façon correcte est une source très importante pour toute recherche linguistique, historique et culturelle». *Bulletin d'information toponymique*, 2. zenbakia.

hau: «según indiqué en el Congreso de 1911, un estudio que tiene gran importancia para la vascología es el de nuestra toponimia, pues como los nombres de lugares en Euskalerria se refieren, con frecuencia, a la configuración de los montes, de los valles y de las casas; a su situación, a los árboles y plantas, su estudio proporciona datos de gran interés»[7]. Gainera, euskara Administrazioaren hizkuntza ofiziala inoiz izan ez zenez, eskribau eta funtzionarioek euskal izenak erdal grafian idazten zituzten eta, anitzetan euskara ezagutu ez eta nolanahi idazten zituzten, edo erdarara itzuli. Horretaz gainera, kontuan izan behar da, ordurako, zenbait pertsona eta erakundetan nolabaiteko lurrikara sortu zuela Arana-Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarra*k. Egile hauen ekarpena aipagarria da eta ukaezina urratu zuten bide berriak gizartean izan zuen onarpena; baina, aldi berean, erabat eztabaidagarria, aurreko tradizioarekin *tabula rasa* eginez, izenak euskaraz emateko aplikatu zuten zenbait irizpiderengatik. Hori guztia zela eta, Azkue lehendabiziko euskaltzainburuak hasiera hartan bertan, 1920an, sortu zuen «Toki eta giza izenak atala» («Sección de toponimia y patronimia»)[8].

Euskaltzaindiak 1968an hizkuntza batuaren (estandarizatuaren) aldeko erabakia hartu zuen. Horren aplikazioa hizkuntzaren sail guztietan egin behar zela ikusi zuen eta hala egiten hasi zen ortografian, hiztegian, gramatikan... Onomastikari dagokionez, hasiera batean, 1971n, Euskal Herriko udal eta auzo izenak ikertu eta finkatzeko asmoarekin berariazko batzorde bat eratu zen, «Izendegi batzordea» deitua. Lan ikaragarria zela ikusita, udal izenak soilik ikertzea erabaki zuen. Lan horren emaitza da Euskaltzaindiak 1979an kaleratu zuen *Euskal Herriko Udalen Izendegia*.

Batzorde honen eraketan ditugu, bada, urte batzuk geroago sortuko zen Onomastika batzordearen oinarriak. Lehenengo lan hori gauzatzeko izandako zailtasunen lekuko dugu orduz geroztik batzordekide den Jose Luis Lizundia euskaltzaina.

Bitartean, Akademiak Jose Maria Satrustegi euskaltzainaren gidaritzapean, garrantzi handiko bertze proiektu bat jarri zuen abian, *Euskal Izendegi*-arena, ponte izenena alegia. Ordura arte erabilitako izendegi ezagunak Arana-Eleizalderen *Deun-ixendegi euzkotarra* (1910) eta Aingeru Irigaraik Euskaltzaindiaren izenean argitaratutako *Euskal Izenlerroa* (1966) ziren. Ongi ikusiak eta onartuak izan baziren ere, lan horietan agertzen ziren izenek ez zuten garaiko euskal gizartearen gose-egarria aski betetzen, gizarteak zerbait

[7] Julio de Urquijo e Ibarra, «Estado Actual de los Estudios Relativos a la Lengua Vasca» in *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones vascas. Bilbao, 1919, 424. or.

[8] Euskatzaindiaren Barneko araudia / Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca. Eusko argitaldaria / Editorial vasca, 1920. I. atala, 2. puntua.

gehiago nahi eta eskatzen baitzuen. Euskal onomastikaren harrobian ezkutaturik zeuden hainbat izeni ofizialtasuna eman eta argitaratzearen beharra zegoen. Hori izan zen Satrustegiren *Izendegi*-arekin emandako urratsa. Hiru aldiz argitaratu zuen Akademiak *Euskal Izendegia* deitutako liburuxka, lehendabizikoa 1972an 700en bat izenekin, bigarrena 1977an[9] 1.200ekin eta hirugarrena 1983an, 1.850en batekin.

Izendegi horrek gizartean izandako onarpen eta arrakastaz jabetzeko aski da hurrengo urteetan ponte izenetan izan zen aldaketa ikustea. Mikel Gorrotxategik, Onomastika batzordeko idazkariak, argitaratu zuen lan batean azaldu zituen datuak adierazgarriak dira[10]. Hego Euskal Herrian, XX. mendearen erdi aldera jartzen ziren ponte izenak mende horren azken hamarkadan jarri zirenekin konparatuta, argi ikusten ahal dugu izandako aldaketa. Hauek ziren lehendabiziko lekuetan agertzen zirenak:

a) Gizonezkoetan		**b) Emakumezkoetan**	
XX. mendearen erdi aldera	**XX. mendearen azken hamarkada**	**XX. mendearen erdi aldera**	**XX. mendearen azken hamarkada**
José Luis	Mikel	Maria Carmen	Leire
Francisco Javier	Jon	Begoña	Amaia
José María	Aitor	María Jesús	Nerea
Antonio	Asier	Carmen	Maria
José Antonio	Ander	María Teresa	Ane
José	Iñigo	Isabel	Laura
Manuel	Iker	Pilar	Ainhoa
Jesús	David	Concepción	Andrea
Francisco	Xabier	Ana María	Sara
Angel	Javier	María Pilar	Marta
Jesús María	Unai	María Ángeles	Irati
Miguel Angel	Julen	Teresa	Cristina

Izen berri horien eragina Euskal Herritik kanpo ere hasi zen hedatzen. *Aitor, Eneko, Iker, Arantxa, Edurne* eta bertze hainbat euskal izen, gero eta arruntago entzuten dira han-hemenka. Madrilen, erraterako, orain dela hamar urte argitara emandako lan batean 737 *Amaia*, 673 *Ainhoa*, 153 *Estibaliz* eta 111 *Leire* ageri ziren[11].

[9] Espainiako 17/1977 lege berriari esker, bigarren argitalpenean sartu ahal izan ziren bostehun izen gehiago. Ordura arte, ez zitekeen euskaraz jar erdal baliokide zuen izenik. 1977tik aitzina zilegi da Estatuko edozein hizkuntzatan jartzea.

[10] Gorrotxategi Nieto, M. (2000: 155-164).

[11] García Gallarín, C. (1998: 363).

4. ONOMASTIKA EUSKALTZAINDIAREN BATZORDEEN ORGANIGRAMAN: 1983

Akademiak eratu zuen laugarren batzordea izan zen, Hiztegigintza, Dialektologia eta Gramatika batzordeen ondotik. Onomastika batzordearen lan esparruak bi arlo nagusi ditu: antroponimia (pertsona izenak eta deiturak) eta toponimia. Oso esparru zabala da, kontuan izanik arlo nagusi horien azpi sailkapenak: toponimia nagusia, txikia, kale izenak..., edota bertze atal osagarriak, hala nola, hagionimia, exonimia, oikonimia...

Hona hemen atalez atal, eta laburbilduz, Batzordeak 25 urte hauetan (1983-2008) egindako lan garrantzitsuenak:

a) Ponte izenak

Lehen aipatutako 1972, 1977 eta 1983ko izendegietan izenen zerrendak soilik eman ziren. 2001ekoan, ordea, izen bakoitzaren azalpena egin da, euskaraz eta gaztelaniaz.

b) Deiturak

1998an, Espainiako Justizia Ministerioarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Kontseilaritzarekin batera argitaratu zuen *Euskal deituren izendegia*. Hamar mila deituratik goiti biltzen ditu. Espainiako Erregistro Zibiletan euskal deituren idazkera egokitzeko erabiltzen den dokumentu ofiziala da.

c) Hagionimia: «Santutegiko izen oikoenak» (66. araua), «San, santu, done eta besteren erabilera» (125. araua), «Aita Santuen izenak» (129. araua).

d) Toponimia

Euskaltzaindia da legez onartutako erakunde aholkulari ofiziala:

– Euskal Autonomia Erkidegoan 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arautzezkoaren eraginez.

– Nafarroako Foru Komunitatean 18/1986 Foru legea, Euskarari buruzkoaren eraginez.

Toponimia nagusia

Argitaratutako lanak:

1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* kaleratu zuen, batik bat, Espainian demokrazia aroa estreinatu berriaren ondorioz, Hegoaldean udal izenak ofizial egiteko sortu zen aukerari erantzun ahal izateko.

Orduz geroztik, Onomastika batzordeak etengabe segitu du atal hau ikertzen eta lan hauek argitaratu ditu:

– 1986an, Eusko Jaurlaritzarekin batera, *Euskal Autonomia Erkidegoko herrien izendegia*. Argitalpen honetan udal bakoitzaren barruan biztanle entitate izaera duten auzo ofizialen izenak ere bildu ziren.

– 1990ean, Nafarroako Gobernuarekin batera, *Nafarroako Herri Izendegia*. Lan hau erabili zuen Gobernuak euskal izen ofizialak finkatzeko («Eremu Euskaldun»ekoak eta «Eremu Misto»ko zenbait izen).

– 2001ean, 1986an egindakoa osatuz, *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak* liburua. Argitalpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen Federazioaren (EUDEL) eskutik egin zen.

Euskal Herriko udal izendegiaren arau izaera

Euskaltzaindiak 1998an udal izenei arau izaera ematea erabaki zuen. 2008an amaitu den lan hori hurrenkera honetan egin da:

– Iparraldeko probintziak: Zuberoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea.
– Euskal Autonomia Erkidegoa: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba.
– Nafarroako Foru Komunitatea.

Udal izen horiek argitalpen batean plazaratzeko prestatze lanak egiten ari da Onomastika batzordea. Urrats berri bat emateko asmoa ere badauka, hots, kontzeju eta auzo izenak gehituz, Euskal Herriko biztanle entitate guztien izendegi osoa prestatu eta argitaratzea.

e) Arau izaera duten Onomastika batzordearen lanak

Onomastika batzordeak proposatuta, Euskaltzaindiak honako arau hauek onartu ditu:

1. Euskal Herriko udal izenak:
   92. 99. Zuberoa
   108. Lapurdi
   122. 128. 133. Nafarroa Beherea
   140. Gipuzkoa
   145. Bizkaia
   150. Araba
   155. Nafarroa
2. Exonimoak:
   36. Frantziako errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak
   38. Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak

51. Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak
52. Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)
59. Ibaiak
60. Aintzirak
70. Mundu zabaleko uharte nagusiak
142. Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak
149. Euskal Herri inguruko exonimoak
151. Espainia-Frantzietako eskualdeen izenak
154. Europako eskualde historiko-politiko nagusiak
156. Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema

3. Izen historikoak:

76. Latin eta greziar izen klasikoak
82. Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak
129. Aita Santuen izenak

4. Hagionimoak:

66. Santutegiko izen ohikoenak
125. San, santu, done, eta besteen erabilera

5. Bertzelakoak:

57. Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak
139. *Euskal Herria* izena
141. Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoak
143. *–erri(a)* osagaia gaurko toponimian

Toponimia txikia

Esparru honetan ere Akademiak lan franko eta maila desberdinetakoa egiten du. Onomastika batzordearen xede nagusia orientazio akademikoa ematea da, eskaintza hauen bitartez batik bat:

– Irizpide zerbitzua: Batzordeak toponimo txikiak idazteko irizpideak finkatu zituen. Lehenengo testua P. Salaberri eta M. Gorrotxategi batzordekideek egin eta batzordeak onartu zuen. Geroago, batzordea testu hura osatzen joan da, zenbait zuzenketa eta gehiketa eginez, hain zuzen, ikerketa berrien ondorioz sortzen diren egoera berriei erantzun egokia eman nahian.
– Aholkularitza zerbitzua: Herri erakundeei (udalei, diputazioei, gobernuei) bereziki.
– Laguntza praktikoa: Herri erakundeetan (udaletan, diputazioetan, gobernuetan) toponimia txikiaren lana egiten ari direnei, lan metodologia egokia, izenen bilketarako fitxa informatikoa, izenak arautzeko irizpideak, etab.
– Ikastaro edota jardunaldien antolaketa.

Lankidetza horretan egin diren lan garrantzitsuenak:

– 1990-94: **Nafarroako toponimia txikia**. Lana Gobernuak egin zuen eta Akademiak metodologia finkatzeko aholkuak eta izenak arautzeko irizpideak finkatu eta emateaz gain, arautze lanean parte zuzena izan zuen. *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra* bilduman argitaratu zuen Gobernuak lan hori 59 liburukitan, 1:10.000 eskalako mapak barne.

– 2001-2007: **Euskal Autonomia Erkidegoko toponimia txikia**. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren enkarguz, Deustuko unibertsitateko Deiker institutuak lehendik egindako lana berrikusi eta amaitu berri du 1:5.000 mapetako toponimiaren bilketa eta arautze lana. Euskaltzaindiak finkatutako irizpideak aplikatu dira eta Onomastika batzordeko ordezkari batek parte hartu du arautze lana gainbegiratzen.

– 2003az geroztik: **Iparraldeko toponimia**. IGN-k eta Euskaltzaindiak egindako hitzarmenaren ondorioa da. Helburua 1:25.000 eskalako toponimia arautzea izan da. Lana amaitzear dago.

– 1996az geroztik: **Gasteiz udalerriko toponimia historikoa.** Gasteizko udalak Euskaltzaindiarekin egindako berariazko hitzarmenaren ondorioz, xedea hiriburuko eta bere inguruko 64 herrixkatako toponimia biltzea da. Laster argitaratuko dira bi lehenbiziko aleak.

Bertze zenbait argitalpen

– *Onomasticon Vasconiae* bilduma.

Onomastika batzordearen bilduma da. 1986. urtetik hona 25 liburuki argitaratu ditu. Gehienak toponimia lanak dira, herrietakoak batzuk, esparru zabalagoa hartzen dutenak bertze batzuk, bai eta jardunaldietako aktak, etab.

– Herrietako ikerketak.

Gorago erran bezala, Akademiak herrietako toponimia ikertzeko laguntza ematen die udalei. Ikertu aurretik helburuak, epeak, baliabideak, etab. jartzen laguntzen die eta, proiektu bakoitzean zuzendari bat izendatzen du eta toponimoak biltzeko euskarri informatikoa ematen die. Lanen amaieran, izenak arautzeaz gain, udalei emaitzak gizarteratzeko aholkularitza ere ematen zaie. Horren guztiaren lekuko dira kaleratu diren herrietako toponimia liburuak, mapak, eta bertzelako argitalpenak, CDak, DVDak, etab. Lan horietako gehienetan, Euskaltzaindiak aipatutako parte-hartzea izan du. Bertze batzuetan Akademiari azken gainbegiratze lana soilik eskatu zaio.

1. Argitara emandako lanak:

   – *Onomasticon Vasconiae* (*OV*) bilduman: Pasaia (*OV* 8), Andoain (*OV* 10), Eibar (*OV* 13), Arrasate (*OV* 15), Urretxu-Zumarraga (*OV*

18), Eibar-Elgeta (*OV* 21), Ermua Eitzaga (*OV* 22), Hondarribia (*OV* 23), Zaldibar (*OV* 24), Antzuola (*OV* 25).

– Aparteko bildumetan: Barakaldo, Basauri, Bermeo, Etxebarri, Getxo, Oiartzun, Tolosa, Zumaia.

– Mapak soilik: Arrieta, Azpeitia, Balmaseda, Erandio, Galdakao, Igorre, Irun, Laudio, Oñati, Otxandio, Turtzioz, Urdaibai, Urduña, Zeberio, Zizurkil.

2. Amaituak, baina oraingoz argitaratu gabeak: Aiara, Bakio, Burgu, Donemiliaga, Leioa, Urduña.

3. Abian daudenak: Ajangiz, Azkoitia, Berriz, Durango, Gernika, Gautegiz-Arteaga, Gorliz, Ibarrangelu, Ordizia, Sopela, Zaratamo, Zestoa, Zornotza.

Badira, azkenik, aparte egin diren zenbait lan. Horien artean Labayru Institutuak bere kasa eginak dituen Elorrio eta Lezama herrietakoak eta egun egiten ari den Mungiakoa.

– Toponimiari buruzko tesiak.

Aipatzekoa da azken urte hauetan zenbait doktore tesi egin direla, Iparraldean bat eta Hegoaldean (Nafarroan) hiru. Horietako bi Euskaltzaindiaren bildumetan argitaratu dira.

f) Kale izendegiak

Udal askok eskatzen diote Akademiari kale izendegiak aztertzeko eta zuzentzeko laguntza. Batzordeak aspaldian finkatu zituen irizpide batzuk eta jadanik Hegoaldeko lau hiriburu nagusietakoak, hots, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko kale izendegiak aztertu eta finkatu dira. Horietaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako bertze udal askotakoak ere bai. Etengabe iristen ari zaizkio batzordeari eskari berriak.

Jardunaldi eta ikastaroak. Bost jardunaldi antolatu ditu batzordeak: Gasteiz (1986), Urduña (1987), Lizarra (1990), Reno, (Nevada, EEBB, 1992) eta Biarritz (1994). Horietaz gain, ikertzaileak eta toponimian interesatuak trebatzeko zenbait ikastaro, hala nola: Etxarri Aranatz (1999), Bilbo (2008) eta Durango (2008).

Onomastika zerbitzua

Akademiara heltzen diren kontsulta eta eskariak bideratu eta kudeatzeko Euskaltzaindiak 2004an *Onomastika zerbitzua* sortu zuen. Arduraduna Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria da. Kontsulta horiek gero eta ugariagoak dira eta, jatorriaren arabera, hiru atal hauetan sailkatzen ahal dira:

1. Erakundeak: gobernu, aldundi, udal, EUDEL, epaitegi, erregistro zibil, EiTB, RENFE, FEVE, Euskotren, mendi federazioa...
2. Partikularrak: pertsonak nahiz enpresak.
3. Web orria eta posta elektronikoa.

ECO egitasmoa

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa 2005ean jarri zen abian. Proiektu honen helburua onomastika guztia: toponimoak, antroponimoak, deiturak, exonimoak... datu-base bakar batean biltzea da.

Datu-base hori oso baliagarritzat jotzen da Akademiak egiten dituen lan eta ikerketarako. Jadanik 116.000 fitxa inguru osatu dira (101.816 toponimo, 1.453 exonimo, 3.141 ponte izen, 9.480 deitura). Horietan 568.124 erregistro idatziak –dokumentalak, linguistikoak, historikoak, kartografikoak...–, eta 97.445 ahozkoak biltzen dira. Toponimiari dagokionez, asmoa da Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko toponimia guztia biltzea, txosten honen «Toponimia txikia» atalean aipatzen diren lan orokorretatik hasita.

Proiektu honetarako sortutako fitxa da, hain zuzen, «Toponimia txikiaren» atalean aipatzen diren «Herrietako ikerketak» egiten dituztenei eskaintzen zaiena.

Egitasmo hau Onomastika batzordearen menpe dago. Batzordeak onartzen ditu urte bakoitzeko lanen edukiak eta kronograma. Proiektuaren eragile eta arduradun teknikoa Patxi Galé batzordekidea da eta zuzendaria batzordeburua.

Exonomastika batzordea

Onomastika batzordearen azpibatzorde gisa funtzionatu du zenbait urtez, baina 2007az geroztik berariazko batzorde bihurtu da Akademiaren organigraman eta zenbait arau prestatu ditu.

5. ONOMASTIKAREN NORMALIZAZIOA ETA EUSKARAREN KALITATE ETA DUINTASUN KONTUA

Euskaltzaindiak Onomastika alorrean egiten dituen lanak ezagutzera ematen ditu. Arau izaera duten erabaki guztiak argitaratzen dira eta Onomastika batzordearen gainerako lanak: ponte izenak, deiturak, toponimoak, kale izendegiak eta abar ere ezagutzera ematen dira; batzuetan argitalpenen bidez, bertzeetan kontsulta egin duen bakoitzari erantzuna emanez, dagokion gomendioa edota irizpenaren bidez. Hala ere, kasu frankotan nonahi ikusten ahal den bezala, onartu, arautu eta ofizial bihurtu diren izenak ez datoz bat zenbait izenda-

pen, erregistro, dokumentu, argitalpen eta xafla ofizialetan idatziak ikusten direnekin, ez eta zenbait hedabidetan ageri direnekin ere. Norberak jakinen du ezjakintasuna, utzikeria edo bertako kulturari zaion errespetu falta dagoen jokabide horren azpian, baina kontua da praktika hori bertako hizkuntzarekiko estimazio eta errespetu eskasaren adierazgarri dela. Adibideetan gehiegi ez luzatzearren, batzuk bederen aipatuko ditugu errandakoaren frogagarri:

a) Ponte izenak

Hagitz arrunta da Euskal Herriko erregistro edo dokumentu ofizialetan honako hauen moduko akatsak ikustea:

– ***Garazi***-ren ordez *Garasi, Garaxi, Garatzi*
– ***Itziar***-en ordez *Itciar, Itxiar, Iciar, Iziar, Ytziar*
– ***Usoa*** edo ***Uxue***-ren ordez *Usua, Usue, Uxoa, Uxua*
– ***Ibai***-ren ordez *Hibai, Ibay* [12]

b) Deiturak

Arrazoi historikoengatik euskal ponte izenak jartzeko oztopoak izan badira ere, gure deiturez ezin dugu gauza bera erran. Euskaldunon deitura gehienak euskaldunak dira; baina, euskara Administrazioan hizkuntza ofiziala izan ez denez gero, dokumentu ofizialetan erdal grafian idatziak jaso ditugu gure deiturak mendez mende. Bertzeak bertze:

– ***Aldekogarai*** > *Aldecogaray*
– ***Berakoetxe*** > *Veracoeche*
– ***Kortaberria*** > *Cortaverria*
– ***Oianluze*** > *Oyanluce*
– ***Otxandategi*** > *Ochandategui*

Eta, zer erranik ez, urrutiagoko eskribauek idatzi dituztenean. Adierazgarriak dira, erraterako, Jose Garmendiak «Euskaldun abizenak Sevilla'n eta Cadiz'en» izenburupeko lanean[13] ematen dituen desitxuraketa adibideak:

– ***Amezqueta*** > *De la Mesqueta*
– ***Arribillaga*** > *Rebillaga*
– ***Elorrio*** > *Del Orrio*
– ***Echenique*** > *Cenique*
– ***Legorreta*** > *De la Gorreta*
– ***Jaunsaras*** > *Jaunzaraz*

Zorionez, berandu izan bada ere, gauzak aldatzeko bidea ireki zaigu. Hego Euskal Herrian bederen, indarrean jarritako lege bati esker, nahi duen

[12] Iturria: Nafarroako errolda. 1978tik aitzina jaiotakoen izenak. Nafarroako Gobernuko Estatistika Zerbitzua.
[13] *Euskera* XXVI, 245-278.

guztiak bere deiturak euskal grafiara ofizialki alda ditzake[14], lehenago zeuden oztopoak gaindituta. Erran beharrik ez dago, lege honek deiturak normalizatzeko duen garrantziaz jabetuko bagina, epe laburrean euskal gizartearen deituren egoera erabat aldatuko genukeela gure hizkuntzaren mesederako.

c) Toponimoak

Alor honetan emandako pausoak garrantzitsuak izan dira eta, gainera, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere izen ofizialak legeztatuak daude. Baina sinestezina badirudi ere, kasu frankotan aginduak ez dira betetzen. Oraindik gehiago, aginduak bete eta betearazi behar dituztenak, zenbait agintari eta funtzionario alegia, dira xafla eder eta berrietan izenak oker jartzen dituztenak.

Erraten ari garenaren lekuko dira, bertzeak bertze:

Aspaldixko jarri eta zuzendu gabe dauden batzuk:

– *Arraitzko bentak* ***Arraizko bentak-***en ordez, *Erasun* ***Eratsun***-en ordez, orain dela hogei bat urte gaizki jarri eta oraindik bere horretan segitzen dutenak.
– *Olagüe* ***Olague***-ren ordez.
– *Bidasoa* izena ***Baztan*** ibaiari, non eta *Baztantzubi* izena duen zubiaren gainean hain zuzen.
– *Juansenea etxea*, izen desitxuratua eta euskal tradizioa erabat hausten duena, sobera duen *etxea* hitzarekin ***Joanesenea***-ren ordez.
– *Las Barrietas* ***Olabarrieta***-ren ordez.
– *Legazpia* ***Legazpi***-ren ordez.
– *Oceka* ***Ozeka***-ren ordez.
– *Luxaondo* ***Luiaondo***-ren ordez.

Jarri berri diren bertze batzuk:

– *Zamarce* ***Zamartze***-ren ordez.
– *Leurza* ***Leurtza***-ren ordez.
– *Bértiz* ***Bertiz***-en ordez.
– *Jauregia* / ***Jaureguia***. Azken hau erdal hitza izanen balitz bezala?
– *Yauri* / ***Jauregi***. Lehenengoa euskal izena eta bigarrena gaztelaniazkoa balira bezala?

d) Kale izenak

Zenbait herritan, kaleetako xafletan irakur daitezke, bertzeak bertze, honako izen hauek:

– *Nagusi kalea* ***Kale Nagusia***-ren ordez

[14] 40/1999 legea, azaroaren 15ekoa, «Sobre nombres y apellidos y orden de los mismos» delakoa.

– *Elgoyen kalea* ***Elgoien kalea***-ren ordez
– *Lehendakari Aguirre* ***Agirre Lehendakaria***-ren ordez

e) Euskal oikonimia

Ezaguna da euskal gizartean etxeak (izan) duen nortasuna, Erdi Arotik hasita agirietan eta modu ofizialean erregistratuak ageri baitzaizkigu etxe izenak. Euskal Herriko eremurik handienean etxeek beren izena dute eta izen horien erreferentziak era askotakoak eta aberatsak dira: ponte izenak, izengoitiak, deiturak, lanbideak, toponimoak, etxeen ezaugarriak, etab.[15]. Bertzalde, gure legeetan etxearen garrantziarekin batera bere izenari eutsi beharra ere azpimarratzen da, Nafarroako Foruak dioenaren arabera behintzat[16].

Izen horiek errespetatu eta berreskuratzeko kontzientzia aspaldikoa da Euskal Herrian. Orain dela 90 urte inguru abian jarri zen izenak agerian paratzearen aldeko proiektu bat, eta herri batzuetan gauzatu zen dirudienez[17]. Gaur egun ere badago kontzientzia hori, herri frankotan ikusten ahal den bexalaxe. Baina kontua da frankotan jendeak erran bezalatsu idazten direla oikonimoak, jatorrizko izena ilunpean utziz eta, anitzetan gainera, erdal grafian idatziz. Onomastikaren gainerako alor guztietan bezala beharrezkoa da etxeen kasuan ere izenak arautuak ematea. Bi dira gainditu beharreko oztopoak:

1. Aldaera laburtu eta desitxuratuen ordez jatorrizko izenak ematea, behar bezala eta euskal grafian egokituak. Egia da lan txalogarria egin dutela zenbait herritan etxe izenak berreskuratzeko, baina ez hain txalogarria, eta penagarria anitzetan, izen horiek idatziak ematerakoan forma arautua kontuan ez hartzea, edo hartu nahi ez izatea.

Batzuetan ahoskatu bezala idatziak agertzen dira:

– *Ademenea* ***Adamenea***-ren ordez
– *Aliñea* ***Allinea***-ren ordez
– *Artxea* ***Arretxea***-ren ordez
– *Arzua* ***Arzubiaga***-ren ordez
– *Dolagaraia* ***Dolaregaraia***-ren ordez

Bertzeetan erabat desitxuratuak:

– *Bisku* ***Beaskoa***-ren ordez
– *Izal* ***Irazabal***-en ordez

[15] Iñigo, A. (2000: 140).

[16] «Ley 1/1973, de 1 de marzo, por la que se aprueba la compilación del derecho civil foral de Navarra. Título II, Ley 38» delakoak honela dio: «la casa, sin constituir persona jurídica tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificación y deslinde de fincas y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales. Corresponde a los amos el gobierno de la casa, el mantenimiento de su unidad y la conservación y defensa de su patrimonio y nombre».

[17] Mugika, G. (1915: 323-327).

– *Sutxus* ***Zuhatzu***-ren ordez
– *Uxar* ***Urizar***-en ordez

Eta azkenik, badira franko jatorrizko izen gardenean emanak, baina erdal grafian idatziak:

– *Arocenea* ***Arotzenea***-ren ordez
– *Juancorena* ***Joankorena***-ren ordez
– *Marticena* ***Martitzena***-ren ordez

2. Euskal Herriko hainbat mendetako ohitura eta tradizioa alde batera utziz, azkeneko urte hauetan, modan jarri ondoren, zabaltzen ari den joera da *Biyak-bat, Zuk eta Nik, Gu biena, Gure ametsa, Gure kaiola, Gure txokoa, Gure nahia, Gure bakea, Goxo-goxua* eta antzeko izen artifizial antxak jartzea, jadanik nonahi ikusten direnak. Joera hau geldiarazi eta, ahal delarik, herriak izan duen ohiturari segitzea izanen litzateke zentzuzkoena[18].

6. ONOMASTIKA EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN: AKADEMIAREN ETA ADMINISTRAZIOEN EGINBEHARRA

Hasieran erran bezala, Euskararen Akademiari dagokio hizkuntza arautzea, gizartearen harreman guztietarako hizkuntza egokitzearen ardura eta agintaritza[19]. Toponimiari dagokionez, K. Mitxelenak lehendabiziko *Euskal Herriko Udalen Izendegi*-aren aurkezpenean, 1979an, argi adierazi zuen onomastika kontuetan ezin zela nor bere kabuz ibili eta Euskaltzaindiari zegokiola gidaritza[20].

Onomastika gaietan ordea, bertzeetan ez bezala, ematen du euskaltzale bakoitza –eta, anitzetan, euskaltzale izatera iristen ez dena ez ezik, hizkuntza bera ezagutzen ez duena ere– hizkuntzalaria dela eta, batez ere, etimologia kontuetan aditua.

Normatibizatze edo arautze kontua ez da gai erraza, ongi baitakigu, denboraren poderio eta bertze hainbat eraginengatik, gureganaino iritsi diren idatzizko aldaerak edo gaur egun herriaren ahotan erabiltzen diren aldaera laburtu eta desitxuratuak eta jatorrizko formak konparatzen baditugu, bien arteko aldea aski nabaria dela. Badakigu berme zientifikoa lortzea ez dela kontu erraza, eta horregatik badagoela *arkaismo*-an edo *populismo*-an erortzeko arriskua. Hori guztia dela eta, gramatika eta hiztegi gaietan bezalaxe, onomas-

[18] Joan Anton Rabella-k antzeko arazoa azpimarrazten du Kataluniako kostaldean eraiki diren auzune turistikoetan. Kasu anitzetan lekuarekin eta tradizioarekin zerikusirik ez duten izenak jarri dizkiete.

[19] 573/1976, otsailaren 25eko Erret Dekretua.

[20] Mitxelena, K. (1978: 313).

tika arautzeko eman behar den lehendabiziko eta ezinbertzeko urratsa, K. Mitxelenak 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-ren sarreran proposatzen zuenaren arabera, aldez aurretik irizpideak finkatzea da eta, ondotik, izen bakoitzaren idatzizko eta ahozko lekukotasunak biltzea, ikertzea, hautatze lanak egitea eta, azkenean, irizpide horien arabera izen bakoitzaren aldaera arautua ematea. Hori da Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari egitea egokitzen zaion lana.

Baina Onomastika batzordearen eta Euskaltzaindia beraren eskutik kanpo gelditzen den zerbait gehiago gauzatu behar izaten da lan horrek gizartean eragina izan dezan. Mitxelenak Bergarako Biltzarrean aski argi adierazi zuen honako hitz hauetan: «ez dezagun ahantz gauza bat dela proposatzea, bestea proposamena hedatzea eta bestea, berriz eta azkenik, ofizialtasuna, legeztapenen bitartez lortzen dena»[21].

Legeak egitea ez dagokio Euskaltzaindiari, Legebiltzarrei baizik, eta Gobernu, Diputazio eta Udalei (Administrazioari, eta beronen funtzionarioei azken batean) lege horiek garatzea, betetzea eta betearaztea.

Hego Euskal Herriko Legebiltzarretan araututako legeen arabera, Euskaltzaindia da euskara gaietan proposamenak egiteko erakunde ofiziala[22]. Akademiari dagokio, bada, gomendioak, irizpenak edota arauak ematea eta hor amaitzen da bere lana. Hortik aurrekoa herri aginteen kontua da. Azken hauen eginbeharra da izen ofizialak legeztatzea, legeak betetzea eta betearaztea[23].

Baldintza horiek guztiak betetzen direnean, hots, gure *izanaren izenak* behar bezala agertzen direnean, gure herriaren nortasunaren alderdi garrantzitsu bat berreskuratuko dugu eta agerian paratzea lortzen badugu, euskararen duintasuna eta itzala, onomastikaren kasuan, behintzat, bere lekuan jartzea erdietsiko dugu eta, azken batean, onomastikak duen balio sinboliko eta hedadurarengatik, euskararen estetikak, duintasunak eta prestigioak bere lekua hartuko du.

BIBLIOGRAFIA

ARANA, S. (1897b), *Egutegi bizkaitarra*, Bilbo.

—— (1897), *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos,* Bilbo.

ARANA, S. & ELEIZALDE, L. (1910), *Deun-ixendegi euzkotarra / Santoral vasco*, Bilbo.

[21] Mitxelena, K. (1978b: 470).

[22] 10/1982 Euskara arautzeko oinarrizko legearen 10. 1. artikulua, eta 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legearen 8. artikulua.

[23] J. L. Lizundiak XX. ICOS Biltzarrean garatu zuen kontu hau guztia «Desarrollo normativo en materia de onomástica» txostenean.

CARO BAROJA, J. (1990) [1945], *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina,* Salamancako Unibertsitatea, Txertoa, Donostia.

EUDEL & EUSKALTZAINDIA (2001) *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle--Entitateak*. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA (1979), *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.

EUSKALTZAINDIA & EUSKO JAURLARITZA (1986), *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak*, Gasteiz.

EUSKALTZAINDIA & NAFARROAKO GOBERNUA (1990), *Nafarroako Herri Izendegia /Nomenclátor Euskérico de Navarra*, Iruñea.

EUSKALTZAINDIA, (1998), *Euskal Deituren Izendegia*, Justizia Ministerioa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila, Euskaltzaindia, Madril.

—— (2001), *Euskal Izendegia. Ponte Izendegia*, Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

GALÉ, P. (2007), «Toponimia ikerketak», *Fontes Linguae Vasconum* 104, 161--172.

GALÉ, P. & IÑIGO, A. (2005) «Euskal Corpus Onomastikoa», Euskaltzaindiaren XIV. Barne Jardunaldiak», *Euskera* 50, 49-105.

—— (2007), «Euskal Corpus Onomastikoa», Euskaltzaindiaren XV. Barne Jardunaldiak, *Euskera* 52, 197-222.

GARCÍA GALLARÍN, C. (1998), *Los Nombres de Pila Españoles*, Madrid.

GORROCHATEGUI CHURRUCA, J. (1984), *Onomástica indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua-Salamancako Unibertsitatea, Bilbo.

GORROTXATEGI NIETO, M. (2000), «Evolución del nombre de pila en el País Vasco peninsular», *Fontes Linguae Vasconum* 32, 151-168.

—— (2003), «Normativización, oficialización y normalización de la toponimia en Euskal Herria», *Euskera* 48, 627- 631.

GORROTXATEGI NIETO, M. & SALABERRI ZARATIEGI, P. (1999), «Hiri izendegia, Irizpideak eta erabiltzeko arauak (I). Donostia/San Sebastián», *Euskera* 44, 583-588.

—— (2000), «Toponimia txikia normalizatzeko irizpideak», *Euskera* 45, 273-324.

IÑIGO, A. (1996), *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

——— (2000), «Nombres de Oficios en la oiconimia navarra» *Fontes Linguae Vasconum* 32, 135-145.

——— (2000b), «Onomastika euskararen normalizazioan», *Euskera* 45, 775--817.

——— (2008), «Izengoitiak Nafarroako oikonimia historikoan», *Jean Haritschelhar-i omenaldia,* Iker-21, 281-307. Euskaltzaindia.

IRIGOIEN, A. (1994), *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

JIMENO JURÍO, J.M. (1991), «Recogida de toponimia. Ámbito, fuentes, metodología. La experiencia navarra. *Onomasticon Vasconiae* 4, 99-110. Euskaltzaindia.

NAFARROAKO GOBERNUA, (1991-1999), *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra*. I-LIX, Jimeno Jurío, J.M. (zuz.), Iruñea.

KNÖRR, H. (1999), «Nombres de persona en el País Vasco, cuestiones históricas y de normalización», *Fontes Linguae Vasconum* 31, 135-154.

KNÖRR, H. & LIZUNDIA, J. L. (1976), «Herri eta herritarren izendegia», *Euskera* XXI, 287-315.

MITXELENA, K. (1973) [1953], *Apellidos vascos,* 3. argital., Txertoa, Donostia.

——— (1964): *Textos arcaicos vascos*, Madril.

——— (1978), «Udal Izendegia. Hitzaurrea», *Euskera* XXIII, 313-316.

——— (1978b), «Arantzazutik Bergarara», *Euskera* XXIV, 467-477.

MORAN I OCERINJAUREGUI, J. (1996), *Consideracions sobre l'onomàstica*, Institut d'Estudis Catalans.

MUGICA, G. (1915), «En torno a la toponimia. Complemento necesario», *Euskalerriaren alde* aldizkaria, V. urtea, 107, 323-327.

SALABERRI ZARATIEGI, P. (1997), «Nafarroako Toponimia Nagusiaren Normalizaziorako irizpideak», *Euskera* 42, 653-666.

——— (1998), «Criterios para la normalización de la Toponimia Mayor de Navarra», *Fontes Linguae Vasconum* 79, 363-376.

——— (2005), «Origen y significado de la toponimia de Navarra», *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.

——— (2005b): «Los trabajos de onomástica en *Fontes Linguae Vasconum*», *FLV* 100, 607-632.

——— (2006): «Nafarroako euskal oikonimiaz», *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask / R. L. Trasken Oroitzapenetan. Ikerketak Euskalaritzaz eta Hizkuntzalaritza Historikoaz*, (J. A. Lakarra y J. I. Hualde, editores), *ASJU* XL: 1-2, 871-893.

SATRUSTEGI, J. M. (1999), «Euskal izendegiak», *Euskera* 44, 591-598.

VILLASANTE, L. (1972), «Euskaltzaindiaren agiriak -Aramaioko hitzaldiak-», *Euskera* XVII, 154-177.

——— (1978), «Euskaltzaindia eta euskararen batasuna» *Euskera* XXIV, 443--444.

TOPONIMIA GIZARTERATZEKO BIDEAK. ERABILERA ADMINISTRAZIOETAN

Felix Mugurutza Montalban

Adituen esanetan, gizakia da izaki guztien artetik, abstrakziorako ahalmena duen bakarra. Hau da, objektu edo gertakizun batez egon daitekeela pentsatzen, horren estimulu zuzenik izan gabe edo, areago oraindik, inoiz bizi izan barik.

Beste modu batez esanda eta gurera ekarria, gizakia ez dagoen toki batean pentsatzen egon daitekeela, toki horretan egon gabe.

Ahalmen horren ondorioz, munduko edo espazioko edozein tokiri egin diezaioke erreferentzia, nahi duen tokira eraman ditzake bere gogoetak, edo bidaia baten ostean hantxe ikusitakoaren deskripzio zehatza eman diezaieke entzule sufrituei.

Hain tresna baliotsua eskura izanda, berehala jakin izan zuen gizakiak bere inguruko eta urrutiagoko espazio fisikoa antolatzen. Eta horrela sortu zen toponimia. Behar-beharrezkoa zitzaiolako. Izan ere, ezagutzen ditugun iturri dokumental zaharrenetan ere, nabaria da toponimiaren presentzia, hots, garai, herrialde eta zibilizazio guztietan. Badirudi, leku-izenen erabilera lengoaiaren sorrerarekin batera, edo ia batera, datorrela. Gizakiaren espazioan eta denboran, beraz, ezinbestez kontuan hartzekoa.

Toponimoak dira gure zibilizazioen sorrera historikotik eta egun bitartean, gehien erabili izan den espazioa antolatzeko «koordenada» sistema, mapetako latitude eta longitudeak baino askoz lehenago edota zer esanik ez GPSetako UTM koadrikula sistema eta datum-en aurrekoak, leku-izenak baitira, benetan GPS (*Global Position System*) «edonon kokatzeko sistema» izendapena merezi izan duena. Ume bati *Paristik datorren artista bat naiz ni* abesten diogunean, guztiok dakigu –gutxi gorabehera bada ere– non den Paris eta Frantzia lurralde zabalago baten kokagune nagusiena dela. Nahikoa da izena jakitea galdetuz eta galdetuz haraino iritsi ahal izateko. Ez al gintuzten bide guztiek Erromara hurbiltzen, ala?

Berdinak al dira toponimo guztiak? Esan bezala, Parisera, Donostia edo Irunera iritsiko ginateke euren izenez galdetuz gero. Baina emaitza bera izango genuke Nafarroako Aezkoa ibarreko Hiriberri herriko Buztinzuri lekua-

ri buruz galdetuko bagenu? Seguruenik, gutako inork ez luke jakingo non den eta hara iristeko Buztinzuri hori aipatu baino lehenagoko Nafarroa > Aezkoa > Hiriberri, hurrenez hurren, izenak eta euren «kokapena» baliatu beharko genituzke haraino iristeko. Bistan denez, toponimo guztiek ez dute kokapenerako balio-mailaketa bera.

Larria da esatea baina Buztinzuri izena bat-batean galduko balitz ez zuen inolako ondoriorik izango; bai ordea, Paris bezalako bat, nahiz eta biak direna besterik ez izan: leku-izenak.

Zer esan nahi da honekin? Toponimo baten berezko balioa, erreferentziala, areagotzen dela izen hori ezagutzen eta konpartitzen duen hiztun kopuruaren arabera. Honezkero, definituak ditugu dagoeneko gure zereginak: izenak betiko desagerpen arriskutik urrundu eta toponimoak ezagutarazi eta erabilaraztea.

Galtzearen aurkako txertoa. Gure gizartearen produkzio sistemak aldatu direnetik, behinola baso, mendi eta lur zabalekin genuen harremana eraldatu edo, hobeki eta orokortuz esanda, galdu egin da. Hortaz, izen askok eta askok zuten balio erreferentziala baliogabetu egin da eta ez du inork haien beharrik. Eta horiexek dira hilaurreko sintomak.

Honelakoetan, gure ardura zuzena da haien bilketa eta kokapenak egitea, erizain lana egitea, etengabeko izen galtze hori eteteko. Eta sendagaia ematean so egin formulako osagaiei: kontuan izan behar da toponimo baten erabilera eta galtzeko arriskua alderantzizko proportzioan daudela, hots, bata igotzen denean bestea jaitsi egiten da. Ez ahaztu.

Ondarea. Toponimia hain baliabide unibertsala eta garai guztietakoa izanda, historiaren gorabehera guztiak bereganatu ditu bere ibilbideetan zehar.

Ikuspuntu horretatik esan dezakegu leku-izen bakoitzak historia bat duela bere baitan eta konkretuak izan direla leku bat identifikatzeko izen bat bai eta ez beste bat aukeratzeko arrazoiak. Egun plano berean aztertzen ditugun izenak, gainera, une oso ezberdinetan sortu izan dira. Esan dezakegu, beraz, edozein herritako altxor toponimikoa herri horren historiaren liburu bakarra eta errepikaezina dela.

Nahikoa da *irun* edo *ilun* hitza aurkitzea susmatzeko bertan Burdin Aroko herri harresitu bat egon dela. Edo pertsona edo santu izen bat, atzean *-aga* osagaiarekin Erdi Aroko sorrerako toponimo baten aurrean gaudela jakiteko. Ez aipatzearren pertsona eta lanbideen izenak, edo ohiko mintegi, teileri, olak, errotak eta gainerakoak. Edo aspaldiko baseliza desagertuak, eta eurekin baterako herrixka galduak. Nola jakingo genuke kokatzen euren toponimoak galdurik baleude.

Beldur gabe esan daiteke toponimoek material arkeologikoen balio bera dutela, beste garai batzuetako argibidea dakarkigutelako. Baina arazo bi ditu toponimiak elementu arkeologikoen aurrean: a) toponimoen sorrera jakiteko modurik ez dagoela C14 bezalako datazio sistemarik ez delako asmatu eta b) elementu ez-materialak izanik, erraz desager daitezkeela inolako arrastorik utzi gabe. Arrazoi handiagoa beraz, toponimoen altxorrean lan egiteko.

Ondare kulturala izanik, nola edo hala Administrazioari dagokio elementu horien –gure kasuan «izenen»– iraunaraztea bermatzea.

Ondorengoetaratzea. Arestiko ondare-balioari berriz helduta, esan dezagun egun dakigunarekin informazio historiko handia erauzi dezakegula gure herrietako toponimoetatik baina, seguruenik, askoz handiagoa izango dela hemendik bostehun urtera egongo diren jakite-bideekin.

Beraz, ondarea izanagatik ondorengo belaunaldietara iragan behar diegu, altxor kultural gisa eta etorkizuneko ikertze lanetako material gisa.

BAINA... ZER BIDE DUGU GURE HERRIKO LEKU IZENAK KOKAPEN-BALIOA HAR DEZATEN, FINKATZEKO, ONDAREARI DAGOKION TRATAMENDUA EMATEKO ETA ONDORENGO BELAUNALDIETARA AHALIK ETA ERA EGOKIEN EMATEKO?

Alde batera utzita ofizialtasunaren aldetik tokiko administrazioek –udalek, administrazio-batzarrek– euren eta bertako kale-izenak arautzeko duten eskumena eta Eusko Jaurlaritzak edo Nafarroako Gobernuak bertako ibai, mendi eta toponimia txikiko beste hainbat elementu arautzeko dutena, oro har, esan daiteke gure herrietako leku izen gehienen baloratze, finkatze eta ezagutarazte lanak ez daudela inoren esku. Bestela esanda: gure esku, gu guztion esku daudela. Eta helburu horiek lortzeko ez dago formula magikorik aholku bi hauek baizik: a) maitasunez eta gustuz egitearena eta b) irudimena erabiltzearena. Horiek biak erabiliz gero, etekin onekoa izango da gure ahalegina.

Hala ere, formula magikorik ez, baina badira beste toki batzuetan erabili diren teknika on batzuk eta zure herrian ere abia ditzakezunak. Azter ditzagun:

MAPAK. Toponimia bilketako lan bat egin denean, izen horien iturri dokumentalak aztertu direnean eta, biak aintzat hartuaz, izen horiek finkatzeko egokitu direnean –normatibizazioa edo, entzunagoa, normalizazioa– mapa bat da izenak egonkortzeko dugun biderik onena.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan, urtero-urtero udalerrietako mapak eta hirietako kartografia argitaratzeko diru-laguntza deialdi bat kaleratzen du Eusko Jaurlaritzak, bere Lurralde Antolamendurako Sailaren bitartez. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetako udalek, partzuergoek, mankomunitateek eta udal-elkarteek eska dezakete.

Laguntza deialdia azaroan egin ohi da (iazkoa, 2007-11-30 eguneko EHAAn) eta haren emaitzak hilabete batzuk beranduago eman (iazko deialdiaren ebazpena, 2008-04-11 eguneko EHAAn).

Beraz, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako hiru horietako batean lan egiten baduzu, nahiko errazago izango duzu mapa bat argitaratzea. Diru aldetik bai, behintzat. Laburbilduz honako hau da laguntzaren nolakotasuna: mapa egitetik eratorritako BEZ udalaren kargu izango da eta, bestelako kostuaren, hau da, prezioaren zerga-oinarriaren %75 Jaurlaritzak ematen du. Baina ez edonolako kopurua, goreneko muga batzuk ezartzen dituelako[1]. Muga horiek, mapan islatuko den lurraldearen azaleraren araberakoa da. Horretarako hiru sail egiten du: erakunde eskatzailearen lur-azaleraren arabera:

– 30 km^2-koa edo txikiagoa denean: 10.000 €.
– 30 – 90 km^2 tartekoa bada: 9.000 € + azalera (km^2-tan) X 0,03, kopuru hau ere eurotan.
– 90 km^2 baino handiagoa denean, 12.000 €.

Kontuan izanda 2007ko kopuruak honakoak izango lirateke EAEko udaletan mapa bat egiteko kostuak. Udalek gehienez ordaindu beharko lukete «Gehieneko amaierako kostua» eta «Gehieneko diru-laguntza» zutabeen arteko ezberdintasuna[2].

Honakoak dira EAEko udalerri guztien –alfabetoaren arabera antolatuta– mapa bat egitean diru-laguntza eskuratzeko kondizioak:

[1] «Ordainduko den zenbatekoa ezingo da, inola ere, diruz lagundutako lanak egiteko ordainsariaren guztizko gordinaren (BEZ eta gainerako zergak kanpo) %75etik gorakoa izan» (2007ko deialdiko 9.4 atala; 2007-11-30ko EHAAn).

[2] Ikus daitekeenez, goreneko kopuru horiek gainditzen ez badituzu –eta ez ditugu gainditu behar, goitik kalkulatuta daudelako– udalek euren azaleraren arabera ordaindu beharko dute 5.466,67 - 6.560,00 € bitarteko kopuru bat, kontuan izanda horien zati handi bat lan osoaren BEZ dela.

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Abadiño	35,97	10.199,12 €	13.598,82 €	2.175,81	15.774,63	5.575,52 €
Abaltzisketa	11,03	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	18,28	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Aduna	6,99	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Aia	55,04	10.834,83 €	14.446,44 €	2.311,43	16.757,87	5.923,04 €
Aizarnazabal	6,45	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ajangiz	7,42	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Albiztur	13,19	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Alegia	7,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Alegría-Dulantzi	19,91	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Alkiza	11,86	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Alonsotegi	16,15	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Altzaga	2,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Altzo	9,75	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Amezketa	20,44	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Amorebieta-Etxano	58,18	10.939,20 €	14.585,60 €	2.333,70	16.919,30	5.980,10 €
Amoroto	12,92	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Amurrio	96,15	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Andoain	27,23	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Anoeta	4,12	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Antzuola	27,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Añana	22,02	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arakaldo	2,61	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arama	1,31	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Aramaio	73,34	11.444,63 €	15.259,50 €	2.441,52	17.701,02	6.256,40 €
Arantzazu	3,77	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Areatza	9,10	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Aretxabaleta	29,01	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Armiñón	10,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arraia-Maeztu	122,95	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Arrankudiaga	22,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arrasate/Mondragón	30,72	10.024,11 €	13.365,48 €	2.138,48	15.503,95	5.479,85 €
Arratzu	10,30	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arrazua-Ubarrundia	57,50	10.916,76 €	14.555,68 €	2.328,91	16.884,59	5.967,83 €
Arrieta	14,41	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Arrigorriaga	16,05	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Artea	12,25	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Artzentales	36,48	10.216,03 €	13.621,37 €	2.179,42	15.800,79	5.584,76 €
Artziniega	27,51	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Asparrena	65,01	11.166,84 €	14.889,12 €	2.382,26	17.271,38	6.104,54 €
Asteasu	16,92	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Astigarraga	11,93	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ataun	58,75	10.958,44 €	14.611,26 €	2.337,80	16.949,06	5.990,61 €
Atxondo	23,19	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Aulesti	25,45	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ayala/Aiara	140,88	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Azkoitia	56,67	10.888,86 €	14.518,48 €	2.322,96	16.841,44	5.952,58 €
Azpeitia	69,30	11.309,99 €	15.079,99 €	2.412,80	17.492,79	6.182,80 €
Bakio	16,79	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Baliarrain	2,61	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Balmaseda	22,33	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Baños de Ebro/Mañueta	9,45	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Barakaldo	29,00	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Barrika	7,91	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Barrundia	97,26	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Basauri	6,97	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Beasain	30,31	10.010,26 €	13.347,01 €	2.135,52	15.482,53	5.472,28 €
Bedia	16,37	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Beizama	16,38	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Belauntza	3,40	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Berango	8,74	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Berantevilla	35,46	10.181,91 €	13.575,89 €	2.172,14	15.748,03	5.566,11 €
Berastegi	45,84	10.528,10 €	14.037,47 €	2.245,99	16.283,46	5.755,36 €
Bergara	76,03	11.534,32 €	15.379,10 €	2.460,66	17.839,76	6.305,43 €
Bermeo	33,79	10.126,49 €	13.501,99 €	2.160,32	15.662,31	5.535,82 €
Bernedo	130,70	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Berriatua	20,28	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Berriz	30,08	10.002,60 €	13.336,80 €	2.133,89	15.470,68	5.468,09 €
Berrobi	2,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Bidegoian	13,33	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Bilbao	41,39	10.379,68 €	13.839,58 €	2.214,33	16.053,91	5.674,23 €
Busturia	19,71	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Campezo/Kanpezu	85,13	11.837,81 €	15.783,75 €	2.525,40	18.309,15	6.471,34 €
Deba	50,35	10.678,27 €	14.237,69 €	2.278,03	16.515,72	5.837,45 €
Derio	7,22	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Dima	61,84	11.061,22 €	14.748,29 €	2.359,73	17.108,01	6.046,80 €
Donostia-San Sebastián	61,52	11.050,63 €	14.734,18 €	2.357,47	17.091,65	6.041,01 €
Durango	14,92	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ea	14,15	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Eibar	24,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Elantxobe	1,87	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Elburgo/Burgelu	32,39	10.079,61 €	13.439,47 €	2.150,32	15.589,79	5.510,18 €
Elciego	16,28	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Elduain	25,18	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Elgeta	16,66	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Elgoibar	39,22	10.307,18 €	13.742,90 €	2.198,86	15.941,77	5.634,59 €
Elorrio	37,16	10.238,80 €	13.651,74 €	2.184,28	15.836,01	5.597,21 €
Elvillar/Bilar	17,54	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Erandio	17,69	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ereño	10,60	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ermua	6,19	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Errenteria	32,33	10.077,50 €	13.436,67 €	2.149,87	15.586,53	5.509,03 €
Errezil	32,60	10.086,83 €	13.449,10 €	2.151,86	15.600,96	5.514,13 €
Errigoiti	16,47	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Eskoriatza	40,62	10.353,84 €	13.805,12 €	2.208,82	16.013,94	5.660,10 €
Etxebarri, Anteiglesia de San Esteban-Etxebarri Doneztebeko Elizatea	3,32	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Etxebarria	17,96	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Ezkio-Itsaso	21,27	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Forua	7,77	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Fruiz	4,16	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gabiria	14,71	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gaintza	5,97	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Galdakao	31,75	10.058,47 €	13.411,29 €	2.145,81	15.557,09	5.498,63 €
Galdames	44,58	10.485,91 €	13.981,21 €	2.236,99	16.218,21	5.732,30 €
Gamiz-Fika	15,31	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Garai	7,03	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gatika	17,13	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gautegiz Arteaga	13,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gaztelu	9,30	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gernika-Lumo	8,36	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Getaria	10,62	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Getxo	12,01	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gizaburuaga	6,23	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Gordexola	41,16	10.371,94 €	13.829,25 €	2.212,68	16.041,93	5.669,99 €
Gorliz	10,20	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Güeñes	41,22	10.373,90 €	13.831,87 €	2.213,10	16.044,97	5.671,07 €
Harana/Valle de Arana	39,19	10.306,24 €	13.741,65 €	2.198,66	15.940,31	5.634,08 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Hernani	39,79	10.326,49 €	13.768,65 €	2.202,98	15.971,64	5.645,15 €
Hernialde	4,22	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Hondarribia	28,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ibarra	4,95	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ibarrangelu	15,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Idiazabal	29,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Igorre	17,42	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ikaztegieta	2,12	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Irun	42,58	10.419,29 €	13.892,38 €	2.222,78	16.115,16	5.695,88 €
Iruña Oka/Iruña de Oca	53,12	10.770,51 €	14.360,68 €	2.297,71	16.658,39	5.887,88 €
Irura	2,80	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Iruraiz-Gauna	46,87	10.562,36 €	14.083,15 €	2.253,30	16.336,45	5.774,09 €
Ispaster	22,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Itsasondo	8,88	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Iurreta	14,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Izurtza	4,15	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Karrantza Harana/Valle de Carranza	137,44	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Kortezubi	12,08	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Kripan	12,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Kuartango	84,57	11.819,07 €	15.758,76 €	2.521,40	18.280,16	6.461,09 €
Labastida	38,41	10.280,21 €	13.706,95 €	2.193,11	15.900,06	5.619,85 €
Lagrán	45,34	10.511,41 €	14.015,21 €	2.242,43	16.257,64	5.746,24 €
Laguardia	81,09	11.702,97 €	15.603,96 €	2.496,63	18.100,59	6.397,62 €
Lanciego/Lantziego	24,21	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lanestosa	1,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lantarón	61,68	11.055,85 €	14.741,14 €	2.358,58	17.099,72	6.043,87 €
Lapuebla de Labarca	5,96	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Larrabetzu	21,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Larraul	5,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lasarte-Oria	5,98	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Laukiz	8,24	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lazkao	11,39	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Leaburu	3,37	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Legazpi	41,91	10.396,86 €	13.862,48 €	2.218,00	16.080,47	5.683,62 €
Legorreta	8,69	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Legutiano	45,70	10.523,46 €	14.031,28 €	2.245,00	16.276,29	5.752,83 €
Leintz-Gatzaga	14,65	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Leioa	8,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lekeitio	1,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Lemoa	15,90	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lemoiz	14,05	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Leza	10,04	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lezama	16,58	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lezo	8,71	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Lizartza	12,37	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Laudio/Llodio	37,58	10.252,67 €	13.670,23 €	2.187,24	15.857,47	5.604,79 €
Loiu	15,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mallabia	23,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mañaria	17,53	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Markina-Xemein	63,69	11.123,13 €	14.830,84 €	2.372,94	17.203,78	6.080,65 €
Maruri-Jatabe	15,90	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mendaro	25,14	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mendata	22,44	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mendexa	7,14	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Meñaka	12,44	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Moreda de Álava	8,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Morga	11,64	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mundaka	4,19	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mungia	56,43	10.881,06 €	14.508,08 €	2.321,29	16.829,37	5.948,31 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	23,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Murueta	5,48	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Muskiz	20,62	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mutiloa	8,68	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Mutriku	27,54	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Muxika	50,15	10.671,80 €	14.229,07 €	2.276,65	16.505,72	5.833,92 €
Nabarniz	11,62	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Navaridas	8,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Oiartzun	59,50	10.983,30 €	14.644,40 €	2.343,10	16.987,51	6.004,20 €
Okondo	29,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Olaberria	7,02	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ondarroa	3,58	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Oñati	107,23	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Ordizia	5,60	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orendain	6,39	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orexa	5,77	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orio	9,69	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ormaiztegi	6,76	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Orozko	102,56	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Ortuella	7,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Otxandio	12,39	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Oyón-Oion	44,99	10.499,80 €	13.999,73 €	2.239,96	16.239,69	5.739,89 €
Pasaia	11,37	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Peñacerrada-Urizaharra	56,96	10.898,57 €	14.531,42 €	2.325,03	16.856,45	5.957,88 €
Plentzia	6,11	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Portugalete	3,22	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ribera Alta	119,25	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Ribera Baja/Erribera Beitia	27,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Salvatierra/Agurain	38,02	10.267,33 €	13.689,77 €	2.190,36	15.880,14	5.612,81 €
Samaniego	10,41	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
San Millán/Donemiliaga	85,34	11.844,81 €	15.793,08 €	2.526,89	18.319,97	6.475,16 €
Santurtzi	7,11	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Segura	9,17	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Sestao	3,49	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Sondika	6,06	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Sopelana	8,27	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Sopuerta	42,91	10.430,45 €	13.907,27 €	2.225,16	16.132,43	5.701,98 €
Soraluze/Placencia de las Armas	14,21	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Sukarrieta	2,31	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Tolosa	37,45	10.248,42 €	13.664,56 €	2.186,33	15.850,89	5.602,47 €
Trucios-Turtzioz	30,94	10.031,46 €	13.375,28 €	2.140,04	15.515,32	5.483,86 €
Ubide	2,86	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Ugao-Miraballes	5,29	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urduliz	7,85	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urduña-Orduña	33,45	10.115,02 €	13.486,69 €	2.157,87	15.644,56	5.529,54 €
Urkabustaiz	60,23	11.007,75 €	14.677,00 €	2.348,32	17.025,31	6.017,57 €
Urnieta	22,44	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Urretxu	7,56	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Usurbil	24,81	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Valdegovía	243,44	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Valle de Trápaga-Trapagaran	13,13	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Villabona	17,74	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Villabuena de Álava/ Eskuernaga	8,47	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Vitoria-Gasteiz	276,36	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Yécora/Iekora	18,75	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaldibar	11,59	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaldibia	16,30	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

Izena*	km²	Gehieneko diru laguntza	Gehieneko zerga oinarria	Gehieneko BEZ	Gehieneko amaierako kostua	Udalak gehienez ordaindu beharrekoa
Zalduondo	11,98	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zalla	30,67	10.022,36 €	13.363,14 €	2.138,10	15.501,25	5.478,89 €
Zambrana	39,70	10.323,38 €	13.764,51 €	2.202,32	15.966,83	5.643,45 €
Zamudio	18,51	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zaratamo	9,99	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zarautz	14,36	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zeanuri	66,91	11.230,21 €	14.973,62 €	2.395,78	17.369,40	6.139,18 €
Zeberio	47,27	10.575,70 €	14.100,93 €	2.256,15	16.357,08	5.781,38 €
Zegama	35,11	10.170,50 €	13.560,66 €	2.169,71	15.730,37	5.559,87 €
Zerain	10,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zestoa	43,97	10.465,75 €	13.954,33 €	2.232,69	16.187,03	5.721,28 €
Zierbena	9,01	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zigoitia	102,00	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Zizurkil	15,54	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zuia	122,57	12.000,00 €	16.000,00 €	2.560,00	18.560,00	6.560,00 €
Zumaia	11,34	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €
Zumarraga	16,63	10.000,00 €	13.333,33 €	2.133,33	15.466,67	5.466,67 €

* Izendapen ofizial izandakoak, gaur den eguneko ofizialtasunera egokitu gabe.

Nafarroako Foru Komunitatean, ez dago udaletan edo antzekoetan toponimia mapak egiteko laguntzarik, Gobernutik bertatik zentralizatutako zeregina delako. Bada euskararen inguruko ikerketak egiteko diru-laguntza bat (2008-05-23 eguneko Nafarroako Aldizkari Ofizialean), oso eskasa –bere osotasunean 15.000 euro– eta, gainera, geroko ebazpen batez (2008-09-15eko Aldizkarian) 7.000 euroko gehieneko gastura murriztua. Antzeko egoera, berariazko laguntzarik ezarena, dugu Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

Norekin, zein enpresarekin egin gure herriko mapa? Ez dira gehiegi baina badira gure mapa bat egiteko beharra aseko diguten mapa enpresak. Laguntzen ebazpena argitaratzen den egunean, gainera, hasiko dira gureganatzen euren zerbitzuak eskaintzeko.

Bestela beti dago aholkua eskatzearen bidea.

Mapak bigarrenez, hirugarrenez... egin ahal izango dira, balizko okerrak zuzentzeko edo hobetzeko baina dirua banatzerakoan lehentasuna izango dute estreinako aldiz egiten dutenak.

Diru-laguntzaren onuradunak izateko, egingo den toponimia mapa topografikoa izan behar da –eskala, mailak adierazteko sestra kurbak, hipsometria...– eta ez edonolakoa. Bestetik paperezkoa izatea eskatzen da, hots, argitalpen lana egongo dela tartean. Azken hau, onuragarria da gure helburuei begira, etxe guztietara ale bat banatzea ahalbidetzen digulako.

Gogora dezagun, berriz, hori dela modurik onena toponimoak ezagutarazteko, finkatzeko eta iraunarazteko. Lehentasuneko zerbitzu honetaz gain, abantaila nagusia mapa bat izatea da, hortik aurrera edonon erabili ahal izateko: turismoa, hirigintza, irakaskuntzan, mendi-ibilbideak...

MAPAREN AURRETIKO LANAK

Mapa bat egin daiteke bai Jaurlaritzak duen herri bakoitzeko toponimiako datu-base soila erabiliz, bai aurrekoaz gain, bestelako ikerpen bat erabiliz.

Eta guztiarekin, oso gomendagarria da mapa editatu aurretiko toponimia erakusketa bat. Hori egin daiteke mapa izango denaren zirriborro batez, ortoargazki batez edo biak aldi berean. Erakusketara eraman behar da jendea, ahalik eta partehartzaileena izan dadin. Bertan herritarrek esango digute zein izen gehitu, zein kendu edo zein lekuz aldatu. Asko dira mapa egin aurretiko erakusketaren abantailak:

– Toponimia herriaren ondarea da, nahiz eta guk bildu eta antolatu. Herritarrek gertu-gertutik sentituko dute «euren» gauza bat egiten ari dela. Hurbilago izango dituzte maparen sentsazioak.

– Partehartzailea da. Herritarrek oso eskertzen dute kontsultatuak izatearena. Gerora, gainera, mapa eskuartean izatean, neurri batean, haien produktua dela sentituko dute.
– Mapa edo toponimia-lan perfektua ez da existitzen. Eta inongo herrian ez dago pertsona bat bere herriko izen guzti-guztiak dakizkiena. Horregatik, herritar askoren lan bateratuaren bitartez, perfekziotik hurbilen izango gara.
– Ekintza kultural bat da, eta arrakastatsua eta harrera onekoa gerta daiteke gauzak ondo antolatuz gero.
– Azkenik, eta guri ikuspuntu praktiko batetik oso interesatzen zaiguna, mapari legitimitate, sinesgarritasuna ematen dio. Mapa egin osteko balizko kritikak isilarazteko balioko digu erakusketak. Ez da gutxi.

NOLA KUDEATU MAPA EGIN AURRETIKO ERAKUSKETA BAT?

– Leku publiko eta ezagun bat aukeratu behar da
– Astebete edo bi izatea nahikoa izan daiteke baina saiatu behar gara egun batzuetan ahalik eta jende gehien biltzen.
– Gorago ezarritako gure helburu horiek erdiesteko, komenigarria da herritar guztiengana iristea gonbidapena: herriko aldizkariak, etxez etxeko banaketa... Herrian lagungarria izan daitekeen elkarterik balego, inplikatu behar proiektuan.
– Bertan eta erakusketa zaintzen eta azaltzen pertsona aditu bat egotea komeni da. Eta pertsona hori ez dagoen unetarako lagungarriak izan daitezke fitxa batzuk jakiteko zer kendu, gehitu edo aldatu nahi den, betiere iradokizuna egiten duen pertsonaren izen eta telefonoak bilduz, geroko elkarrizketetarako.
– Ikastetxeetako ikasleek ere parte har dezakete, aldez aurretik izenen bilketa, nahiz eta txikia izan, egin baldin badute.

MAPAREKIN BATERA ARGITARATZEA KOMENI DENA

Eskualde batzuetan toponimoen idazkera zuzena eta errealitatearen artean egiten denaren artean ezberdintasun nabariak egon daitezke, toponimoak identifikatzeko arazoak ere sor ditzaketenak. Horrelako egoeretan, komenigarria da horrelako zalantzak edo itxuraldaketak azaltzen dituen esku-liburu sinple bat ematea. Irakurria izatea denez helburua, modu arinean, argazki askorekin eta testu labur-laburrekin planteatu behar dugu, alde batera utzita azalpen filologiko sakonagoak edo era dokumentalen zerrenda luzeak. Gaine-

ra, jendeari gauzak azaltzen zaizkionean, aldaketak onartzeko joera du; ez ordea, komunikaziorik ez badago.

Zer esanik ez, bestelako liburu sakonagoak ere gomendagarriak dira oso.

TOPONIMIA BILDUTA, MAPA EGINA ETA ZER EGIN?

Hortik aurrerakoa gure esku eta gure irudimenaren esku dago. Beti ere, aintzat hartuta gure helburuak izan behar direla

a) toponimoak ahalik eta jende gehienen esku egotea eta

b) toponimoak ahalik eta jende gehienak erabiltzea

Eta kasu bietan arreta berezia ezarriz, belaunaldi gazteagoei begirako iragan-lanetan.

HAINBAT IDEIA

Era guztietako jolas interaktiboak egin daitezke. Badira horretarako enpresak. Baina baliabide eskasagoak baditugu, nahikoa izan daiteke udalaren webean mapa edo eta toponimoen gaineko informazioa. Ondo dago, webaren bitartez mapa geoerreferentziatuta jaisteko aukera ematea, eskuko GPSekin batera erabili ahal izateko.

Ibilbide toponimikoak antolatu edo bestelako mendi edo antzerako ibilbide bat antolatutakoan, tokian tokiko izenen berri ematea.

Toponimoen seinaleztapena. Jakina, kaleen izenak identifikatu behar direla ohiko xaflen bitartez. Komenigarria da, bestetik, auzo edo baserri-etxeetarako bideak ondo adieraztea. Identifikatzeko arazoak egon daitezkeenean, oso zilegia ez bada ere, erabil daitezke toponimo normatibizatua eta herrian erabiltzen dena aldi berean, nahiz eta azken honek agerpen apalago bat izan. Ez dugu ahaztu behar seinaleak lekuak identifikatzeko eginak direla. Azkenik toki ezberdinetako izenen seinaleak egin daitezke.

Mapei dagokienez, haietako batzuk tolestu gabe enkargatuko ditugu, poster moduan erabili ahal izateko. Horiek oso efektiboak dira, leku publikoetan –tabernak, erakundeetako eraikinetan, txokoetan, elkarteetan... jartzen direnean. Kalean jartzeko ere material berezietan inprimatu daitezke.

Umeei eta irakaskuntzari begira ere hainbat dira egin daitezkeenak.

– Mapa argitaratu aurretik, izenik gabeko bertsio bat ematea, beraiek modu antolatu batean izenak bildu ditzaten. Gero emaitzak kontrastatu beharko lituzkete egingo den toponimia erakusketarekin.

– Unitate didaktikoak. Umeei «bilduma» edo «album» bat bezala planteatzeko lana. Izen batzuk eman –ikasle talde bakoitzari batzuk– eta, fitxa batzuetan, lekuaren deskribapena egin, elementuaren neurriak, etxearen jabearen izena eta sinadura bildu, edo harekiko talde argazkia... edozein gauza bermatzeko umeak bertan izan direla eta leku horren gainean gutxieneko informazioa ere bildu dutela. Egokia oso, bestelako elementu etnografikoak –karobi, errota, burdinola, teileri edo antzeko izenek gogora dakarkigutena...–, ingurumenekoak –iturrien fitxak esate baterako– eta abar ezagutarazteko. Tokian tokiko biztanleekin adostu daiteke. Izenen eta tokien «bilduma» egiten egotearen sentsazioa transmititu behar diegu, motibazioz egin dezaten. Hori dena, jakina, banatu dugun mapan integratua.

– Eskuko GPS batzuk izanda, leku batzuetako UTM koordenadak eman eta leku horren izena eta argazkia lortu behar izatea. Ekintza hau, lehiaketa moduan planteatzea ona da, parte hartzeko motibazioan eragiteko.

– Leku-izenak dituen maparen edo atzeko ortofotoarekin puzzle batzuk egin daitezke. Kostuei begiratu behar diegu, trokel bereziak behar direlako.

– Umetan gutako askok ikasi genituen Madrilgo kaleen izenak *Monopoly* jolasaren bitartez. Harrez gero ez ditugu ahantzi bertan ikasitakoak: Lavapiés, Glorieta Cuatro Caminos... Beraz, horretarako ahalmena probaturik dago: balia dezagun, beraz.

Ideiak edonolakoak izan daitezke, eta edonork asmatuak. Baina beti gure ondarearen atalik barneratuena, toponimiarena hain zuzen ere, guk jaso bezala edo hobeto, besteei helaraziz.

LEGEDIA, ESKUMEN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURAK

Jose Luis Lizundia Askondo

LEGEDIA

Duela 40. urte, III. Euskal Liburu eta Disko Azokaren inguruan Euskaltzaindia bildu zen Gerediaga Elkarteak gonbidatuta bere Urre Ezteiak ospatuz. Osoko bilkura egin zuen Akademiak eta, hilabete lehenago, Arantzazuko Biltzarrean onartutako erabaki-adierazpena, orduan, ez hemen, berton, baina hurbil, Merindadearen Auzitegian, berretsi zuelako pozgarria da niretzat zuon aurretan txosten hau irakurtzea.

Euskal toponimia, administrazio desberdinen eskumenen arabera normalizatzeko, ezin bestekoa da Legedia jakitea eta, ondorioz, euskararen mesedetan betearaztea. Hemen, Euskal Autonomia Erkidegoko lege eta lege garapenetara mugatuko naiz gehienbat, nahiz eta Nafarroaz ere aipamen pare bat egin.

Gure autogobernuaren Estatutuak, bere 6. artikuluak erregulatzen du euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasuna eta, orain interesatzen zaigun puntuan, 4. lerrokadan hau dio:

> Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da aholku-emaile ofiziala.

Eskumen honek garrantzia izugarria izan du, geroago azalduko dugunez.

Euskararen Erabilpena Normalizatzeko Oinarrizko azaroaren 24ko 1982/10 Legea, hots, Eusko Legebiltzarrak onartutakoa, da hurrengo kontuan izatekoa, hain zuzen, 10 artikulua:

> 1. Autonomia Erkidegoko lurralde, udal, herri geografia-gorabehera, hiribide eta, orohar, toki izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek edo toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoan, hizkuntza bakoitzari dagozkion idazkera akademikoari men eginaz.- Toki-erakundeari eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, Euskaltzaindiañ bere irizpena eskatu ondoren.
>
> 2. Kale-bideetako seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolanahi ere nazioarteko arauei eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.

3. Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide seinaleei buruzkoetarako, besteak beste, biak ofizialtzat joko dira.

Nafarroako 1985/16 Foru Legeak, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoak, gaur dagokigun gaian, honako hau dio 8. artikuluan:

1. Foru Komunitatearen toponimoak gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala honako arau hauen arabera:

a) Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskaraz izanen da, non ez den beste izen bat gaztelaniaz, kasu honetan biak erabiliko dira.

b) Eremu misto eta euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren aldiz aurreko txostenari jarraiki eta artikulu honen lehendabiziko atalean aurreikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta honen berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenakjartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

Beste lege jakingarri bat, Estatu guztirako indarra duena, «Ley de Bases de Régimen Local», Gorteak onartutako 7/1985 Legea da. 14 artikuluan hau dio:

Los cambios de denominación de los Municipios sólo tendrán carácter oficial cuando, tras haber sido anotados en un Registro creado por la Administración del Estado para la la inscripción de todas las Entidades a que se refiere la presente Ley, se publiquen en el «Boletín Oficial del Estado». – La denominacion de los municipios podrá ser, a todos los efectos, en castellano, en cualquier **otra lengua española oficial** en la respectiva Comunidad Autónoma o en **ambas.**

Bere garaian, Lege honen Oinarrizkotasunaren kontra Euskal Herritik zuzenketa bat idatzi nuen bakarra izango nintzen, seguru asko, hain zuzen, Talde Mistoko Juan Mari Bandresen bidez. Bistakoa dena, ez zen onartua izan. Oinarrizko Lege horren garapenez, oraindik, tamalez, Eusko Jaurlaritzak ez du aurkeztu «Euskadiko Udal Legea» eta, ondorioz, ez da eztabaidatu, ez onartu Eusko Legebiltzarrean. Nafarroak bai, ordea, baina, zoritxarrez, gaurko gairako mesedegarri ez dena (Ikus: 1990/6 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Administrazio Lokalari buruzkoa).

Aipaturiko «Ley 7/185» delako horren garapenez indarrean ezarritako dekretu bat oso jakingarria da gaurko gairako, hots, «Real Decreto 1690/1986 de 11 de julio, del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales» eta, konkretuki bere III. Kapitulua:

Del nombre y de la capitalidad de los municipios

eta, zehatzago oraindik 28. artikuluak, zeinek hau dioen:

La aprobación por el Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma

(Euskal Autonomia Erkidegoaren L.T.H.ren ondorioz, Batzar Nagusien eskumena da salbuespen bakarra)....

previo informe de la Real Sociedad Geográfica o de la Real Academia de la Historia, según proceda, o de las instituciones especializadas de la Comunidad Autónoma, si existieren (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan, bietan, legez, Euskaltzaindia, zorionez), y de aquellos otros Organismos que se consideren oportunos.

Puntu honetan esan behar da, garaiz, jadanik trantsizio garaian katalanak lortu zutela Institut d'Estudis Catalans izatea irizpen emaile ofiziala eta, segidan, guk, Euskaltzaindia izatea. «Ley 7/1985»ko proiektutik «Consejo de Estado» eta «Real Academia de la Historia»ren irizpen emaile monopoliotasuna kentzen ahalegindu ginen batzuk, baina, gehienbat indar politiko katalanei esker, aitor dezadan. Bidenabar, gurekin dauden Iparraldekoek jakingo dute zer oztopo larri den Frantses Errepublikan «Conseil d'Etat» delakoaren eskumen jakobinoa.

Lege mailakorik ez, foru arau mailakoak, ordea, bai, baditugu. Hauek erregulatzen dute udal izenen ofizial bihurtze Euskal Autonomia Erkidegoan eta indarrean daude. Antzerakoak dira, ia berdinak Gipuzkoa eta Bizkaikoak. Eskura dudanetik, hara hor, hitzez hitz, «Bizkaiko Udal Mugarteei buruzko uztailaren 7ko 1993/8 Foru Arauak, bere 72. artikuluak:

PROZEDURA. Udalerri edo udal entitate txiki baten izenaren aldarapena ondoko prozedura honen arabera burutu beharko da:

a) Udalaren osoko bilkurak edo egokia den auzo batzak hartutako aldeko erabakiak emango dio hasiera.

b) Espedienteari buruzko jendaurreko berriematea hogeita hamar astegun baino gutxiagokoa ezin izan daitekeen epealdian, Bizkaiko Egunkari Ofizialean eta, gutxienez, Lurralde Historikoan alerik gehien saltzen duen egunkarietako baten, egunkari horrek zabalkundea justifikatzeko kreditutako kontrolpean egon behar duela, iragarkiak argitaratuz. Aldi berean, hala denean, haren mugapeko udalerriari entzunaldia eskainiko zaio.

c) **Euskaltzaindiko txostena.** Hirurogei astegunetako gehiegizko epealdia bukatu aurretik eman beharko da, bestela aldeko erabakia emanez egintzat joko baita.

d) Proposamena onetsi edo ukatuko duen udal batzaren osoko bilkurak edo, hala denean, auzo batzak hartutako ebazpena.

e) Espedientea, auzo erakundearena bada, Foru Aldundiari aurkeztea onetsia izan dadin, edo Bizkaiko Batzar Nagusien ebazpenean jartzea, baldin eta udale-

rriarena bada. Ebazpen hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuko da eta ukituriko Entitate Publikoei jakinaraziko zaie dagozkien administrazio errekurtsoak eskainiz.

f) Bizkaiko Auzo Erakundeen Foru Erregistroan inskribitzea eta Autonomia Erkidegoko eta Estatu Administrazioari bidaltzea, ondore beretarako.

Foru arauetan agertzen ez den kontu bat aipatu nahi nuke, ez udalerriaren izenaz, baizik eta «udalburu»z, hots, gaztelaniaz «capitalidad o cabecera del municipio» deitzen denaz, zeren eta uste baitut, 1980 geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan, udal-hiriburu zenbait Udaletxez eta izenez aldatu direla, lege eskumen eta prozedura erratuz, Euskaltzaindiaren irizpen barik eta R.D. 1690/1986 delakoaren III. Kapituluari kasurik egin gabe, alegia, besteak beste «Registro de Entidades Locales»era igorri gabe. Ez dakit euskal udal asko konturatu diren horrek erakunde eta organismo artean sortzen dituen kontraesanez. Ezagutzen dut, bestalde, kasuren bat iaz arte erdal izenaz funtzionatu duen «udalburua» nahiz eta euskal izen peto petoa euskaldunen artean bizirik iraun mendez mendetan.

Foru arauak erregulatzen dute baita ere, Bizkaian eta Araban, behintzat, Mankomunitate edota Koadrilen erakundetzea. «Bizkaiko udalez gaindiko erakundeko erakundeak araupetzeari buruzko martxoaren 30eko, 1995/2 foru-arauak Mankomunitate eta Partzuergoena, hain zuzen. Izenari dagokionez honako hau dio:

MANKOMUNITATEAK... 9.2. Estatutu horietan, gutxienez, honako inguruabarrok konstarazi beharko dira: a) Mankomunitatearen **izena** eta egoitza... PARTZUERGOAK... 30. artikulua.- Estatutuak Estatutuak Partzuegoen funtzionamendu araubidea ezarriko dute eta, gutxienez, honako hauek edukiko dituzte: a) Partzuergoaren **izena** eta egoitza...

Beraz, aipamen xumeegia, edozein izen har dezakete, euskal izena, erdal izena, elebiduna.

Errepideen izenez, ordea, «Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 1993/2 Foru Arauak 7. artikuluan honako hau dio:

Errepideen izendapena edo izen jartzea Euskal Herriko Errepidei buruzko Egitamu Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 89/2 Legeak ohartemandakoaren arabera eta hori aldatzen duen azaroaren 8ko 91/2 Legearen arabera egingo da, baita **azaroaren 24ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko 82/10 Legearen 10. atalean ezarritakoari jarraituz ere.**

Artikulu hau onartzea baldintza bezala jarri nuen, zeren eta, adibidez, Araban, ez errepide ingeniari batek ez eta Foru Herrilan legelariak ez zekiten Euskararen Legerik zegoenik ere indarrean, bai, ordea, Estrasburgoko Parlamentuaren direktiba bat zeinetan erregulatzen den letra gotikoa ez erabiltzea eta horrekin baliatu omen ziren «euskal letra tipikoak» ezabatzeko. Gipuzkoako Batzar Nagusiak aspaldian izan dute tramitean «Errepide Foru Araua» baina, ez dakit, izendapenari buruz ezer sartu duten.

ESKUMENAK

Udalen eskumen propioak badituzte izendapen alorretan, aipaturikoak goragoko instantzietan berresten badira ere. Zeintzuk dira horiek: udalerriko auzo –udalaren auzoburu edo kontzeju mailakoak izan ezik–, kale, parke, pasealeku, industrialde eta besteren izendapenak. Hara zer dion legeriak.

«Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Regimen Local» delakoak, III. kapituluan, hots, Eskumenetakoan eta 25. artikuluaren d) lerrokadan dioenaz baliatzen direla uste dut Udalerriak izendapen horietarako:

> **Ordenacion, gestion, ejecucion y disciplina urbanística;** promocion y gestion de viviendas; parques y jardines, pavimentacion de vías públicas urbanas y conservacion de caminos y vías rurales.

Lege honen garapenez, Udalak badu, ene ustez, eskumen osoa gorago aipaturiko izendapenetan. Besterik da, arbitrarioki erabili behar duen eskumen hori edota prozedura jakin batzuekin, zeintzuek bermatuko duten, besteak beste, euskal toponimiaren kalitate akademikoa, beste edozein hizkuntza normalizatuetan bezalaxe. Eta hau da azpimarratzea nahi duguna ikastaro honetan, bai nire txosten honetan, baita segidan datozen lankideenetan ere.

PROZEDURA

Ez dagoena zehaztuta, Euskal Autonomia Erkidegoan «Euskadiko Udal Legearen» ezaz edo, bere garapenez, nola izan behar duen tramitatzeko bame prozedura. Galizian, ostera, badago, Xuntaren dekretu bidez:

> Decreto 132/1984, do 6 de setenmbro, da Xunta de Galicia, polo que se establece o procedemento para a fixación ou recuperación de toponimia de Galicia (DOG do 21 de setembro de 1984.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskararen Aholku Batzordean nengoela, Mari Karmen Garmendiaren garaian, 80. hamarkadaren amaiera aldean eta, Erdaide eta Badiola legelari andereekin batera, burutu genuen Toponimia finkatzeko eta berreskuratzeko egitasmo bat. Quebec-eko «Commission de Toponymie» delakoan oinarriturik eta hemengo erakundetze berezira egokiturik hamaika kide zituen: 3, Jaurlaritzatik; 3, Diputazioetatik, bakoitzetik bana; 1, EUDELetik; 2; EHU/UPV eta Deustutik, unibertsitate bakoitzetik bana eta beste 2, Euskaltzainditik, berauetako bat idazkari-teknikari legez. Porrot egin zuen, tamalez, egitasmoak, Jaurlaritza eta Aldundi biren arteko akordiorik ezaz. Ez dut, orain, haren xehetasunetan sartzeko modurik.

Prozedura ez erregulatzeak dakar, prozedura anabasa, udal bakoitzeko indar korrelazioen, edota, agintarien kapritxoen arriskuan egotea. Oraintsu irakurri dugu nola hiriburu baten, Euskaltzaindiak egindako ikerketari jaramo-

nik egin gabe, Alkatetzak dekretuz izendatu dituela auzo bateko kaleak. Ene ustez, udalbatzaren osoko bilkurari dagokio, «Real Decreto 2568/1986 de 28 de diciembre, del Reglamento de Organizacion, Funcionamiento y Regimen Juridico de las Corporaciones Locales» delakoaren 50. artikuluaren arabera. Beste batzuetan Gobemu Batzordeak izendatzen omen ditu, gehienik ere, Udalbatzak berretsiz. Durangoko kasua ezagutzen dut, izendapen askotan aholkulari izan naizelako: Bulego Teknikoko buruak, alegia, udal arkitektuak proposamena Hirigintza Batzordera eramaten du eta, edo Euskara Zerbitzuko S.A. Atutxa teknikariaren bidez, edota, zuzenean Euskaltzaindiko Onomastika Zerbitzura edo, azken orduan, zuzenean niri, iritzia eskatu eta osoko bilkurara eraman. Arkitektu euskaltzale baten prozedura txalogarria bada ere, ziurtasuna prozedura erregulatu batek emango lioke, nonahi eta, orokorki segurantza juridiko eta linguistikoa.

Bada, nik dakidanez, hirigintzako Arau Subsidarioetan gaurko gaiaren eskumena erregulatzen duen udal bat, Bakiokoa, hain zuzen. «Sukaldaritza» lanetan ibili nintzelako Kepa Uriarte alkate ordearekin eta Joseba Terreros Euskara Zerbitzuaren arduradunarekin ezagutzen dut testua. Hara zer dioen 2001ean onartutako 214 artikuluak:

> Hirigintza proiektuak
>
> Urbanizazio proiektuetan Lurzoruari buruzko Legeak eta haren araudietan garatu diren zehaztapenak eta proiektu horiek garatzeko eta aplikatzeko xedapenak azalduko dira.
>
> Hirigintza proiektuetan jasoko dira hiri edo landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoen izenak, 10/1982 Legearen arabera (azaroaren 24ko Legea, Euskararen Erabilera Araukotzekoa). Helburu horrekin, proiektua erredaktatzen duenak udalaren bidez bilduko ditu Bakioko udalerriko leku-izenak eta onomastika. Zalantzarik izanez gero –leku izena berria izateagatik edo dena delakoagatik– udalak euskara zerbitzuaren bitartez, irizpena eskatuko dio **Euskaltzaindiari**. Oro har, kontuan izango da udalak egindako toponimia azterketa, Akademiaren batzordeak ikuskatua.

Euskararen Udal Ordenantza batzuetan ere ikusi dugu prozedura erregulatuta. Bat, aipatzearren eta, batzuk ezagutuko duzue, Euskararen 1982/10 Legearen 10.artikulua garatuz, honako hau da:

> Kale edo auzoen izenak agertzen dituzten plakak, trafiko seinaleak, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarki guztiak edo ele bietan idatziko dira, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauei jaramon eginez.
>
> Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak **irizpena** eskatuko dio **Euskaltzaindiari**.

Era berean, hirigintza proiektu berrien ondorioz gerta daiteke hiri edo landa aldeko egoitzalde, eremu, kale berri, plaza eta gainerakoen izen ofiziala ezarri behar izatea; halakoetan ere, udalak **irizpena** eskatuko dio **Euskaltzaindiari**.

Jakingarria litzateke zenbat udaletan onartuta dagoen Ordenantza hau, edota eztabaida proiektuan. Alde batera utzita trafiko seinale generikoen elebitasuna eta toponimoen euskal elebakartasuna, hobeto bereiztea, eredu interesgarritzat jotzen dut. Besterik da, ordea, udaletxe barruko prozedura, hots, Hirigintza Batzordetik, Euskara-Kultura Batzordetik, Gobernu Batzordetik, Alkatetzatik edo zer bide jarraitu behar duen. Nire ustez, osoko bilkurak onartu edo berrestea ezinbestekoa da. Eta zein batzordetik? Hirigintzakotik, nahiz eta onuragarria izan daitekeen Euskara & Kultura Batzordeari entzutea ere. Gainera, udalek barne organigrama desberdinak dituzte, normala den bezala.

Gauza jakina da zenbait etxegintza enpresak eta beraien arkitektuek aurreproiektua egin bezain laster hasten direla urbanizazio berriaren publizitatea egiten, euskal izenik barregarriena, erdal izen topiko bat ez denean, bultzatuz, Udalaren eskumen eta prozedurak, lotsagabeki, baldintzatuz.

Hau guztiarengatik, udal ordenantzetan, hirigintzakoan edo euskarakoan, edota bietan, prozedura argi eta zehatz bat finkatzea litzateke bidea. Ene aburuz, lege>eskumen>prozedura hauek segituz:

1. Eusko Legebiltzarreko 1982/10 Legea.
2. «Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases del Régimen Local», udalaren eskumenak bermatzeko, batez ere, goragoko Administrazioen aurrean.
3. Batzar Nagusietako Foru Arauen ezagutza zehatza udal eta kontzeju izen, errepide eta gainontzeko seinalizapen arloetan, bai udaletxe barruan erabakitzeko orduan eta, baita ere, diputazio eta gobernuei udal dermioan, bete dezatela eskatzeko ere.
4. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, nahiz Espainiakoak, euskal toponimiaren normalizatzeko indarrean jartzen dituzten dekretuen artikuluak eskuratzea. Ezinbestekoa da udal idazkariaren, edota, udalak hitzartuta duen aholkularitza juridikoaren partaidetza eta laguntza.
5. Udal bakoitzaren ordenantza edota ordenantzek, gai honetaz, konkretuki, diotenaz jabetzea. Ordenantzak diodanean, bereziki arau subsidarioetakoak, euskarari buruzkoak edota udalaren barne ibilbidekoak aztertu beharko lirateke, alde batetik, euskal toponimiaren mesedetan eta elkarrekiko kontrajarriak ez daitezen izan.
6. Udal bakoitzean zer prozedura segitzen den kontzeju, hiriburu, biztanle entitate, auzo, kale, industrialde, parke eta beste izendatzeko jabetzea. Arbitrarietatea erabiltzen bada ere, ezagutu behar da.

7. Guztiarekin, Euskara Zerbitzuak, teknikariak edo itzultzaileak, puntu hauez *vademecum* bat izan beharko luke beti, beste edozein zerbitzuk bezalaxe.

Zeren eta nago ni, amaitzeko diot hau, euskara zerbitzuek, dauden udaletan ere, ez ote diren «maria» gisakoak hirigintza zerbitzuekin konparatuz, edota, euskara teknikariek, euskal filologian lizentziatuak izan arren, ez dutela arkitektu teknikoen mailarik, nahiz eta hauek diplomatura soila izan. Hau behin baino gehiagotan aldarrikatu dut, egia esan, arrakastarik gabe. Utz dezagun gai hau beste egun baterako.

TOPONIMIA IKERKETAK: PROZEDURA ETA URRATSAK

Mikel Gorrotxategi Nieto

EUSKALTZAINDIAREN EGINKIZUNA TOPONIMIA LANETAN

Euskaltzaindia dugu Euskal Herri osoko hizkuntza erakunde bakarra, nahiz eta Frantziako eta Espainiako egoerak desberdinak izan. Legezko aholkularia da Nafarroan eta EAEn. Azken honetan irizpenak eman behar ditu, udal edo kontzeju izenak aldatzeko baina, harrigarria bada ere, ez da irizpena esaten dena bete behar. Ondorioz, badira erakundearen iritziaren kontra onartutakoak *Eskuernaga* edo *Ekora*, esate baterako.

Lehenago Lizundia jaunak azaldu duen bezala gainontzeko izenen idazkera finkatzeko eskuduntza oso nahasia da.

Azken urteotan gero eta erakunde gehiago jarri da harremanetan Akademiarekin toponimia dela eta. Batzuk (IGN, FEVE, Gobernu eta diputazioak...) batez ere erabiltzen dituzten izenen egokitasuna bermatzeko; beste batzuk, udalak bereziki izendegiak zuzentzeko edota ikerketatan laguntzeko.

Batzordeak 1986an egin zituen lehenengo Onomastika Jardunaldiak eta orduan hasi zen udalekin batera toponimia ikerketetan parte hartzen. Lankidetza honetan egindako horrelako lan batzuk *Onomasticon Vasconiae* bilduman ageri ziren geroago[1]. Beste batzuk, berriz, herrietako kartak egiteko erabil izan ziren. Azkenik, inoiz lanak argitaratu dira aipatutako bildumatik kanpo.

Horrelako lanak gero eta ugariagoak izanik Akademiak sortu berri zuen Onomastika Zerbitzuaren barruan sartu behar izan zuen udalei aholkularitza ematea; herri agintariei, bereziki udalei, behar bezalako aholkularitza eman eta horrelako lanek batasuna eta maila akademiko antzeko izateko. Aholkularitza zerbitzu hau EUDEL eta Euskaltzaindiak duen hitzarmenaren barruan kokatzen da eta hiru atal nagusitan banatzen:

– Udalei onomastika alorrean zer egin dezaketen eta nola burutu azaldu.
– Ikerketa aurrera ateratzea erabakitzekotan udalari lagundu.
– Ikertzaileak trebatu eta gainbegiratu hasi aurretik eta ikertu bitartean.

---

[1] Lehengoa Angel Mª Elortegik eginiko *Pasaiako toponimia* izan zen eta azkena Kristina Pavok idatzitako *Antzuolako toponimia* Onomasticon Vasconiae bildumako 8. eta 25. zenbakidunak.

Euskal Herrian betidanik izan da toponimiarekiko zaletasuna eta zaletasun hau loturik egon da euskararen aldeko jarrerarekin. Horregatik aspaldian ekin zitzaion toponimia bilketa lanak egiteari. Tamalez, ikerketa asko helburu zehatzik gabe egin ziren eta, horrek, askotan, lanen erabilgarritasun txikia eta, zergatik ez, maila akademiko eskasa ekarri du. Horregatik holako lan bati ekin baino lehenago udalekoek, langile zein zinegotziek jakin behar dute zer egin daitekeen onomastika alorrean eta zertarako. Ez du balio horrelako lanei ekitea modan dagoelako edo ondoko herrikoek ere egin dutelako.

Helburuak eta abar finkatutakoan administrazio lanak hasi behar dira. Horrelakoak Felix Mugurutzak azalduko ditu, baina azpimarratu nahiko nuke udalek egindako dokumentazioa, eta udalek deus ere egiten ez dutenez, teknikari batzuek egindako lanak direla guk ditugun ereduen oinarria (CDan dituzue):

– Beka deialdia.
– Enpresa bat kontratatzeko oinarriak.
– Euskaltzaindiarekin burutu beharreko hitzarmena.
– Eusko Jaurlaritzari duen materiala eskatzeko gutuna.

Azkenik, lan berari ekiteko Patxi Galék sortu zuen aplikazio bat *access*[2] programan. Aplikazio hori horrelako ikerketak bideratzeko sortu zen eta erabat bateragarria da Euskaltzaindia egiten ari den ECO egitasmoarekin.

1. IKERTZEKO ETA ARAUTZEKO ERAGOZPENAK

Ezaguna denez Euskal Herrian euskara ez da eremu guztian berdin erabiltzen; leku batzuetan galduta dago, beste askotan galduta izan ez arren, ez da gehien erabiltzen dena, eta beste batzuetan, aski ongi dagoela pentsa genezake, nahiz eta hizkuntza bakarra oso eremu txikietan (auzoetan) izan. Egoera, honek baldintzatzen du toponimoak jasotzeko lanak eta toponimoen arautzea.

Oro har, Euskal Herria lau zati nagusitan banatu ahal dugu:

A) Eremu euskalduna

Inguru honetan arazorik handiena izaten da arututako izenaren onarpena. Patxik esan duen bezala, sarritan, ahoz erabiltzen den toponimoa eta estandarizatuta urruti egoten dira eta joera dago ahozko bertsioa jatorragotzat jotzera. Hau begi bistakoa da sekula ofizial izan ez diren izenekin. Herri batean auzo batek izen ofizial ezaguna izan duenean jendeak badaki ahoz erabiltzen bertsioa

[2] Baten batek galde lezake zer dela eta hautatu den programa hau. Orain arte erabili dugu eta ez genuen diru baliabiderik enpresa bati berri bat agintzeko. Hala ere, prest gaude iradokizunak entzuteko.

ahozkotasunari dagokiola, eta *Iburre*, *Iborla* edo *Satamo* esan arren, zein den izena galdetuez gero *Ibarruri*, *Ibarrola* eta *Zaratamo* direla esango dizute. Hau da, munduko gainontzeko leku zibilizatuetan gertatzen dena eta *Güerba, Zebiya* edo *LA* esaten dutenek *Huelva*, *Sevilla* edo *Los Angeles* idazten dute.

Egoera hau bereziki zabalduta dago Iparraldean bertako izen ofizialak eta euskarazkoak, jatorri berekoak izan arren, urrutiago baitaude, idatziz eta ahoz: *Ibarrolle* («*Ibarol*») <> *Ibarrola* («*Ibarla*»).

B) Azken mendeotan erromantzatutako ingurua (XVIII, XIX y XX)

Euskal Herriko eremu zabalenetakoa da hau, bertan sartzen da Arabako lautada osoa, *Gorbeialdea* eta *Aiaraldea*; Nafarroako eremu handia Sakanatik Erronkariraino eta Bizkaiko mendebaldeko zati bat. Inguru honetan euskal izena oso gardenak izaten dira eta arazorik handiena euskal espezifikoz eta erdal generikoz osatutako toponimoek osatzen dute: *Otxaran de Abajo*, *Peña de Apuko*... Izenak arautzean sortzen diren aldaketen onarpena ere ez da berbera eremu osoan, mendebaldean eta Araban askoz ere handiagoa baita.

C) Aspaldian erromantzatutako gunea

Inguru honetako egoera korapilatsuena da, garai eta bilakaera desberdinak baitugu. Soziologikoki aurrekoa baino heterogeneoagoa da. Inguru batzuetan euskararen aldeko joera nabaria dago eta prest leudeke edozein aldaketa egiteko, handia izan arren. Beste batzuetan, berriz, jarrera ez da hain zalea eta ez dute aldaketarik onartuko, bien artean legoke nolabaiteko elebitasuna onartzen duena. Bizkaian, esaterako, euskararen aldeko joera da nabaria –batez ere herri txikietan– eta ez dute eragozpenik jartzen.

D) Eremu erromantzea

Ezaguna denez hegoaldean eta mendebaldean badira aspaldian erdaldundutako eremuak eta agian sekula euskaldunak izan ez direnak.

1) Udal ikerketak

Argi dago hemen aurkezten dugun metodologia ez dagoela itxita eta tokian tokiko beharrizan eta baliabideen arabera moldatu behar dugula. Nolabait esateko, hemen aurkezten dugu egin behar den lanik osatuena, baina errealitateak erakusten du sarriegi diruak baldintzatuko duela ikerketa hasiera-hasieratik.

Proposamenok ez dira Batzordean besterik gabe sortu, urte askoren eskarmentuaren ume dira eta etengabe osatzen eta egokitzen ditugu. Lana, beraz, ez da bakarrik Akademiarena, barruan txertatu dira ikerle askoren urteetako lanak eta esperientziak, ikerlari horiei guztiei eman behar dizkiegu gure eskerrik beroenak.

1) Zertarako ikertu?

Hizkuntzalaritzan zein biologian edozein ikerketari edo lani ekin baino lehenago argi eta garbi eduki behar dugu zertarako egiten dugun, zer den jakin edo aurkitu nahi duguna. Gure kasuan, beka deialdietan horrelakoak ikusten dira:

> Kontuan izanik Obabako toponimia oraindik jaso gabe dagoela, eta gure kultur ondarearen zati garrantzitsu bat dela eta bertako hainbat toki, baserri, iturri, mendi izen eta abar desagertu aurretik jaso eta aztertzea komeniko litzatekeela, Udal honek, beka eskainiz deialdia zabaltzen du ondoren azaltzen diren oinarrien arabera:

Baina, hitz eder horien atzean zer dagoen argi eta garbi izan behar dugu lanari ekin baino lehenago. Ezin dugu egin modan dagoelako, euskaltzaleak garelako eta herri administrazio batek diru-laguntzak ematen dituelako, inoiz gertatu bezala. Are gutxiago ondoko herriek egin zutelako, inoiz ahopean esan didaten bezala.

Toponimia ikerketak Unibertsitatetik zuzendu direnean, antzina *tesina* delakoetan eta gaur egun Doktore Tesietan, helburua inguru zehatz baten toponimia ahalik eta ondoen **ezagutzea** izan da. Normalki honelako ikerketan emaitza unibertsitate munduari eskainitako liburu handi, eta gehienetan zaila, izaten da eta ikertutako toponimia horren erabiltzaileak ikerketatik kanpo gelditzen dira, antropologoek Afrikan egiten zituzten ikerketetan bezalaxe. Lan hauetan bildutakoa aztertzen zen hizkuntzalaritzaren ikuspegitik ikertutako ingurua hobeki ezagutzeko, baina helburuen artean ez zegoen tokian tokiko toponimia indarberritzea edo gizarteratzea. Neurri batean esan dezakegu liburukote hauek delako inguruaren toponimiaren harlauzak direla, baina harlauza usaina duten lan hauek unibertsitateak egiten ditu eta ezin zaio eskatu erakunde horri udal edo diputazio bati dagokion lana egitea.

Hasieratik argi izan behar ditugu **helburuak**, eta ez helburua, horrelako lanetan anitzak izan behar baitira. Egia da helburu nagusi bat dagoela, kultura ondarea den toponimia babestea; baina helburu nagusi hori betetzeko bitarteko asko daude. Lehengo eta behin ikerketa dugu, ezin baita ikertu gabe ezer sendoa egin eta azkenik herritarrek ondarea ezagutu eta erabiltzea, azken puntu bi hauek ezinbestekoak baitira toponimia, zein hizkuntzaren beste alorrak, salbatzeko.

Kasu honetan herri agintariek bideratutako ikerketaz ari gara eta ezin dugu alde batera utzi herri diruaz egiten denak sortu duen gizartean izan behar duen oihartzuna. Ezin dugu ahantzi udalak batzuek ikertzen duenean udal horretarako biztanleentzat ari da lanean.

Babeste horretan ezinbestekoak diren epeak, geroago Felix Mugurutzak garatuko dituenak atal nagusi bitan bana ditzakegu:

A) Administrazioaren erabilera. Izenak finkatutakoan administrazio guztiek erabili beharko lituzkete eta eremu pribatuan egitera behartu.

B) Biztanleen artean zabaltzea behar diren baliabideak jarriz erabilia izan dadin.

2) Ikerketa motak

Ikerketa aurrera eramateko era bat baino gehiago egon daitekeen arren, hiru mota nagusi azpimarratuko ditugu:

a) Boluntarioen bidezko ikerketa
b) Beka deialdia
c) Enpresa baten kontratazioa

Hirurak erabili izan dira eta hirurek dituzte alde on eta txarrak.

Boluntarioen bidezko ikerketa

Inoiz egin da, batez ere antzinako garaietan eta baliagarria izan daiteke, batez ere eremu urriko udaletan. Herriko talde bat integratzekotan inongo emaitzarik onena lor liteke ez baita goitik beherako ekintza izanen eta herritarren babes handiena izango du. Barrundian, esaterako zeintzuk izen seinaleztatu behar ziren kontzejuetako bileretan eztabaidatu zen. Arautze lana Onomastika batzordeak egin zuen, baina herriz herri azaldu ziren aldaketa guztiak. Azkenean, toponimoak lekuan jartzean herritarren aholkua bildu zen. Egitasmoari amaiera emateko parte hartu zuten guztiekin bazkaria egin zen. Horrela lortu da herritarrak toponimiak duen garrantziaz jabetzea eta bere egitea. Inoiz estakaren bat erortzekotan herritarrak arduratuko dira berea den ondarea babesteaz.

Beka deialdia

Ohikoena eta merkeena, eta bereziki gaur landuko duguna, nahiz eta enpresa baten bidez egindakoaren antza handia izan. Bekak duen onurarik handiena formazioan datza, bide ematen baitu ikerlariak sortzeko.

Enpresa baten kontratazioa

Kasu honetan gonbitea erabiltzen da gehienetan ez baitago lan hau aurrera eraman dezakeen enpresa gehiegi. Horrela egiteak baditu alde onak, baina arriskutsua izan daiteke aurkezten den enpresak ez badu behar bezalako mailarik, ez baita gauza bera herriko karta edo mapa egitea, beste batek emandako datuak erabiliz, edo ikerketa bat burutzea.

Bestelakoak

Azkenik ezin da ahaztu batzuetan unibertsitate ikerketa eta udalarena uztartzen ahal direla eta udalek lagundu beharko liekete herriko toponimia ikertzen edo ikertzeko asmoa dutenei.

3) Lanaren epeak

Hau oso inportantea da. Udal batek bideratutako lanak hasiera eta amaiera izan behar du. Ez da posible amaitzen ez den lan bat planteatzea. Udal batek, diru baliabide ugari dituelako behin betiko ikerketa egitea erabakiko balu tarteko geldiuneak egin behar izanen ditu lana amaitu arte itxaron gabe.

A. Deialdia

Arruntena izaten da oinarriak Aldizkari Ofizialean argitaratzea, baina toponimia ikertzea ez da lan arrunta eta hori baino ez egitekotan normalena izanen da inortxo ere ez aurkeztea; karrera amaitu berri den jendeak ez baitu izaten bere irakurgaien artean bere lurraldearen Aldizkari Ofizialia. Beraz, deialdia egin baino lehenago berria zabaldu behar da ahalik eta hautagai gehienek honen berri izateko. Hau ez da txantxetako gaia, inoiz gertatu baita deialdia hutsik gelditzea.

– Beka egingo dela zabaltzeko bide arruntenak honakoak dira:
– Historia eta filologia departamentuak.
– Ikertuko den inguruko egunkari eta aldizkariak
– Inguruko elkarte kultural eta euskalgintzakoak.
– INEM
– Udal bandoa
– Inguruko ezagunak, bereziki herri txikietan

Dena dela jakinarazpenarekin batera laguntza ere eskaini behar da. Normalki jendeak ez du gaia ezagutzen eta aurkezteko beldur izaten da. Beldurrak usatzeko laguntza eskaini behar zaie eta esan Onomastika Zerbitzua prest dagoela hasiera-hasieratik laguntzeko.

Behin egingo dela ongi zabaldu eta gero, orduan bidaliko dugu Aldizkari Ofizialera.

B. Adjudikazioa

Oinarrietan biltzen da hautagaiak aztertuko dituen epaimahaiaren osaketa. Bertan, zentzuzkoa den bezala, horrelako ikerketen eta metodologia ongi ezagutzen duen jendeak egon behar du, horien eginbeharra kurrikulua eta aurkeztutako txostena aztertzea izanen baita. Hau behar beharrezkoa da, inoiz gertatu izan baita aurkeztutako eskarmentua edo txostena zeharo baztergarria izatea.

Oinarrietan biltzen da baloratuko dela inguruko euskararen ezagutza, eremu euskalduna baldin bada, eta inguruaren ezagutza. Hau, ez da huskeria; askoz ere harrera hobea izango baitu antzeko euskararen erabiltzailea denak, ahozko inkestetan esaten dena askoz ere hobeki ulertzeaz gain, gogoan izan behar baitugu ahozko bilketa adineko jendeari egiten zaiola.

Hori dela eta sarri kontatzen dudan gertaera azalduko dizuet.

Maite, ene orduko emaztegaia eta gaur egungo emaztea, eta biok Gorlizera joan ginen, Butroe ibaiaren inguruan kokatutako *Isusquiza* baserriaren euskal ebakera ezagutzera. Iruditu zitzaigun zuhurren zela errekaz beste aldean eta gorago dauden baserrietara jotzea, handik zuzen-zuzenean ikusten baitzen. Hori egin, eta aipatuko ez dudan baserri batera heldu ginen. Kanpoan zegoen berrogeita hamar urte inguruko gizonarekin hasi ginen berriketan.

Ezaguna denez, baserri horren lurretan txalet auzune berria eraiki zuten aspaldian eta leku turistikoetan egin eta egiten den bezala, izen «salgarriagoa» eman zioten: *El Abanico de Plencia*. Jatorrizko izenaren etimoa argia da, *itsuski* landare izena, *Genista sp*, eta *–tza* ugaritasun atzizkia. Hala ere, Bizkaian ez da ohikoa *Itsuskitza* moduko izena, eta horregatik ikertu nahi genuen bertako ahoskera.

Etxearen aurreko aldean geunden berbetan eta datu asko eman zigun inguruaz, baina baserriaren izenaz galdetzean *Abanikue* zela erantzun zigun. Geuk beste izenik ezagutzen ote zuen galdetu genion eta ezetz erantzun. Ez genuenez erantzuna kutsatu nahi ez genion izenik proposatu, eta azkenean etxean beste inor ote zegoen galdetu genion. Gizonak baietz erantzun eta etxera hurbildu ginen. Etxera heltzean sukaldeko atea ireki eta barruan zegoenari hauxe esan zion: *Ama, suk selan esatensu Isúkitze*?

Horrelakoak gertatzea arrunta da, batez ere euskara sozialki oso bazterturik egon den inguruetan, baina ez da bakarrik euskararen auzia, askotan herri<>hiri arteko harremanetan kokatu behar da egoera hau. Sarritan herrikoak badaki haiek darabilten izena ez dela ezagun eta kanpokoek erabiltzen dutena erabiliko du elkar hobeto ulertzeko edota tontotzat ez hartzeko.

b. Ikerlaria

Euskal Herrian ohikoena izaten da horrelako ikerketak euskal filologian edo historian lizentziatuei eskaintzea, ikerlari trebeak ahantzi gabe. Horrelakoak ezin dira alde batera utzi eta, esate baterako, liburu on batzuen egilea den Goio Bañales Arte Ederretan dago lizentziatua. Baldintza hau, zer esanik ez, enpresen bidez egitekotan ere baliagarria da oso.

Baldintzetan biltzen da onomastika alorreko lanek edota ezagutzak puntuak ematen dituela, baina zail izaten da horrelako bat aurkitzea, ez baita Euskal Herrian onomastikari buruzko eskolarik ematen.

Behin ikerlaria hautatu eta gero, behar beharrezkoa da tutorea ikerlariekin biltzea trebatzean hastekoa. Normalki ikerlariak pentsatuko du bilketaren oinarria dela berehala egin behar den ahozko bilketa, eta ongi azaldu behar zaizkio lanaren metodologia eta epeak guztiaren arrazoiak ongi emanda.

Karrera amaitu berriko jendea baldin bada, ez du ezer ezagutuko toponimiaz, artxiboaz eta abarrez; baina lanari ekiteko gogo handia izango du.

c. Ikerlarien trebatzea, lekuan oinarritutako ikerketa

Normalki era biko ikerlari-gaiak ditugu, karrera amaitu berriak eta toponimian «zaletuadituak». Badirudi toponimian zaletuak diren horiek onenak izango direla, baina zoritxarrez, batzuetan zail da hartutako bizioak bere onera eramatea. Orain dela urte pare bat herriko toponimia 15[3] urte ikertzen aritu den ikerlari batek lortu zuen bertako beka ahozko bilketa egiteko, eta sekula egin den lanik txarrena egin zuen. Besteak beste kokapenak eta ahoskatutako izenak zuzentzen zituen bere ustez egokiena zena jarrita. Hain zen lotsagarria portaera, ezen ikerketan lagundu zion batek salatzeaz gain uko egin baitzion kobratzeari, harrigarria bada ere udalak ordaindu egin baitzion. Geroago, Udalak herriko karta egiteko bertako euskara teknikariak egin behar izan zuen bilketa berriro.

Honek ez du esan nahi toponimian ikertzen aritu direnak baztertu behar direla, gaia ongi ezagutzen duen bat lortzekotan inoizko emaitzarik onena lor baitaiteke. Horrela suertatu zitzaion, esaterako, Leioa eta Erandiori.

Baina kasu gehienetan zerotik hasten den ikerlaria trebatu behar da, eta hori izanen da Euskaltzaindiaren ordezkariaren eginbeharra. Lehenengo eta behin ikerlariari azaldu behar zaio ikerketaren ardatza lekua dela, eta ez, Euskaltzaindiak berak aspaldian egiten zuen bezala, izena. Kasurako, *Donostia, San Sebastián* edo *La Bella Easo* leku bat dira eta ondorioz fitxa bakar batean ageriko dira eta ez hirutan. Geroago askoz ere zailagoa den toponimoa zer den azalduko dio. Zaila benetan askotan geuk ere ez baitakigu non dagoen leku-izen eta izen arruntaren arteko muga.

Esate baterako, *Arrigunagako iturria* zer da? Toponimoa, *Durango* edo *Zabala* bezala, edo *Arrigunaga* inguruan dagoen gauza baten azalpena, *anbulatorioa* edo *udaletxea* bezala? Erantzun zaila. Horrelakoetan, hizkuntza bien arteko harremanak lagunduko digu eta erdaraz idatzikoetan la «*fuente que llaman Arrigunagaco iturri*» aurkitzen badugu leku-izena dela esan dezakegu. Baina zoritxarrez, gauzak ez dira hain argiak eta gure herri honetan *Castillo* edo *La Casería de Arriba* modukoak irakur ditzakegu gaur egun bizirik dauden *Gaztelu* eta *Goikoetxea* izenen ordez.

Baina ez da horretara mugatzen tutorearen lana, horretaz gain zein artxibo dagoen, non dauden nola joan eta bestelako zehaztasunak eman behar dizkie.

Horrekin batera aurkeztuko dizuedan datu-base erabiltzen ere trebatu behar dira. Lan hau ez da, ikusten denez, egun edo aste batera mugatzen, etengabe sortzen baitira zalantza eta galderak.

Baina beste arlo bi ere landu behar dira. Batetik inguru geografikoaren ezagutza. Ezinezkoa da toponimia ikerketa bat burutzea inguruaren nolabaiteko ezagutza izan gabe. Beraz, lanaren hastapenetan herritik ibili behar dira, minuta geografikoa lagun, topatuko dituzten izenak ulertzen eta kokatzen jakiteko.

[3] 37,56 kilometro zabal.

Horrekin batera mapak irakurtzen ere ikasi behar dute ikerlariek, ordenagailua bezain garrantzitsua baitira mapa hauek toponimiarako. Gaur egun toponimia ikerketak ez dira bakarrik toponimo zerrendak, izenak bere «testuinguruan» egon behar dute, mapetan ageri behar dira ahalik eta era errealisten, ez bakarrik paper zati baten gainean; eta hori egin ahal izateko ezinbestekoa da mapak irakurtzen jakitea.

d. Oinarrizko datuen bilketa

Zail da gaur egun horrelako lan bat zero-zerotik hastea, zorionez; leku gehienetan egoten baita oinarri bat. Komeni da, beste administrazioek egindakoa ezagutzea eta hori erabiltzea oinarri bezala geroko estandarizazioan laguntzeko. EAEren kasuan HPSri eskatuko diogu Deiker Institutuak berarentzat egindako lanaren kopia. Lan horretan hainbat toponimoren aldaera arautuez gain dokumentazioa eta mapak daude.

e. Jarraipen batzordea

Orian dela urte batzuk, aipatuko ez dudan udal batean, bertako euskara ikertzeko beka eman zitzaion ikerlari bati. Urtea pasatutakoan itzuli zen ikerlaria lana egiteke eta dirua itzuli behar izan zuen. Ondorioz, herri hartako hizkera jaso gabe gelditu da.

Hau ez da kasu bakarra izan, zorionez, baina bai txarrena. Erabiliko den dirua publikoa izanik behar da egiaztatu ongi erabiltzen ari dela eta horretarako baliabideak jarri behar dira. Horregatik aspaldian erabaki genuen ezinbestekoa dela lanaren egoera egiaztatzeko bideak sortzea, eta ondorioz, ikerlariek aldiro aurkeztu behar duten txostena aztertzeko jarraipen batzordea antolatzea.

Batzorde hau hiru edo lau hilabetean behin bilduko da eta betebehar batzuk izango ditu.

– Ordura arte egin den lana egiaztatzea eta ondorioz ordainketa onartu.
– Aurrerantzean egingo den lana zehaztu.
– Ikerlariei lagundu lekukoak edo baliabide desberdinak lortu.
– Zalantzak argitu.

Beraz, batzorde honetan ez dira bakar-bakarrik udal eta Akademiaren ordezkariak egotea, ezinbestekoa da herria ondo ezagutzen duten pertsonak ere egotea. Herritar hauek lagunduko dute zalantzak argitzen, hutsak zuzentzen eta ikerlari eta jendearen arteko zubi egiten.

Ohiko partaideak hauexek izaten dira:

Udalaren ordezkariak (zinegotzia, euskara teknikaria, hirigintzako ordezkaria), Euskaltzaindiaren ordezkaria eta tutorea, udalak izendatutako herriko aditu batzuk eta ikerlariak, jakina.

f. Ikerketa

Lanik ederrena, egiten dutenentzat eta ingurukoentzat ere, ikerketa bera gauzatzea da. Ikerketan zehar gora behera asko egongo dira. Bereziki zaila da dokumentazio lana sarritan ez baita ezer aurkitzen. Hala ere inoiz altxor batu ezinaren aurrean egongo dira eta pozaren pozez lan egin. Lanaren erdialdean datu asko bilduta daudenean ikerketa bidera ezina irudiko zaie eta Mongoliara alde egiteko gogoa izanen dute. Baina hasiko dira txukuntzen eta berehala ohartuko dira lanak merezi izan zuela. Azkenik, ikerketa ongi egin badute, lana udalari ematean beste 12 hilabete behar dituztela sentituko dute.

Ikerketaren epeak

Lanari ekin baino lehenago kronograma zehaztu behar dugu. Ezin dugu itsu-itsuan bete, baina ezinbestekoa da azkenean itolarri ibili nahi ez bada.

Kronograma

1. Iturrien balorazio eta hautaketa: liburuak, mapak, eskuizkribuak, artxibategiak...
2. Minuta toponimikoa: inguruari buruzko mapen hustuketa.
3. Argitaratutako liburuen hustuketa.
4. Artxibategien hustuketa.
5. **Hausnarketa eta datuen txukunketa**.
6. Ahozko bilketa.
7. Bildutakoaren azterketa eta hutsen bilketa eta zuzenketa.
8. Tutoreari lehengo idazkia ematea.
9. Tutorearen azterketa eta arautzea.
10. Jendaurreko aurkezpena.
11. Lanaren aurkeztea.

Segidan aztertuko ditugu puntu hauek bana banan.

1. Iturrien balorazioa eta hautaketa

Lehenengoko urratsa erauzi eta kontsultatuko diren iturrien hautaketa eta erauzketa izango da. Iturriak oinarrian hiru motakoak izango dira:

– Argitaraturiko iturriak edo iturri dokumentalak: argitaratuak diren lan ezberdinek osatzen dute mota honetako iturri multzoa. Historiari buruzko lanak edota dokumentazio historikoa biltzen dutenak dira.

– Artxiboetako dokumentuak: artxiboetan batik bat biltzen diren dokumentu ez argitaratuak dira hauek.

– Iturri kartografikoak: hauek argitaraturiko iturrien barruan sar genitzake, baina izaera berezia dutenez banatu egin nahi zian ditugu.

Argitaraturiko iturrien artean badira toponimia bilketetan aski ezagunak direnak eta erabili ohi diren liburuak. Ezagunak eta erabiliak izan diren neurrian, hautagaiak lirateke ere lan honetarako. Bestalde, izan litezke inguruari buruzko lan monografikorik, eta horrelakoak ere iturri bezala erabiltzeari ezinbestekoa deritzogu.

Argitaratu gabe dauden dokumentuak, aipatu bezala, artxiboetan daude batik bat. Dokumentazioa ugaria izan ohi da, are gehiago Erandioko Elizatea bezalako herriaren kasuan, beraz hautaketa eta mugaketa egitea ezinbestekoa gertatzen da. Horretarako artxiboetako arduradunen iritzi eta gomendioei jarraituko diegu. Oinarrizko irizpidea izango dugu, jakina, dokumentuetan ager litekeen toponimo kopurua. Era berean garai ezberdinetako dokumentuak aztertuko dira, lehentasuna zaharrenek dutelarik.

2. Minuta toponimikoa

Ezagupen geografikoarekin batera, eta jadanik argitaratua den maparen laguntzaz, minuta toponimikoa osatuko dugu. Minuta toponimikoa, toponimoez osoturiko kartografia iturri hutsa da. Honen laguntzaz inguru geografikoarekiko harremana estutu egiten da. Bilketa honek lagunduko digu ikerketan aurkituko ditugun izenak non kokatu ahal ditugun.

Izenak maparen gainean kokatzean koloreez baliatu ahal gara iturri desberdinak bereizteko, askotan mapen kalitatea ez baita beti berdina. Mapen hautaketa egitean bereizi behar dira lehen eskuko lanak, ikerketa baten ondorioz zuzenak direnak, esate baterako 1926an BFAk egindako mapak, edo bigarren eskukoak. Azken hauek beste batzuen kopia izanik ez dira hain garrantzitsuak eta gainera nahasgarriak izan daitezke. Esate baterako, toponimo bat hamar mapetan aurkitu ahal dugu eta ondorioz erabat fidagarria dela pentsatu eta erresultatu guztiak direla hasierako huts baten kopia.

3. Argitaratutako iturrien erauzketa

Minutarekin batera argitaratutako iturrien erauzketa egingo dugu. Erauzketa hau nahiko azkarra izaten da, eta erraza, ez baitu interpretazio paleontologikoen beharrik. Gainera askotan historia edo etnografiarekin loturik dagoenez, toponimia ulertzeko baliagarria izan daiteke. Esate baterako, *Historia de Getxo* irakurtzean ulertuko dugu zer dela-eta San Martin kalea San Nikolas elizaren aurrean dagoen eta ez San Martin elizaren aurrean, eta horri ezker *San Martinaldeak* izeneko alorra dagokion auzoan kokatuko dugu.

Liburu edo iturri hauetan ageri den informazioa oso heterogeneoa izaten da, baina ahalik eta zehaztasun gehienez bilduko da. Azalpen geografiko edo historikoak ematen baditu, azalpen osoa bilduko genuke. Gainera lan berean behin baino gehiagotan agertzen bada toponimo bera, guk ere hala jasoko dugu, hainbatetan alegia.

4. Artxiboetako dokumentazioaren erauzketa

Artxiboetako dokumentazioa kontsultatu eta datuak erauztea da hurrengo lana. Lan honek denbora luze emango du, ikerketaren bi eren izaten baita. Baina jakina, hemen hautaketa zehatza egin behar da gehienetan ezin baita artxibo osoa epearen barruan aztertu.

Udal edo kontzejuaren artxiboa: Egotekotan emankorrena eta zenbait lekutan aztertzeko handiegia ere izan daitekeena. Segida diakronikoa egoteaz gain izenak testuinguru zehatzean ager daitezke. Ezin bada osorik aztertu zaharrenari emango diogu lehentasuna eta beste mendeotan lagin batzuk egingo ditugu.

Foru artxiboa: Bizkaiko kasuan korrejimendua da emankorrena Sutegiak eta Baso Liburuaz[4] gain. Sutegiak bi aldiz argitaratu dira baina argitalpen bi horiek bigarren mailako iturriak dira.

Protokoloak: 1900 baino lehenago Notarioek egindako dokumentuak dira. Kasu batzuetan Jabetza Ganbara izango zenaren aurreko zerrendak daude. XVI. mendetik aurrera oso aberatsa izan daiteke, nahiz eta sarri astun samarra izan.

Jabetza Ganbara: XIX. mendearen erdialdean sortu zen. Lehenengo eta behin zerrenda alfabetikoak azter daitezke, eta gero beharra eta denbora izatekotan sarrerak. Hala ere, bertan sartzea ez da beti erraza izaten eta Akademia eta udalaren gutuna behar izaten da sartu ahal izateko.

Osagarri gisa beste artxiboak erabil daitezke, elizbarrutiarena, Valladolid edo Simancas. Elizbarrutiarena emankorra izan daiteke elizaren ondarez gain, eta ezin dugu ahantzi eliza lur askoren jabe izan zela, sarritan baserrien zerrendak agertzen direlako. Hala ere, genealogiazalez beterik egoten da, eta aldez aurretik eskatu behar da txanda. Guztiarekin ere, Euskal Herrian ezin gara kexatu txukun eta kontsultagarri daudelako. Santanderreko elizbarrutiko artxiboa *Santillana del Mar*-en zegoen, astean hirutan irekitzen zen goizez. Sartzen lortzen baldin bazenuen, oso leku urria baitzegoen, artxibozainarekin mintzatzeko tornua zenuen klausurako moja baitzen.

Ezin dugu ahantzi lana ahalik eta zehatzen izan behar dela eta izenak idatzirik agertzen diren moduan jasotzeaz gain testuingurua ere bildu behar dugula ikerketarako baliagarria izan daitekeela uste baldin badugu:

> […] las heredades [Gardena baserriarenak] Sausolo, Seiguisalana, lauguisalana, Arteondoa y Amaguisalana, que se hallan en un perímetro ó conjunto que contienen diez y siete mil setecientos metros cuadrados, confinnado por saliente con heredad de Aguirre barria […] las heredades llamadas Madariaga-ondo, bosguisalana, seiguisalana y lauguisalana que se hallan en un perímetro conjunto

[4] XVIII. Mendean eginiko *Libro de Montes* izenekoa.

> [...] la heredad llamada Ugalde Solo que contiene cuatro mil ciento cuarenta y seis metros cuadrados de superficie y la sierra argomal Ugalde Sarra, que contiene cuatro ciento cuarenta y seis metros cuadrados, hallandose las dos en perimetro, confinan por saliente con pertenecidos de la caseria llamada Echechu, correspondiente [...] y con iguales peryenecidos a la caseria llamada Echechu,y con iguales pertenecidos de la casería llamada Mendoza osteingoa, correspondiente al referido Francisco de Barcena y de Echebarrisarra, del citado Bolloqui, por poniente con heredades de la caseria de Madariaga propia de la misma [...][5]

5. Hausnarketa eta datuen txukunketa.

Idatzizko iturriak hustean, ahal den neurrian datuak atontzen joango gara. Baina ikerketaren zati hau noizbait amaitu behar da eta aurrera segitzeko denboratxo bat behar da datuak txukun eta argi jarri eta aztertzeko. Azterketa honek balioko digu, batetik, hutsunerik dugun ala ez jakiteko, eta bestetik hurrengo zatia, ahozko bilketa, prestatzeko.

Txukunketa lana amaitzean izango dugu bildutako toponimo asko kokatuta bai hasieran egin genuen minuta toponimikoaren bitartez, bai testuinguruaren bidez, gorago ikusi bezala. Baina izango ditugu izen batzuk, edo asko, kokaturik gabe. Agian izango dugu baserri bat dokumentatuta, baina izen hori ez denez gaur egun erabiltzen ezin mapan kokatu.

Getxon, badira XVI. mendetik oso ongi dokumentatzen diren *Larrazabalatzekoa* eta *Larrazabalaurrekoa* baserriak. Gaur egun *Moreagatze* eta *Moreagaurre* deitzen dira, izen berri hauen lehenengo aipua 1939ko dela.

6. Ahozko bilketa

Ez dago ahozko bilketa egiteko erregela finkorik, norberak bere erarik erosoena asmatu edo aurkitu behar du, baina badira segitu behar diren puntu batzuk eta eman daitezkeen aholkuak.

Kronograma honetan argi utzi dugu ahozko bilketa, jendeak kontrakoa uste badu ere, ezin dugula hasieran egin, arrazoia erraza da ulertzen. Galdetu Mungiako bati zeintzuk udal daude Txorierri eta Uribe Kostan edo Goierriko bati zeintzuk herrik osatzen dute eskualde hori. Nekez esango ditu guztiak ezagutzen baditu ere, bat-batean ez direlako izen guztiak gogoratzen. Beraz, ahozko bilketa ez da arratsalde batean egiten den solasaldi lasaia oso ongi presaturik eraman behar den lana baizik.

Informatzailearen hautaketa:

Urte batzuk jarduera honetan daramatzagunok Corominas eta bere garaiko ikerlari handiengandik ikasi genuen herri bateko toponimia biltzeko herrian

[5] Iratxe Lasak Erandion egindako bilketa.

bertan jaiotako gizona hautatu behar zela, ahal zela artzaina eta herritik irten ez zena. Konturatu behar gara nekazarien munduan emakumea ez zela basomutil, olagizon edo artzain izaten eta ondorioz ez duela basoa ezagutzen. Hau ez da toponimia ikerlarien uste hutsa. XX. mendearen hasieran egin ziren dialektologia lanetan arau bat zen emakumeei ez galdetzea, suposatzen baitzen basolan edo artzaintzaren ezagutza faltak galdera batzuk hutsik agertzea lekarkeela. Gure kasuan, gainera, euskalduna, nahiz eta euskara desagertzeko zorian egon.

Hau ez da zuzena!

Argi dago horrelako informatzaileak izaten direla neutroenak eta garai bateko toponimiaren isla emateko egokiak direla. Ondorioz, horrelakok izango dira gehienak. Baina haratago joan behar dugu. Dialektologian aritu direnek aspaldian deskubritu zuten emakumeen mintzairak gordetzen zituela gizonezkoenak ez zituen berezitasunak eta horiek ere entzun eta ikertu behar zirela. Gure kasuan ez dirudi emakume eta gizonen toponimia desberdina denik eta lanean sexu banaketa egon den arren, ez dago bereizketa egiteko arrazoirik.

Oso interesgarria, baina bereziki zaila izango litzateke gizartetik alde batera bizi direnen toponimia ikertzea. Herri askotan egoten da familiaren bat gizartetik alde batera bizi dena. Sarritan bere euskara arkaikoagoa izaten da, eta modetatik urrunago bizitzean toponimia ere arkaikoagoa izan daiteke. Horiekin batera joan zirenen ahotsa ere entzutea aberasgarria litzateke. 18 edo 20 urterekin alde egin zuenak bere gaztaroko toponimia eraman zuen eta ez badu harreman handiegirik izan orain dela urte asko desagertu zen mundu baten berri emango digu. Neuk gogoan dut orain dela 20 bat urte, orduan 95 urteko aitaren osaba zaharrak Mexikotik bidaltzen zituen gutunetan txikitako oroitzapenak biltzen zituen. Gutun batean 1898 inguruan egindako bidaia baten berri ematen zigun, eta meatzariek jandako mendi bat deskribatzen zigun, benetan harrigarria izan zen guretzat gaur egun zulo ikaragarria dagoen lekuan haitz gorri bat zegoela jakitea.

Baina toponimia ez da hilda dagoen zerbait, bizi-bizirik dago eta horregatik komeniko litzateke beste iturri batzuk ere aztertzea.

Lehengo eta behin herriko erdaldunak. Herri guztietan, edo gehienetan, egoten dira familia batzuk bertakoak izan arren, erdaldunak direnak; batzuk azken belaunaldian erdaldundu dira eta beste batzuk berriz aspaldian. Interesgarria da oso horrelakoek euskal toponimia nola erabiltzen duten, euskaratik hartua edo erdaratik eta nola ahoskatzen dituzten, esaterako, erdaraz ez dauden soinuak. Seguruenik *Zarauz* gaztelaniaz esango dute, baina gerta liteke baserri izenak euskaraz erabiltzea eta *Imatzenea* edo *Beamakoselaya*.

Horiekin batera etorkinak ere aztertu beharko genituzke. Leioan Iratxek izan zuen lekuko on bat umetan Andaluziatik etorritako gizon bat izan zen. Erdalduna izan arren, baserri izenak euskaraz erabiltzen zituen.

Azkenik benetan interesgarria izango litzateke azken etorkinek nolako toponimia ikasi duten jakitea.

Horrenbeste lekuko aurkitzeko ezinbestekoa da herritarrek parte hartzea, eta hau bideratzea da Jarraipen batzordearen eginkizunetako bat. Baina ez bakarrik batzordearen lana, udalak lagundu egin behar dio batzorde honi behar diren baliabideekin. Udal batzuetan gutun bana igorri zitzaien adin batetik aurrerako guztiei, besteetan aski izan zen Jarraipen batzordekoek ezagutzen zituztenekin sare bat antolatzea. Azkenean sare bat osatzen bada eta urliak emanda etortzen bazara

Metodologia:

Ero bakoitzak bere erotasuna dio esaera zaharrak eta hemen ere hala bada ere badira, gorago esan dudan bezala, bete behar diren gutxieneko baldintza batzuk.

Minuta toponimiak izen multzo bat eman zigun kokatuta, baina ezin dugu inondik inora pentsatu guztiak ongi kokaturik zeudenik. Kokaturik ditugun horietaz gain, badugu beste multzo bat dokumentazioan bildua. Batzuk kokatuta daude, lehenago ikusi dugun bezala; beste batzuk, berriz, erdi kokatuta eta azkenik banaka batzuk zeharo galdurik.

Beraz, izenak biltzera goazenean lau lan egin behar ditugu:

– Lehenengo eta behin egiaztatu behar dugu kokaturik ditugunak ongi kokatuta ditugula.
– Bigarrenik gutxi gora behera kokaturik ditugunak kokatu.
– Hirugarrenean zeharo galdurik ditugunak kokatzen ahalegintzea.
– Azkenik, izen berriak biltzea.

Eta praktikan nola egiten da lan hori?

Ez-jakinak pentsatuko du ahozko bilketa egitea baserriaren aurreko aldean solasean aritzea dela, baina erabat oker dabil. Bilketa hau fase desberdinetan egiten da eta gehienetan emankorragoa da pertsona bi edo hiru, sekula ez gehiago, batera elkarrizketatzea.

Gauzatzen den lehengo inkesta librea izango da, baina ez gara esku hutsean agertuko. Komeni da bi pertsona joatea, bat elkarrizketaz arduratuko da eta bestea datuen bilketaz. Ahal dela elkarrizketatutakoak adin berekoak eta ezagunak izan behar dira.

Leku izenak mapan dagozkion lekuetan kokatzeko hobe da kalean egotea, baina elkarrizketa egiteko leku erosoa, eta mahai bat, behar da paper asko edukiko baitugu eskuartean. Beraz, ezin dugu arineketan eta edonola burutu. Lehenago lotu behar dugu lekukoekin eta patxadaz egin.

Izenak biltzeko bi euskarri erabil daitezke, ohiko mapa sestrakurbekin eta ortoargazkia. Biek dituzte alde on eta txarak. Pinuz landatutako leku menditsuetan zail da ortoargazkia erabiltzea, baina beste aldetik lursailak eta abar kokatzeko oso erabilgarria da.

Inportantea da, mapa edo argazkia den alde batera utzita, izenik ez agertzea lekukoek irakurtzeko eta ontzat emateko joera baitaukate. Gainera, zail izaten da lekukoek mapak ongi irakurtzen jakitea, eta hori dela-eta hobe da maparen gainean lanik ez egitea. Osagarri moduan mendi edo leku altuetatik egindako argazki panoramikoak eraman daitezke eta ordenagailuan ikusi. Eramango dugun mapan markaturik edukiko ditugu kokaturik ditugun izenak baina idatzi gabe, aski da dagokion zenbakia jartzea eta horrela kokapena egiaztatu ahal izango dugu. Kokatu gabekoez edo guk kokatuta ditugunak jaso ez ditugunez geroago galdetuko ditugu.

Izenez galdetzean zabaleraz ere galdetu behar da eta ahal bezain zehatzen adierazi mapa, toponimoen arteko jerarkia ongi azalduz. Ohikoa da mapen leiendan mailaketa txiki bat agertzea eta izen batzuk *aurkintza* direla esatea, sarritan tontorretatik berezita, baina hori ez da aski toponimia bilketa egitean. Mendian dauden izenen arteko harremana ez da beti berdina eta badira mendi malda osoa hartzen duten izenak eta oso eremu murritza dutenak; hori ere islatu behar da, beti ere mugak oso zalantzazkoak direla ongi gogoratuz. Horrelako lehenengo saioa Jose Antonio Gonzalez Salazarrek eginiko *Cuadernos de Toponimia Alavesa* liburu sortan ikus dezakegu.

Aurrekoarekin batera leku mota ere bildu behar dugu, baina gehiegi larritu gabe, sarritan inortxok ere ez baitaki leku bat zer den. Horren ondorioz sailkapenak oso malguak izan behar du. Esate baterako jauregi izandako baserri bat gaur landetxea baldin bada nola arautuko dugu? Zentzuzkoena etxe moduan sailkatzea litzatekeela dirudi. Baina horrelako lanetan inoiz horrelako aukerak eman dira: *eraikuntza isolatuak, baserri, etxe, txalet, dorre, aterpe, borda, txabola; etxola, ukuilu, bestelako eraikuntzak* eta *aurria*. Eta gutxi balitz *errota*, *dorrea* eta *jauregia*. Aukera ez da makala!!!! Baina zailagoa da *lur-erabilerak* atala bertan honelako aukerak ditugu:

> Basoak, baso edo oihan, zuhaizti; arboladi, ibarbaso; zaldu, pagadi, harizti, artadi, ezkamezti, amezti, pinudi, pinu-sail, eukalipto-sail, bestelako landaketak, mintegi, sastraka, sastraka, etze; alfer-lur, otadi, ezpeldi, txilardi, abarizti, gurbizti, elordi, iratze-leku, lahardi, larre eta belardiak, larre, belardi; belai, saroi, soilgune, kortabaso, lur landua, soro; alor, lehorreko lur, lur ureztatu, fruta-arbolak, olibadi, mahasti, ibar, baratze edo ortu eta larrain.

Argi dago hor agertzen diren erabilera batzuk oso zalantzazkoak direla eta gainera oso aldagarriak eta egiten ari garen lana amaitu baino lehenago bi aldiz alda daiteke eta pinudia zena egun ardantza edo sagastia izatea. Beste aldetik, Urkiolan dauden pagoei zein generiko dagokie? Zuhaitz motena: *pagadia*; erabilera: *atsedenlekua*; edo orografikoa: *ordokia*.

Aurrekoa ikusita askoz ere erabilgarriagoa den sailkapena proposatzen dugu. Hori bai, ahal dela benetako generikoa bildu behar da ahozko bilketa egitean, baina argia ez bada larritu gabe.

Gai hau huskeria dela pentsatu behar dugu, baina sailkapen honek aukera ematen digu gero zerrendak sortzeko eta horregatik behar dugu.

Bilketa, ongi egin nahi badugu ezin da behin egin. Lehengo saioa izango da luzeena, baina gero etxean landu behar da ahoz bildutakoa eta horretarako dago grabagailua. Makinan honen erabilera ere landu behar dugu, komeni da «markak» jartzea, izenak arinago aurkitzeko eta geroago ulertu ahal izateko pistak ematea. Hau da ikerlariak azalpenak ematea bertan: *Madariaga zer da mendi horen magalean dagoen baserria?* Hori egiten ez badugu grabaketan *hor, han, atzean* eta abar ehundaka aldiz entzungo dugu.

Ahozko bilketan egoten den arazoetako bat kaletar eta baserritarren artean dagoen munduaren ikusmoldea da. Esate baterako, kaletar batentzat *Gorbeia* gurutzea duen lekutxoa da; baserritar batentzat, berriz, leku hori *gaina* izango da *Gorbeia* osotasuna delako.

Landu eta gero ikusiko dugu gure zalantza asko argitu direla, baina beste batzuk ez daudela argitua horretarako dago bigarren saioa. Bigarren honetan galdera zuzenagoak egin ditzakegu eta izen zehatzez galdetu, ahal dela bertako hizkuntzara moldatuta. Esate baterako *Madariaga* izeneko lekua dokumentatu baldin badugu galdetzean *Madarixa* edo *Madaria* izenekorik ezagutzen ote duten galdetuko diegu.

7. Bildutakoaren azterketa eta hutsen bilketa eta zuzenketa

Bilketa amaitutzat ematean datu guztiak aztertuko ditugu eta lanaren behin behineko idazkia egin.

8. Tutoreari lehengo idazkia ematea.

Ikerlariak prestatuko du lanaren behin-behineko testua eta tutoreari pasatuko dio. Honek aztertuko du bildutako eta osatu behar dena azalduko dio. Horretaz gain, izenak ongi loturik ote dauden egiaztatu eta arautzeari ekingo dio.

9. Arautzea

Toponimiaren inguruan dagoen nahasketarik handienetako bat *arautzea* eta *normalizatzea* da, askotan gauza bera balira bezala erabili izan baititugu. *Arautzea* izenak nola idatzi behar diren zehaztean datza eta Akademiaren lana da. *Normalizatzea* izenak egoki erabiltzea da eta guztion lana da, bereziki herri agintariena eta Euskal Herrian euskaltzaleon lana.

Baina zer da izena normalizatuta egotea? Azaltzeko izen bi hartuko ditugu *Portugalete* eta *Aretxabaleta*. Izen bi hauek normalizatuta daude jendeak,

dagokion hizkuntzan, jakina, *Portu* edo *Atxabalta* baitarabil ahoz; baina idatzi behar duenean dagokion era arautua erabiltzen du. Ondorioz, izena normalizatuta egotea ez da mundu guztiak era arautua erabiltzea, izena egoki erabiltzea baizik. Hau erraz ikusten da mendez mende ofizialak izan diren hizkuntzetan, gaztelania edo ingelesean, esaterako. *Birminghan*, adibidez, erabat normalizatuta dago eta horregatik, normala den bezala, lagun artean *Bren* aldaera erabiltzen da. Batzuetan hizkuntza horietan ageri dira arauen kontrako izenak erabileraren poderioz araututa daudenak, adibidea da Nafarroako *Cordovilla*, etimologiaren ikuspuntutik *-b-* behar duena *Cordoba*-ren oihartzuna baitu.

Arautze lana askotan erraza da eta neurri handi batean eztabaidaezina, baina kasu batzuetan zalantza egon daiteke, eta hori dela eta, behin-behinekoa izanen da gizartean aurkeztu eta adostasuna lortu arte. Proposatuko diren izen batzuen idazkera gogorra izan daiteke, baina jendea orokorrean uste baino azkarragoa da, eta ongi azalduz gero, prest egoten da idazkera horiek onartzeko. Jendeari esan behar zaio toponimia guztion ondarea dela eta ezin dugula galtzen utzi. Baina ezinbestekoa da proposamenak eta azalpenak hasiera-hasieratik ongi ematea.

10. Jendaurreko aurkezpena

Lana herriko toponimiaren harlauza izatea nahi ez badugu jendeak erabili behar du eta erabiltzeko horren berri izan behar du. Gainera, jendaurreko aurkezpen honek balio du, oraintsu esan legez, arautzea zabaltzeko.

Dena dela puntu hau geroago jorratuko du Felix Mugurutzak

Baliabideak: programa, grabagailua eta mapak

I) Access eta ECO

Urte hauetan ikasi dugun gauzetako bat ikertzailea tresna egokiez hornitzea da. Era berean, lan guztiak antzera egin behar dira, eta ahal den neurrian bateragarriak izan behar dute. Hori dela eta, Patxi Galé batzordekideak *access* erabiliz programa bat sortu zuen. Programa hau bateragarria da Euskaltzaindiak duen ECO (*Euskal Corpus Onomastikoa)* egitasmoarekin. Azken ikerketetan espresuki biltzen da ikerketa datutegi horretan biltzea.

Baina programa ez da soil-soilik sortu ikerketa egiteko, ahal den neurrian geroago erabiltzeko ere aurrikusi da.

Programaren sarrera

Hau da gure programaren sarrera, zazpi ataletan banatuta

Botoietan dagoen lekua oso mugatua denez ageri den testuak oso laburra izan behar du eta ikasi arte apur bat ulergaitza izan daiteke.

1. **Lan Tresnak**. Bertan aukera hauek ditugu:
   a. **Leku fitxa**. Fitxa nagusia da eta hor ageri da lekuaren informazio guztia...
   b. **Fitxak iragazi**. Aurreko fitxen gainean egiten dira iragazkiak kokapena, entitate mota edo hizkien bidez.
   c. **Bilketa dokumentala 1**. Datutegi hau zuzen zuzenean erabiltzeko.
   d. **Bilketa dokumentala 2**. Datutegira *excell*, *word* edo *access*en bildutako datuak ekartzeko.
   e. **Era zurtzak lotu.** Guk dokumentu batean izen bat topatzean biltzen dugu datutegian, honi **era** deitzen diogu baina ez dago dagokion leku fitxarekin lotuta, horretarako erabiltzen da tresna hau.
   f. **Id barrutika:** Aurrekoaren aldaera eremu zabaleko udalerrietan erabiltzeko.
   g. **Loturak kudeatu**. Era eta leku fitxen arteko lotura kudeatzeko balio du. Besteak beste era bat leku birekin lotzeko aukera ematen du.
   h. **Ahozko bilketa 1**. Datutegi hau zuzen-zuzenan erabiltzeko.
   i. **Ahozko bilketa 2**. Datutegira *excell*, *word* edo *access*en bildutako datuak ekartzeko.
   j. **Ahozko zurtzak lotu.**

2. **Iturriak**. Bertan aukera bi daude:

   a. **Iturri dokumentalak**. Iturrien fitxa da eta bertan *laburdura, zenbakia, egilea, izenburua, argitaletxea, lekua, data, oharrak, mota* eta *hustuta dagoen ala ez* biltzen da.

   b. **Ahozko informatzaileak**. Aurrekoaren berdina.

3. **Iturrien txostenak**. Erabiltzen ari garen iturrien txostena automatikoki sortzeko prestatuta. Barruan ahozkoa eta idatzizkoak bereizten da:

   a. **Idatzizko iturriak**

   b. **Ahozko iturria**k

4. **Txostenak**. Barruan ondoko aukera daude:

   a. **Leku guztiak**. Fitxa osoa eta jasotako eren laburpena sortzen ditu.

   b. **Markatutako lekuak**. Markatu ditugun fitxa osoa eta jasotako eren laburpena sortzen ditu.

   c. **Iragazitako txostenak**. Aurrekoak bezala baina aukera batzuk eginda: *kokapena*, *entitate geografikoa* (etxea, erreka...), aurreko biak batera, *aurrizkia*, *atzizkia* eta *hitz zatia*.

   d. **Lekuen zerrenda**. Lekuen zerrenda alfabetikoa. Izenaz gain matrikula eta entitate mota ageriko da.

5. **Irudiak**. Argazkirik baldin badugu non dagoen jakiteko.

6. **Kodeketak**.

   a. **Objektu geografiko**(en) **txostena.** Objektu geografikoen txostena oso lagungarria da datuak biltzen fitxa betetzeko.

   b. **Barrutien txostena.** Euskal Herriko herri eta auzo guztiak agertzen dira. Normalki herri baten ikerketa egiteko herria eta ingurukoak baino ez dira agertzen erosoago lan egiteko.

7. **Glosarioa**.

   a. **Sarrerak.**

   b. **Glosarioa.**

   c. **Glosarioa adibeduna.**

Leku fitxa

Ikerketaren oinarria da eta hasieran nahiko erabilgaitza bada ere geroago lana erraztuko du.

Fitxa honetan lekuaren datu guztiak biltzen dira. Barruan ageri diren leihotxoetan ahoz eta idatziz bildu diren erak ikusi eta kontsultatu ahal dira.

Fitxa honetan honako datuak ager daitezke:

– **Izena**: leku horrek izango duen izen arautua. Lana egiten den bitartean behin-behineko maila izango du: **Barrena (-a).**
– **Matrikula**: Eskuinaldean ageri den zenbaki grisa. Ordenagailuak ematen du eta ezin da errepikatu.
– **Sinonimoak**: Leku horrek izan ditzakeen beste izenak, batzuetan jatorriaren aldaerak baina ez beti: **Arteaga, Barrenetxea, Mirandaetxea**.
– **Erdal era**: egotekotan gaztelaniazko izena.
– **Izen ofiziala**: Ez da gehienetan agertzen baian zenbait kasutan izan dezakegu.
– **Objektua**: zenbakiaz eta azalpenaz osatuta: *1.301 Etxebizitza (Eraikuntzak)*.
– **Generikoa:** Bertan erabiltzen den izen generikoa. Iragazteko oso baliagarria.
– **Hizkuntza:** Hizkuntzalaritza alorreko oharrak jartzeko gunea.
– **Oharrak:** Historia, etnografia edo beste edozelako oharrak jartzeko lekua.

Eskuinaldean eta azpiko aldean beste informazio osagarriak agertzen dira: UTM koordenadak, maparen zenbakia, kokapena, araututa dagoen ala ez eta *marka*. Azken honek txosten bereziak sortzeko aukera ematen digu.

Lanaren hastapena administrazioak ofiziala duena izanen da eta leku berriak sortu ahala fitxa berriak egingo ditugu.

Bilketa dokumentala 1

Datuak sartzeko menu bi ditugu. Lehenengoa, datu solteak sartzeko erabiltzen da eta, bigarrena, berriz, beste programa erosoagoetan (*word* edo *excell*) egindako bilketa handiak sartzeko.

Testuingurua	Era	Iturriko dea	Urtea	Errefe-rentzia	Oha-rrak	Non	Zer
...por la parte de avaxo el camino rreal que ba a las heredades de Ocorro e mas otra pieça que esta plantada mançanal en Boçunça-mendia.	Boçunçamendia	25	1538	CO MEJ 308		3.4.00.110	1.600
...por arriba con eredades de la casa de Boçunçamendia y sus dos castañales...	Boçunçamendia	25	1614	CO UEJ 190		3.4.00.110	1.301
Yten el mançanal que assimismo tienen en el termino de boçunça-mendia que alinda con hereda-des...	Boçunçamendia	25	1620	CO EEJ 642		3.4.00.110	1.600

Testuinguruak oso luzeak direnean hobe da testu sortzailea erabiltzea datutegietan deserosoa baita.

Era zurtzak lotu

Esan bezala bildu ditugun erak ordenagailuaren barruan egon arren lotu gabe daude «umezurtz» eta dagozkien leku fitxekin jarri behar ditugu harremanetan. Ahoz bildutako eretarako ere antzeko menua dago.

Menu honetan **Leku fitxa**ren zati bat daukagu eta beheko aldean loturik ditugu eren ordez umezurtz dauden era guztiak ditugu. **Lotu** azpian dagoen botoia sakatuez gero eskuinaldeko laukitxoan leku fitxan ageri den matrikula azalduko da eta aurrerantzean era hori eta leku fitxa loturik agertuko dira.

Lotura gaizki egitekotan ez dago ardurarik. Fitxa nagusian askatu ahal dugu eta.

Leku fitxa eta era fitxa

Leku fitxen beheko aldean erak ditugu, baina ez ditugu azpi-fitxa horiek osorik ikusten pantaila mugatuta dagoelako. Ageri diren botoitxoetan sakatzen badugu fitxa osoa ikusteko parada izango dugu.

Beste horren beste egin ahal dugu **era**-ren fitxa bibliografikoarekin

Loturak kudeatu

Menu honen bidez loturak kudeatzen dugu eta aukera dugu aipu bat leku fitxa birekin lotzeko. Gogoratu behar dugu askotan izen batek gauza bi izendatzen dituela, baserria eta auzoa esaterako eta argi ez dagoenean leku biekin lotu behar dela.

Fitxa honetan garrantzitsuena ez da **Leku Fitxa**-an ageri den izena, dokumentatutako era baizik. Behean zein lekurekin lotu dugun ageri da eta eskuinaldean fitxaturik ditugun guztiak.

II) Erabiltzailearen programa

Lana amaitzen denean errazago erabiltzen eta aldatzeko aukera ematen ez duen bertsioa ematen zaio udalari nahi duen leku guztietan jartzeko. Bertsio hau txostenak errez sortzeko asmatu zen.

2. Beste baliabideak

Erabateko garrantzia duen beste baliabideetako bat grabagailua dugu. Deiker-ek Eusko Jaurlaritzarentzat burutu zuen Bizkaiko toponimia azken bilketan *Mindisk Sony* erabili zuten duen kalitate paregabearengatik. Tamalez, erabilera konplexuegia izan zen eta hiru ikerlarietatik batek arazoak izan zituen grabaketak eginahal izateko eta talde batek hirutan eginbehar izan zituen grabaketak. Gaur egun ordenagailuan zuzen zuzenean konekta daitekeen Mp3 erabil daiteke lana merkatuz eta erraztuz.

Honetaz gain argazki kamara digitala behar da geroagoko lanak errazteko eta bilketa egiten laguntzeko.

Azkenik, mapak gogoratu behar ditugu. Orain arte ohikoena izan da toponimoak paperezko mapa baten gainean ematea, inoiz *pos-it* erabiliz. Gaur egun badira doako programak lan hau informatizaturik ematea bideragarri egiten dutenak, hala nola *Inkscape*.

g. Gizarteratze lanak

Puntu hau Felixek garatuko duenez ez naiz luzatuko. Bakar bakarrik azpimarratu nahi dut altxor hau zein dugula, inondik inora, udaletxean usteltzen utzi eta herritarrek ezagutzea eta erabiltzea lortu behar dugula.

Amaiera bano lehen eta gizalegeak agintzen duen bezala eskerrak eman nahi dizkiot Onomastika batzordekideei eta bereziki Patxi Galé eta Iratxe Lasari dokumentu hau garatzen emandako laguntza bikanrengatik.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

ARANBERRI ODRIOZOLA, FERNANDO. (2002): *Ermua-Eitzaga: Leku-izenak. Gure izanaren barrena*, Onomasticon Vasconiae 20, Euskaltzaindia, Bilbo.

BAÑALES, GOIO & GORROTXATEGI, MIKEL (2007): *Toponimia Histórica de Barakaldo*, San Antonio, Barakaldo.

BAÑALES, GOIO & GORROTXATEGI, MIKEL (2008): *La pérdida de latoponimia vasca en el Valle de Somorrostro,* Salgai Editorial SL, Abanta-Zierbena.

BARRENENGOA ARBERAS, FEDERICO (1990): *Onomástica de la Tierra de Ayala* [3 tomos], Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

BELASKO ORTEGA, MIKEL (1999): *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra*, Pamiela, Iruñea.

CARO BAROJA, JULIO (1990): *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, Donostia [1. edición (1945) Universidad de Salamanca].

ECHEVARRÍA ISUSQUIZA, ISABEL (1999): *Corpus de toponimia carranzana*, tesis doctoral, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.

ELEIZALDE, KOLDO: «Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas» *RIEV* (192230) y *BRSVAP* (1963-1974).

ELORTEGI, ANGEL Mª. (1992): *Pasaiako Toponimia*, Onomasticon Vasconiae 8, Euskaltzaindia, Donostia.

ERRASTI, ALBERTO (2005): *Zaldutik Zaldibarrera toponimian barrena*, Onomasticon Vasconiae 24, Euskaltzaindia, Bilbo.

EUSKALTZAINDIA / REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA (1991): *Actas de las I Jornadas de Onomástica, Toponimia*. Vitoria-Gasteiz, Abril de 1986 / *I. Onomastika Jardunaldien Agiriak, Toponimia. Gasteiz*, Onomasticon Vasconiae 4, Euskaltzaindia, Bilbo.

—— (1991): *Actas de las II Jornadas de Onomástica,* (Orduña, septiembre de 1987). *II Onomastika Jardunaldien Agiriak* (Urduña, 1987ko iraila), Onomasticon Vasconiae 17, Euskaltzaindia, Bilbo.

FURUNDARENA SALSAMENDI, JOXE JAVIER (2002): *Hondarribiko toponimia*, Onomasticon Vasconiae 23, Euskaltzaindia, Donostia

GALÉ GARCÍA, PATXI (2000): *Catálogo de Cimas de Bizkaia / Bizkaiako Gailurren katalogoa*, BFA, Bilbo.

—— (2007): Toponimia ikerketak, *FLV*, 104, 161-172 or.

—— (2008): Los Mapas representación o ficción (II). El estudio de la toponimia, *Pyrenaica* 232.

GOIKOETXEA GAZPIO, IRMA (2007): *Tolosako leku izenak*, Tolosako Udala.

GONZALEZ SALAZAR, José Antonio (1985): *Toponimia menor de Treviño*. (Cuadernos de Toponimia, 1), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— (1986): *Toponimia de la Montaña Alavesa* (Cuadernos de Toponimia, 2), Diputación Foral de Álava, Servicio de Publicaciones, Gasteiz.

——— (1986): *Toponimia menor de la Rioja alavesa* (Cuadernos de Toponimia, 3), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— (1987): *Toponimia menor de Salvatierra* (Cuadernos de Toponimia, 4), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— (1988): *Toponimia menor de Vitoria/Gasteiz* (Cuadernos de Toponimia, 5), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— *Toponimia menor de Añana* (Cuadernos de Toponimia, 6), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— (1996): *Toponimia menor de Zuia* (Cuadernos de Toponimia; 7), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

——— (1998): *Toponimia menor de Ayala* (Cuadernos de Toponimia; 8), Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Álava, Gasteiz.

GORROTXATEGI NIETO, MIKEL (2008): «Metodología en trabajos de toponimia local, la experiencia de Euskal Herria», *III Seminari de Metodologia en Toponímia i Normalització Lingüística (2007)*. Universitat de les Illes Balears, Palma, 2008.

GORROTXATEGI NIETO, MIKEL & SALABERRI, PATXI (2001): «Toponimia txikia arautzeko irizpideak», *Euskera* 45, 273-314.

GORROTXATEGI NIETO, MIKEL & SUSO OTXOA, SOFIA (2005): *Getxoko Leku Izenak*, Getxoko Udala / Ayuntamiento de Getxo.

IÑIGO, ANDRES (1996): *Toponomástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Gobierno de Navarra, Iruñea.

——— (2000): «Nombres de oficios en la oiconimia navarra», *FLV* 83, 139--149.

JIMENO JURÍO, JOSÉ MARÍA (1987): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, Onomasticon Vasconiae 2, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (1989-B): *Toponimia Histórico-etnográfica de Tafalla* (*THET*), 1987, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

——— (1989-c): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, Onomasticon Vasconiae 3, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (1990): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, Onomasticon Vasconiae, 6, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (zuzendari) (1991): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza. Navarra. Toponimia y Cartografía,* 2. argitalpena, Iruñea.

——— (1991-b): *Estudio Toponímico de Burlada*, Burlatako Udala / Ayuntamiento de Burlada, Iruñea.

——— (1992): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*, Onomasticon Vasconiae 9, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (1993): «Arga et Runa flumen», *FLV* 64, 1993, 507-519.

——— (1997): *Navarra. Historia del euskera*, Txalaparta, Tafalla.

——— (1998): «Estella / Lizarra. Toponimia», *FLV* 77, 133-162.

JIMENO JURÍO, JOSÉ MARÍA & SALABERRI ZARATIEGI, PATXI (1994): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae 12, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (1998): *Artajona. Toponimia Vasca / Artaxoa. Euskal Toponimia*, Altaffaylla Kultur Taldea & Nafarroako Gobernua & Sociedad de Corralizas y Electra de Artajona.

KEREXETA GALLASTEGI, JAIME (1992): *Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII*, Estudios de etnología y etnografía 2, Labayru ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo.

KNÖRR BORRÁS, HENRIKE: «Para una delimitación etno-lingüística Álava antigua. Ensayo de cartografía a partir de pruebas toponímicas *La formación de Álava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga 1982)*, AFA, Gasteiz, 1985, I (Ponentziak), 691

LÓPEZ DE GUEREÑU, G. (1989): *Toponimia alavesa seguido de mortuorios y despoblados y pueblos alaveses*, Onomasticon Vasconiae 5, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989.

MITXELENA ELIZALT, KOLDO (1997): *Apellidos vascos*, Txertoa, Donostia [primera edición (1953) Biblioteca Vascongada de Amigos del País, Donostia].

MUGURUTZA MONTALBÁN, FELIX (1997): *Laudioko 200 izen: luces y sombras de nuestra toponimia*, BAI, 17, Arabako Foru Aldundia & Laudioko Udala & Vital Kutxa, Laudio.

ORMAETXEA, JOSÉ LUIS (1996): *Arrasateko Toponimia*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae 15, Euskaltzaindia, Bilbo.

PAVO NUÑEZ, KRISTINA (2005): *Antzuolako toponimia*, Euskaltzaindia, Onomasticon Vasconiae 24, Euskaltzaindia, Bilbo.

SALABERRI ZARATIEGI, PATXI (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez,* Onomasticon Vasconiae 11, Euskaltzaindia, Bilbo.

——— (1994-b): «Nafarroako zenbait ibar, herri eta auzoren euskarazko izenaz-II», *FLV* 67, 451-466.

——— (1996): «Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez», en *FLV* 72, 223-234.

——— (1997): «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74, 7-39.

——— (1997-c): «Nafarroako Toponimia Nagusiaren Normalizaziorako Irizpideak», *Euskera* 1997-3, 653-666, «Criterios para la Normalización de la Toponimia Mayor de Navarra» izenpean itzulia, *Fontes Linguae Vasconum* 79, 1998, 363-376.

TELLABIDE, JOSU (1995): *Donostiako Toponimi Erregistroa / Registro Toponímico Donostiarra*, Gipuzkoa-Donostia Kutxa, Donostia.

TERRADO, JAVIER (1999): *Metodología de la investigación en toponimia*, Zaragoza.

UGARTE, JOSE LUIS (1998): *Urretxu eta Zumarragako toponimia*, Onomasticon Vasconiae 18, Euskaltzaindia.

USABIAGA, AMAIA (1993): *Andoaingo toponimia*, Onomasticon Vasconiae 10, Euskaltzaindia & Andoaingo Udala.